



"Maskulinitasun modelo homogeneoak mugak jarri dizkio gizonari"

Ritxar Bacete | Gizonduz elkarte | 7

Zuzendariak dio 'La Revoltosa' izan dela inoizko lanik arrakastatsuen | 30



Aretxabaletako auzo-alkateek beharrak azaldu dituzte | 11



Laurehun mendi bizikleta-zale Iban Altuberen omenaldian | 26



## KOLORE ZURRUNBILOA

'Zazpikoloro' lana aurkeztu eta Manuel Muñoz kiroldegia dantzan jarri zuten Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek zapatuan

Emanaldiaren ostean Porrotx, haur eta gurasoekin batera erretratuak ateratzen.

JOSETXO ARANTZABAL

# Enpresetako zuzendariendako aholkuak Ander Errastiren eskutik

Ander Errasti bergararrak liburu berritzailea egin du, nazioartera irten nahi duten enpresei zuzendutakoa. Arlo horretan zegoen hutsunea betetzera dator liburua, eta Eusko Jaurlaritzak EAEko enpresei bidali die, lantresna gisa izan dezaten. | 2



Jabi Lazkano herritarren artean. | J.A.

## Hamazortzi urtez kartzelan egon ostean egubakoitzean askatu zuten Jabi Lazkano

Ongi-etorri beroa egin zioten Jabi Lazkano bergararrari egubakoitzean. 1993ko abuztutik egon da preso Espainiako hainbat espetxetan, eta azken bi urteak Zuerako espetxean egin ditu; Muniben jende mordoa batu zen | 4

**AZAROKO SARIAK** **goienakluba**  
Abantailaz betetako kluba!

**ETA ZURETAKO BADIRA?**  
► Zoaz 21. ORRIALDERA

# Enpresetako zuzendariendako aholkuak, Debagoienetik

- ▶ Ander Errasti bergararrak liburu berritzailea egin du
- ▶ Nazioartera irten nahi duten enpresendako da
- ▶ Koautoreen artean beste hiru debagoiendar daude

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Debagoienean jaio eta debagoiendar batek egindako liburu bat Euskadiko enpresa gehienetako zuzendariak daukate esku artean, lan-tresna gisa. Eta laster, nazioarteko enpresetako buruek ere bai. Hilabete eskas da argitaratu zenetik, baina hain harrera ona egin diotenez, atzerriko argitaletxeek ere interesa erakutsi dute.

*International Manufacturing Networks: Global Operations Design and Management* izeneko liburua da, eta Bergaran bizi den Ander Errasti irakasleak egin du. Beste hiru debagoiendarrek ere parte hartu dute: Jose Alberto Eguren eta Kepa Mendibil bergararrak eta Miguel Mari Egaña oñatiarrak.

Espainiako, Suediako, Italiako, Ingalaterrako, Eskoziako eta beste herrialde batzuetako 60 ikertzaile eta enpresaburuk ere euren ekarpena egin dute, eta horietatik 14 koautoreak dira.

Beste herrialde batzuetara irten nahi duten enpresei erabakia hartzen lagundu nahi dien erreminta da liburua. Horretarako, eredu berri bat proposatzen dute egileek.

Ander Errasti Elgoibarren jaio zen baina Bergaran bizi da. 29 urte ditu eta Goi Ingeniaritza Industrialean doktorea da. Logistika eta ekoizpen sistematan aditua da.

## "Ez zegoen erantzunik"

Kontraesana dirudi, baina honela da: atzerrira irteteko eta bertan ondo lan egiteko eredurik ez zegoen orain arte. Hutsune hori bete nahi du liburua. Ander Errastik honela diosku: "2006an konturatu ginen enpresaburuak arazo larria topatzen zebiltzala,

ez baitzuten eredu garbirik merkatu globalean enpresen erronkei aurre egiteko. Ingeniaritza ikasketetan betiko oinarriak erakusten ziren, baina ez zegoen erantzun garbirik enpresen orduko erronkendako". Ikusi zuten Euskadin 106 enpresak zutela lantegia Espainiatik kanpo, baina guztiek arazo berberak izan zituztela.

## Deslokalizaziotik zulora

Ikertzaile eta irakasle bergararrak arazo horietako batzuk azaltzen ditu: "Atzerrian lantegia egiteko orduan, hemengo diseinua kopiatzen dute gehienek, eta hori akats bat da: han beste produktu batzuk ekoizten dira, dena desberdina da, beraz, lantegia horri egokitu da diseinatu behar da".

Hornitzaileekin ere arazo asko topatu ditu Errastik: "Leku industrializatuan gaude eta hornitzaile lehiakorrak nonahi daude, baina beste leku batzuetan ez, eta arazoak egon daitezke planta produktibo hori aurrera eramateko".

Deslokalizazioa, bestalde, ez da enpresa globala izatea, eta enpresa zabalik jarraitzea edo dago jokoan: "Enpresa lokal bat esportatzaile bihurtu daiteke: enpresaren lanpostuak tokian geratzen dira, baina bere etxeko merkatutik kanpo saltzen hasten da. Edo deslokalizatu egin daiteke: enpresak bere betiko merkaturuan bakarrik saltzen jarraitzen du, baina lanpostuak kanpora eramaten ditu. Azkenik, enpresa globala da tokiko merkatua eta lanpostuak dituena, baina kanpoan ere ekoizten eta saltzen duena. Eredu hori da liburu osoan guk proposatzen duguna. Ikusi dugu deslokalizatzen diren enpresak ez direla iraunkorrak eta itxi egiten dutela azkenean".

## Europako adituekin

Hutsune hori bete nahian, 2007an, Logistikako Euskadiko Klusterrarekin ikerketa proiektua hasi zuten. Galdetu zioten esperientzia zuten 18 enpresabururi zeintzuk ziren erronka horiei aurre egiteko gakoak. Gero, Globope izeneko ereduaren lehen bertsioa egin zuten.

## Euskarazkoa egin nahian

Ander Errasti logistikan aditua da, eta horren gainean *Logística de Almacenaje* liburua egin zuen, berak eskolak emateko erabiltzen duena. Anaya talde editorialak urrian atera zuen merkatura. Hizkuntza guztietako eskubideak ditu Anayak, euskarazko bertsioarenak izan ezik: horiek Errastik dauzka, eta bere erronka da euskaraz argitaratzea.



Liburuaren azala. | GOIENA



Ander Errasti Goi Ingeniaritza Industrialean doktorea, Ternua Astore enpresaren egoitzan

Globope eredu berria Europan erreferente diren ikertzaile eta kontsultoreekin hobetu zuten, eta 2010ean dena laburtzen hasi ziren. Horren emaitza da liburua.

## Erabakietan lagundu

Liburuak nobedade nagusi bat sartzen du: "Nazioartekotze-prozesua askotan landu da negozioaren ikuspegitik, baina oso gutxitan

sistema produktiboaren eta logistikoaren ikuspegitik. Liburuak operazio produktibo eta logistikoaren estrategian sakontzen du, eta operazio horiek euren enpresetan aztertu, ebaluatu, definitu eta hedatu behar duten zuzendariendako kontsulta-gida pentsatuta dago", azaltzen du Ander Errastik.

Nazioartera irteterakoan, enpresa batek erabaki asko hartu behar ditu produkzioari dagokionez, eta baita azken produktua bezeroari ailegarazteko prozesuari dagokionez: bilketa, garraioa... Besteak beste, alderdi hauetarako pistak ematen dituzte: produkzio-unitate berriak non ipini, produkzio prozesuaren zati bat egin edo azpikontratatu egin behar den, hornidura-katea lokala edo globala izan behar den, produkzio-instalazio batek har ditzakeen rol estrategiko posibleak, instalazioak zela diseinatu behar diren, erosketen funtzio estrategikoa zein izan behar den, hornitzaileen sarea nola diseinatu eta garatu behar den, erosketa-politikak egokiak diren edo enpresa hornitzeak dauzkan kostuak txikitu daitezkeen.

## Pertsonak, "funtsezkoak"


Alderdi teknikoek gain, "oinarriko arlo bat" pertsonen kudeaketa da. "Kanpoan lan egiterakoan, etxeko edo kanpoko langileak hartu behar dira? Eta hemengoak izan behar badira, zuzendariak, teknikariak, langileak eraman behar dira? Normalean, zuzendariak etxetik eroaten dira, eta teknikariak eta ingeniariak ere bai. Denbora baten ostean, beste herrialdeko langileak kontratatzen dira". Eta argi du beste hau: "Pertsonen kudeaketa funtsezkoa da proiektuek kanpoan arrakasta izan dezaten".

## Laster, edizio internazionala

2006an hasitako ikerketa baten ondorioen laburpena da *International Manufacturing Networks: Global Operations Design and Management*. Industria Sailak argitaratu du eta 500 aleko lehen tirada bat egin zuen. Euskadiko enpresaburuei banatu zien, eta Ander Errasti eta gainerako egileak dagoeneko edizio internazionalan lanean dabilza.



Liburuaren azala. | GOIENA



; bere liburuan oinarritutako saioak egiten dabil enpresa askorekin. | LEIRE KORTABARRIA

**ANDER ERRASTI**  
LIBURUAREN EGILEA

## "Datozen urteotara begira erabaki behar dute enpresek; zer datorren aurreikusi behar dute"

Enpresa nazioarera irteteko, askotan sistema osoa berriz diseinatu behar duela dio Ander Errastik.

### Zelan laburtuko zenuke liburua?

Eredu bat da. Enpresa bat munda irteten denean, bere merkatuetatik kanpo ekoizteko, saltzeko eta erosteko gertu dago. Hori egiteko eredu bat behar du, gauza batzuk kontuan hartu dituela eta tresna batzuk badituela ziurtatu behar du. Liburua operazio produktibo eta logistikoetan dago oinarrituta. Askotan, enpresak horien bien diseinua aldatu egin behar du.

### Eta zelan egin hori?

Ez da datozen asteotan oinarritu behar, baizik eta hemendik hiru, bost edo hamar urtera. Horretarako, eszenarioekin lan egiten da: optimista, probabilista eta pesimista.

### Zaila izango da hori.

Eguraldia aurreikustea moduko zaila da, horregatik erabiltzen dira eszenarioak. Indar Ingeteam enpresarekin nabil lanean, AEBetan planta berria martxan jarri dute. Bada, aurreikusi zutenetik bi urte pasa dira. Erabaki estrategikoak hartzeko, ereduak behar dira: zeintzuk diren praktika onak eta zeintzuk eman dezaketen arazoak.

### Euskal enpresak zelan daude?

Esperientzia handia dago hemen. Hemengo aitzindaria Mondragon taldea da. Ezagutza handia dago. Liburua egiteko, lan egin dut Fagorrek, Ulmarekin, Oronarekin...

## Liderrak horrela egiten dira

### INDAR INGETEAM

Milwaukee-n (AEB) ireki berri duten ekoizpen lantegia bi urteko lanaren fruitua da: orduan erabaki zuten AEBetara joatea. Orain hasi dira lehen eskaerak jasotzen.

### IKEA

Prezio-lidergoa dute. Kalitate egokia, diseinu erakargarriak eta produktu funtzionalak dira bere apustua. Hornikuntzan eta biltegietan kostu txikiak eta produktuak azkar irtetea kontrolatzeko, logistika zorrotza daukate.

### TXIKI ETA ERTAINAK

Negozio-estrategia bat aukeratzea erabakigarria da. Adibidez, produktu-lidergoa aukeratzeko badute, balio erantsi handiena duten sektoreetan zentratu beharko dira.

### IBM

Produktu-liderrak izatea eta bere hornitzaile eta bezeroekiko lotura handia izatea (bezero intimitatea, marketinean) dira bere estrategiak.

### HEGALDI MERKEAK

Kostu txikiko airelineek merkatua iraultzatu zuten kostu-lidergoan eta operazio-bikaintasunean oinarritutako estrategiekin.

### BOTILAKO URA

Erresuma Batuan liderra da Highland Spring Ltd. ur botilaratu ekoizlea; hau da, marka-lidergoa dute. Hori babesten dute lankidetzaren estrategiekin, mailako marketinarekin eta ekoizpen eta hornikuntza prozesu malguekin.



Industria Sailarekin batera aurkeztu zuen Ander Errastik bere liburua, azaroaren 2an BECen. | ANDER ERRASTI



Jauregibarría 10 (Sarrera Erguin kaletik) ARRASATE  
943 84 99 88 / 673 30 43 74  
www.ponpa.info

# Zure autoa beti garbi!

- ◆ Garbiketa integrala.
- ◆ Larruaren tratamenduak.
- ◆ Pinturaren deskontaminazioa.
- ◆ Karrozerien leunketa.

Astelehenetik ostiralera    Zapatuetan  
08:30 - 13:00 / 15:00 - 19:30    08:30 - 13:30

**ZABALDU BERRIA!**

# Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen kurtso irekiera

Zabala etxeko fatxada Erret Mintegiko liburutegirako berreskuratzeko asmoa dutela aurreratu zuen alkateak

EDU MENDIBIL | BERGARA

Kimikaren Nazioarteko Urtea da amaitzera doana eta Bergarak kimikarekin izan duen harreman estua (Elhuyar anaiek wolframioa bakartu zuten 1783. urtean Bergaran) dela-eta, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak (EAE) ikasturte hasiera ekitaldia egin zuen egubakoitzean Bergaran. Besteak beste, Martin Garitano diputatu nagusia, Jose Maria Urkia EAEko presidentea eta Jesus Elortza Bergarako alkatea egon ziren udaletxeko ekitaldian.



Ajintariak eta EAEko ordezkariak, egubakoitzeko ekitaldian. | JOSETXO ARANTZABAL

## Ibilbidea historian zehar

Ines Pellon irakasleak egin zuen hitzaldia aretoa betetzen zutenen aurrean. *Bergara en el año internacional de la química: el fulgor de un pasado que iluminará el futuro* izenburupean, EAEk XVIII. mendetik Bergararekin izandako harremana aztertu zuen; garai oparoenen ondoren, 1823an garai ilunak iritsi zirela azpimarratu zuen eta 1848an Matematikako Eskola eta Industria Eskola abian jartzeak beste bultzada bat eman ziotela EAEn betiko nahiari, garaikideen kultura maila hobetzeari alegia.

XVI. mendetik Bidekurutzeta kaleko 14. zenbakian zegoen Zabala Etxeak garrantzi handia izan zuen historian zehar (han egon zen Laboratorium Chemichum delakoa XVIII. mendean). 1919an



Jendez lepo egon zen udaletxeko osoko bilkuren aretoa. | J.A.

bota zuten baina fatxadako harriak ondo gordeta daude. Alkateak aurreratu zuenez, Udalaren asmoa da fatxada berreskuratzea Erret Mintegian kokatuko den liburu-

tegirako. Egubakoitzeko ekitaldiari amaieran Peñafloredako kondearen hainbat musika pieza eta Bergarako gozoak dastatu zituzten bertaratuek.



Jende mordo bat zen Muniben Lazkanori ongi-etorria egiteko. | J. ARANTZABAL

## Kartzelan 18 urte egin ostean etxean da Jabi Lazkano bergararra

Azken bi urteak Zuerako espetxean eman ditu; herritar ugari egubakoitzeko ongi-etorrian

E.M. | BERGARA

Jabi Lazkano presoari ongi etorria egin zioten egubakoitzean Bergaran. 1993ko abuztutik egon da preso Lazkano Espainiako estatuko hainbat espetxetan. Zuerako espetxean izan da azken bi urteotan; zortzirik pasa iritsi zen egubakoitzean Munibe plazara.

Txalaparta hotsez egin zioten ongi-etorria Lazkanori Muniben. Emozioa nabaria zen haren aurpegian zein familia-koak eta lagunaren artean. Iñigo Arregik egin zituen aurkezpen lanak. Kartzelan emandako urteetan preso politikoen aldarrikapenak zein herriaren askatasun gogoaz zutik mantentzea eskertu zion Arregik Lazkanori. Eta Euskal Herrian gatazka

politikoa gainditu eta bake eta normalizaziora bidean, preso eta errefuxiatuen etxeratzea (*Kanto*-rena tartean) aldarrikatu zituen baita.

### Lagunei eskerrak

Ohi denez, kaleratutako azken preso bergararrak, Antxon Sasiainek jantzi zion txapela Lazkanori atzo. Erabat hunkituta, eskerrak eman zizkien Lazkanok urte hauetan guztietan laguntza eskaini dioten guztiei. Espetxean dauden preso eta iheslariak gogoan izan zituen eta epe ertainera Euskal Herriak independentzia lortzeko itxaropena azaldu zuen Lazkanok. Amaiera, *Eusko gudariak* abestu zuten batutakoek eta jarraian luntxa izan zen Muniben.



TXOMIN MADINA



TXOMIN MADINA

## Torunsakoen protesta

Bergarako Torunsa enpresako langileek greba mugagabeen sartu ziren egubakoitzean eta protesta egiteko elkarretaratzea egin zuten goizean San Martin plazan. Zuzendaritzak langileen ordezkariekin etorkizunerako plan bat egitea eskatzen dute langileek. Zor dieten soldaten kobrantza ere salatu dute. Grebak iraun bitartean martitzenero eta egubakoitzeko egingo dituzte elkarretaratzeak.

## Biolentzia salatzeko bilkura

Gizon zein emakume, adin askotariko jendea bildu zen egubakoitzean, iluntzean, 'Emakumei erasorik ez!' lelopean Arrasaten egindako elkarretaratzean. Emakume Txokoak eta Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta, emakumeen kontrako biolentzia salatzeko bilkura izan zen. Mugarik gabe elkartearen eskutik emakumeen kontrako indakeriari buruzko hiru pelikula labur ere eman zituzten egubakoitzean. Herriko hainbat emakumek ere hartu zuten hitza emakumeen aurkako indarkeria salatzeko.

# Europako elikagaiak Debagoieneko 218 familiarendako

Arrasateko Eliza Ebangelistan egin zuten banaketa aurreko astean; hurrengoa, abenduaren 15ean

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Elikagai Bankuak Europatik jasotako elikagaiak aurreko astean banatu zituzten Arrasateko Eliza Ebanjelistan. Debagoieneko 218 familiak jaso zuten janaria eta

edaria. Guztira, 619 pertsonak. "Galtzen ez diren produktuak banatzen ditugu: pasta, esnea, zukua, irina, gazta, tomatea, umeendako esnea, salda... Familiako kideen arabera, gehiago

edo gutxiago jasotzen dute, baina denetik", esan digu banaketaz arduratzen den Rosi Soriano.

Europatik datozen elikagaiak Debagoien osoko familien artean banatzen dituzte. "Pakistandarrak

eta marokoarrak dira onuradun gehienak, baina gero eta gehiago dira bertakoak", esan digute.

## Lokal baten beharra

Boluntarioak dira bertan lanean dabiltzanak: eskaerak bideratu, eta elikagaiak jaso, antolatu eta onartuak izan diren artean banatu. Izan ere, Europatik datozen elikagaiak jaso ahal izateko, aurretik eskaera egin behar izan dute. Elikagai bila doazenean, bizikidetzatziurtagiria eta NA eskatzen dizkiete.

Europako elikagaiak hiru hilean behin banatzen dituzte, eta Bergarako Elikagai Bankukoak hileroko. Banaketa guztiak Eliza Ebanjelistan. "Elizkizunak ez dauden egunetan egin behar dugu banaketa. Oso deserosoa da. Lokal bat behar dugu banaketa egiteko", dio Rosi Soriano.

## Juankar Olaeta, Gipuzkoako Kristau Eskolako presidente

Oñatiko Elkar Hezi ikastetxe-ko zuzendari Juankar Olaeta Gipuzkoako Kristau Eskolako presidente aukeratu dute. Hala, 54 ikastetxeren ordezkari gorenak du Euskadiko Kristau Eskolako zuzendari nagusi Aitor Bilbaorekin batera.

EAEEn 100.000 ikasle, 7.000 langile eta 4.200 ikasgela ditu Kristau Eskolak.



Juankar Olaeta. | ELKAR HEZI

## 15 harrera familia behar ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak harrera familiak behar ditu 7-12 urte arteko umeak hartzeko. Hain justu ere, 15 familia behar dituzte adingabeko haurren harrera programan parte har dezaten. Egun, 310 haur eta nerabe daude 241 familian. Ia erdiak loturaren bat du adingabekoekin; beste erdiak, aldiz, aurrez ez zuen inolako harremanik.



Rosi Soriano eta bere laguntzaileak Europatik ekarritako elikagaiak antolatzen. | MIREIA BIKUÑA

## ESANAK

"Banaketak erosoago egiteko lokal bat behar dugu"

ROSA SORIANO | BOLUNTARIOA

## DATUA

619

PERTSONA

Horiek dira Europatik datozen elikagaiak baliatzen diren pertsonak Debagoieneko.

# Bergaran konpost planta egin gura du Foru Aldundiak lehenbailehen

Debagoieneko Mankomunitatea ere badabil Epelen egitearen aukera aztertzen

E. AZKARATE/M. BIKUÑA | BERGARA  
Gipuzkoako Foru Aldundiak lehenbailehen egin nahi du konposta egiteko planta Epelen, Bergarako lurretan. Gaur egun Gipuzkoan zabor hondakinetatik batzen den materia organikoa tratatzeko eta konposta egiteko lurraldean dagoen planta bakarra Azpeitiko Lapatxekoa da, eta gainezka dago; hala, hainbat aukera lantzen dabil Gipuzkoako Foru Aldundia. Eta aukera horien artean dago Bergarakoa. Hori esan du Gipuzkoako Ingurumen eta Lurralde Antolaketa diputatu eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoko presidente Juan Carlos Alduntzinek.

## Materia organikoak gora

Gipuzkoan, azkeneko urteotan, gora egin du zabor hondakinen artean bereizten den materia

organikoak. Alde batetik, bostgarren edukiontzia marroia hainbat herritan jarri dute; tartean, Aretxabaletan. Beste alde batetik, gero eta herri gehiagotan ipini dute atez ateko zabor batze sistema; besteak beste, Antzuolan. Gainera, helburua da etorkizun hurbilean gero eta herri gehiagotan jartzea atez atekoa. Debagoieneko Mankomunitateak, esaterako, apus-

tu garbia egin du sistema horren alde, eta hurrengo Oñatin eta Bergaran ezarri nahiko luke.

## Lapatxan gainezka

Materia organikoak gora egin badu ere, hura tratatzeko konpostaje planta bakarra dago Gipuzkoan: Azpeitian.

Lapatxeko plantak 2.500 tona hondakin organiko kudea ditzake urtean, baina iaz 4.004 tona iritsi zitzaizkien, Usurbilen, Hernanin eta Oiartzunen organikoa bereizita biltzeko aukera jarri zutenetik.

Hori horrela, San Markosko Mankomunitatea osatzen duten Usurbil, Hernani eta Oiartzunek materia organikoa Lapurdiko Itxasu herrira bidaltzea aztertzen dihardute. Herri horietatik Azpeitira edo Itxasura antzeko distantzia dagoela dio Alduntzinek.

## DATUA

4.004

TONA

Hori da iaz Lapatxeko plantak hartutako materia organiko kopurua.

## Salgai Zuberoako ikastolen aldeko Gabonetako otarreak 39 eurotan

M.B. | ARRASATE

Hilaren 30era arte eska daitzke Zuberoako produktuz betetako Gabonetarako otarreak (ardi esnez egindako kiloko gazta bat, kilo erdiko ezti potea, patea eta etxean egindako bizkotxoak). Interesatuek mezua bidali behar dute [zuberoako.ikastola1@orange.fr](mailto:zuberoako.ikastola1@orange.fr) helbidera, izena,

telefonoa eta nahi duten otarre kopurua zehaztuta. Otarre abenduaren 10ean jaso ahal izango dira.

## Ikastola handitzeko

Otarreen salmentatik batutako dirua Sohütako Eperrak ikastolaren handitze lanak ordaintzeko erabiliko dute. 110 ikasleak dihardute han.

## EUSKADI LITERATURA SARIA 2011

-saiakera-

### Moroak gara behelaino artean?

Joseba Sarrionandiaren liburu ezberdina. Bertan aurkituko dituzu pertsonaia historikoak eta gerla kolonialari buruzko gogoetak, aitormen pertsonalak eta iritzi politikoak, biografia bitxiak eta pasadizo sinesgaitzak, hizkuntzei buruzko ideiak...



[www.pamiela.com](http://www.pamiela.com)





Vicenc Navarro irakasle eta idazlea, Eskola Politeknikoko gela nagusian hitzaldia egiten. | LEIRE KORTABARRIA

# Krisiaren soluzioa azaldu zuen Vicenç Navarrok

Aberastasuna hobeto banatu behar dela esan zuen irakasleak Arrasaten

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Ekonomia eta finantza krisia zergatik sortu zen eta horretatik irteko zer egin behar den azaldu zuen Vicenç Navarro irakasle eta pentsalariak eguen iluntzean Arrasateko Eskola Politeknikoko areto nagusian: funtsean, ongizate estatua handitu eta aberastasuna banatu. Hemizikloa bete egin zen eta jende askok zutik ere jarraitu zuen irakasle katalanaren hitzaldia, Gizabidea Fundazioak antolatuta. Une oro, entzuleen konplizitate izan zuen Navarrok.

Adibide praktiko bidez eta hitz xehez azaldu zuen Vicenç Navarrok krisia zergatik sortu zen. Espainiaren kasua aztertu

zuen, batik bat, Grezia, Portugal eta Irlandaren kasuekin parekatuz eta Europako Batasunarekin, batez ere Suediarekin konparatuz, beste muturreko kasu gisa.

## Defizita lehendik zeterren

Bere esanetan, aipatutako lau herrialdeek gobernu ultrasuaindarrek, diktadorek edo oso gobernu kontserbatzaileek izan dituzte, eta horrek antzeko arazo batzuk sortu dizkie: diru publiko gutxi inbertitzea ongizatean. Espainiaren kasuan, Euro monetan sartzeko konbergentzia neurrien artean zegoen defizit publiko txikia lortzeko, Aznarrek ongizate estatua sakrifikatu zuela

esan zuen. "Horren ondorioz, defizit publikoa estrukturala bihurtu zen, baina ezkutatuta geratu zen, burbuila inmobiliarioarengatik. Jendea asko zorpetu zen, etxebizitza abal gisa eman. Burbuila inmobiliarioak eztanda egin zuenean, agerian geratu zen barru-barruko defizit estruktural hori eta krisia sortu zen", esan zuen Navarrok.

## Bost milioi lanpostu

Beste aldean dauden herrialdeen adibide gisa Suedia erabili zuen. Bertan, gastu sozialera diru publikoaren %29 bideratzen da; Espainian, diru publikoaren %22 besterik ez. Gainera, Suedian,

administratzaio lan egiten dute langileen laurdenak; Espainian, %9ek bakarrik. Langabeziarekin bukatzeko modua eman zuen: "Espainiak Suediaren pareko ongizate estatua balu, bost milioi lanpostu inguru sortuko lituzke. Beraz, langabezia bukatu egingo litzateke".

Espainiako gobernuak jarraitutako politika fiskala ere gogor salatu zuen, esanez kapital handiak oso zerga txikiak ordaintzen dituela. Ironiaz azpimarratu zuen zelan "sozialistek ere zergak jaitsi" zituzten, "batez ere gehien dutenei".

## "Badaude alternatibak"

Krisiarekin bukatzeko modua, Navarrok iritzi, aberastasuna hobeto banatzea litzateke. Horrela, jendeak kontsumitzeko, gatzeko diru gehiago izango luke eta zergak modu ekitatiboagoan ezarriko lirateke.

Itzaropenerako mezua ere bidali zuen: "Gobernu eskuindarrak, komunikabideen bidez, esaten dute ez dagoela alternatibarik, baina badago".

## Oinarrizko Errentarako baldintzak gogortu dituzte

L.K. | ARRASATE

Oinarrizko diru-sarrerara jasotzea zailagoa izango da urtarilaren lehen aurrera, hilaren 24an Eusko Legebiltzarrak onartutako lege-aldaketaren ondorioz. Esaterako, Oinarrizko Errenta (gaztelaniaz, RGI) jasotzeko urte bat errolatuta egon beharrean, orain hiru urtean errolatuta egon beharko da eskatzailea.

Oinarrizko Errenta eskatzerakoan, frogatu egin beharko da gutxienez hiru urtean EAEn errolatuta egon dela eskatzailea; edo, bestela, gutxienez bost urtean soldatapeko lana egin duela.

Errenta lortzeko, horrez guztiaz gain, eskatzailea EAEn bizi izan beharko da gutxienez urte betez; edo, bestela, EAEn errolatuta egon beharko da laguntza eskatu arteko 10 urtetatik bostean, gutxienez.

Oinarrizko Errenta jasotzen dutenek, pentsiodunek, erabateko elbarritasuna dutenek eta 23 urtetik azpikoek izan ezik, "gizarte lanak" onartu beharko dituzte "larrialdi egoeretan edo egoera berezietan".

## Aurten hasiko dira Araxes ibaiko obrak, LKSren proiektuarekin

Gipuzkoako Foru Aldundiak lizitazioa atera du Araxes ibaia saneatzeko lanen proiektua. Berau LKS Ingeniaritzak idatzi zuen. Obrak aurten hasiko dira, 2.685.554 euroko aurrekontuarekin. LKSk egindako proiektuak hiru ekintza aurreikusten ditu: Lizartzan dagoen kolektorea konpondu, Elizondan adar berria egin bi kolektore batzen diren punturaino, eta Araxesen bidea jarraituta egin beharreko urbide nagusia.

## Auto elektrikoa egin dute Tecnun-ek eta Fagor Automatioren

Donostiako Ingeniaritza Goi Eskolako (Tecnun) ikasleek jarleku bakarreko automobil elektrikoa aurkeztu zuten Montmelon, eta Fagor Automatioren elkarlana izan dute. Joan den hilabetean izan zen Formula Student unibertsitate-lehiaketa, eta "guztiz elektrikoa den auto bat aurkezten duen lehen talde espainiarra izan da", esaten du Fagor Automatioren. Mondragon taldeko kooperatibak bi motor eta lau erreguladore utzi zituzkien.

## Kooperatiben Urteko ekitaldi nagusietako bat Oñatin izango da

L.K. | ARRASATE

Nazio Batuen Erakundeak Kooperatiben Nazioarteko Urtea izendatu du 2012a, eta horrekin bat egin du Konfekoop-ek, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak. Urte osoan 20 ekintza egingo dituela jakinarazi zuen aurreko astean, eguenean. Ekitaldi nagusietako bat Oñatin izango da: Gizarte Ekonomiaren Ikerlarien Jardunaldia, hain zuzen ere. Aurrerago jakinaraziko dute Oñatiko programa zehatza.

Javier Goienetxea Konfekoop-eko presidentea eta Felipe Iarritu Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako zuzendariak jaki-

narazi zuten jardueren programa. Kooperatiben eragin sozio-ekonomikoa euskal jendarteari eza-gutzera ematea eta kooperatiben sorrera eta hazkunde autonomoa sustatzea dira helburuak.

## Ekainean izango da

Prestatu diren ekitaldi garrantzitsuen artean, ondoko hauek daude: CIRIECek antolatu duen Gizarte Ekonomiaren ikerlarien XIV. Jardunaldi Nazionalak ekainaren 20, 21 eta 22an Donostian eta Oñatin; TESS Gizarte Ekonomia Jardunaldia 2012ko otsailaren 1ean; Kooperatiben Nazioarteko Biltzarra eta amaiera-eki-



Javier Goienetxea. | DOBLES

taldia Euskalduna Jauregian 2012ko azaroaren 29an; eta Kooperatiben Jaialdia Landako Gunean (Durangon) 2012ko aza-

DATUA

20

EKINTZA

2012. urte osoan 20 ekintza berezi egingo ditu Konfekoop-ek.

roaren 11n. Azken hori ekimen irekia izango da, kooperatibek kooperatibentzat antolatuta.

## Nazio Batuetan

Nazioarteko Kooperatiba Aliantzako presidentea Pauline Greenek urriaren 31n inauguratu zuen Kooperatiben Nazioarteko Urtea, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren aurrean.

Ritxar Bacete | Gizonduz elkarteko kidea

# "Maskulinotasun modelo homogeneoak mugak jarri dizkio gizonari"

- ▶ Emakumearen Euskal Erakundeak sortu du Gizonduz
- ▶ Berdintasunaren alde lan egiten du talde horrek

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARETXABALETAN Egubakoitzean Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna izan zela aprobetxatuta, Gizonduz elkarteko Ritxar Bacena izan zen Aretxabaletan. Berdintasunaren alde gizonetzko taldeek egiten duten lana azaldu digu.

## Noiz sortu ziren berdintasunaren aldeko gizonetzkoen taldeak?

Berdintasunaren aldeko gizonetzkoen taldeak orain dela 20 urte inguru hasi ziren lanean, bai hemen eta baita nazioarte mailan ere. Orain arteko lana hausnarketara pertsonala eta norberaren jarreraren aldetara izan da. Badaude hainbat gertaera mugarriri izan direnak; esaterako, 89. urtean Kanadako unibertsitate baten izandako hilketak bat. Matxisismoak hil egiten zuelako konturatu ziren; hortaz, nork bere buruarekin egiten duen lanaz gain, ikusi zuten beharrezko zela kanpora begirako lana egitea. Gizonetzkoen taldeak mugitzen hasi ziren sensibiltziazio aldetik bakarrik ez, baita denuntzia publikoak egin eta emakumeei elkartzuna adierazten ere.

## Ze egiten dute talde horiek?

Estatuan mugarriri izan da Barzelonan urrian egin genuen jardunaldia. Mugimenduan sartuta gauden talde guztiak elkartzu ginen eta proposamen batzuk zehaztu genituen. Orain, bi ardatz horiekin lanean gabilta: bata, urriaren 21a biolentzia matxistaren aurkako gizonen aldarrikapen eguna izatea; eta bestea, martxoaren 19a aita berdintasunaren eguna izatea. Hau da, biolentziaren aurkako konpromisoa hartu dugu, baita konpromiso handiagoa etxeko zaintzan. Lehen aldia da testu bateratu bat egiten duguna.

## Orain arte, gizonetzkoen lana ezkutu egon da. Zergatik?

Estatuan, erakundeetan gizonak berdintasunean hezteko dagoen lehenengo erakundea da Gizonduz, emakumearen euskal erakundeak sortua. Estatuan bakarra da.

Jerezko Udala izan zen aitzindaria, baina gobernu mailan hau da lehenengoa.

Zergatik? Orain arte ez da masa kritikorik egon berdintasunaren alde lan egin duena. Izan ere, orain arte gizonak ez dira sensibiltzatu, berdintasunik ezak onurak izan dituelako gizonetzkoenak. Onurak dituzunean ez dituzu galdu gura, mantendu egin gura dituzu. Feminismoaren borroka bestelakoa izan da, esku-bideak aldarrikatu dituzte, baina gizonak berdintasunaren alde egiten dugu, eta pribilegio batzuk galdu.

## Zer irabazten dute gizonetzkoen berdintasunarekin?

Pribilegioak galduko ditugu, baina ardurak irabaziko ditugu. Kaliforniako unibertsitate batean 15 urte dihardute ikerketa bat egiten: berdintasunaren aldeko jarrera duten gizonetzkoak –umeak zaintzeko lanaldi murriztuan daudenak, etxeko nagusiak zaintzen dituztenak...– eta jarrera matxistagoa dutenak aztertu dituzte. 6.000 dolarko aldea dago bi talde horien artean. Berdintasunaren aldeko jarrerak denbora kentzen dizu erakunde bateko presidente izateko, edo gerente izateko... beste ardurak batzuk zure gain hartu dituzulako.

## Euskal Herrian, nor izan da borroka honetan aitzindaria?

Xabier Odriozola izan da aitzindaria. Orain dela 20 urte hasi zen lanean eta hainbat talde sortu

**"Orain arte, berdintasunik ezak onurak izan ditu gizonetzkoenak"**

**"Maskulinotasun homogeneoak duen kostua ikertu egin beharko genuke"**

zituen. Gaur egun, gizonetzko talde hauetan lanean gaudenok badugu nolabaiteko zorra Xabier Odriozolarekin.

## Hitzaldietan, zer galdetzen du jendeak?

Aretxabaletan, adibidez, galdetu zuten ea zergatik eskaintzak izan arren hainbat emakumek ez dituzten gura ardura postuak. Hori gertatzen da, batez ere, etxekoak zaintzen dituztelako. Norbaitek zaintza horiek egiten baditu, konturatuko da lehenengo galtzen dena denbora dela, bai norberarendako eta baita beste gauza batzuk egiteko ere.

Gizonak ez dute argi izaten zertaz ari garen, ez dute onartzen jaso dugun heziketa sexista, ezta jaso dugun maskulinotasun modelo homogeneoak jartzen dizkigun mugak ere. Adibidez, neskatilak dituzten aitek beste modu batera ikusten dute hori. Berdintasunik eza ezberdin ikusten da norberaren alaba bada biolentzia edo esplotazio hori jasan dezakeena.

## Gaur egungo gazteek nola bizi dute berdintasun hori?

Datu esanguratsua da biolentzia matxistaren gehiengoak 30 urte baino gutxiago dituela. Horrek esan gura du gazteak matxistagoak direla? Nik uste dut eredu aldatu egin dela. Gaur egungo telesailetan agertzen diren gizonetzko hipermaskulinoak, edo *Crepusculo* filmeko maitasun erromantikoa, sexista eta klasikoa dena.

## Eta garapen sozialean ze onura du?

Maskulinotasun homogeneoak daukan kostua ikertu beharko genuke. Aste bukaera baten 20 lagun hiltzen badira motor istripuan, denak gizonetzkoak dira; edo Toledoko minusbaliotasun ospitalean bizkarrezurra apurtuta dutenen %90 gizonetzkoak dira; biolentziaz jokatzen dutenak edo delituak egiten dituztenen %93 gizonetzkoak dira... horrek guztiak kostu bat dauka gizartearendako. Eredu maskulino baten ondorioa da hori guztia.



Ritxar Bacete, Arkupen, martitzenean. | MIRARI ALTUBE

## ZABALIK

IÑAKI PEÑA  
http://goiena.net/iritzia/



## Udagoiena

Dualismoak jotako geure jendarte zuri-baltz honen biktima grixak asko dira, eta horietako bat Udazkena bera da. Zirimiria desagertu edo desagerrarazi dogun moduan ipar haxe freskoak akabatu ditugu. Parkatu! Geu ez gara izan, badakit, klima aldaketa izan da. Baina lasai, kontu ziklikoak dira eta orain honek toketan dau. Klima Aldaketarik berez, maiuskulaz, ez dago. Ekologisten kontua da, Khmer Berdeen asmakizuna. Hori behintzat esaten (eta esango) deusku espainiar presidente barriak. Nunca Maisen lurraldean aurreko domekan zenbat ahuntzek gogoan hartu dau hondoratutako petroliontzia? Zelan eukan izena?

Ados nago, lokatzak ez dira politikak, petrolioa legez zikinak dira. *Gentlemen and ladies* euria gorrotatzen dogu, baina ondoak maite ditugu, goxo-goxoak dagoz eta. Eguzkia gura dogu eskiatzen dogun bitartean, zoragarria! Baina hodeiak behar dira edurra sortzeko, ezta? Hori eskolan ikasten da, landareek eguzkia ez ezik ura be beharrezkoa dabela.

Eguraldi ona edo txarra, udako edo neguko ordutegiak, kontserbadoreak edo laboristak, PP edo PSOE, nazionalistak edo "ez nazionalistak", Panathinaikos edo Olinpiakos, Barça edo Madrid, gipuzkoarrak edo bizkaitarrak... Zein sinpleak bihurtu gaituzte.

Halandabe, dena den eta zorionez, ahuntz matxinoak egon badagoz, eta mendiz mendi saltoka dabilz. Udagoieneko zaporea ekartzen deuskue oraindino Ruper Ordorikak, Pello Zabala eta Joseba Sarrionandiak. Ez dot andrazkorik aipatu, baina irakurtzen dituzue Aurelia Arkotxaren zutabeak *Berria-n*? Hori bai zirimiri freskoa, jertse lodi goxoa eta Iratiko baso gorri, laranja, hori, granate eta nabarra. Gero eta orlegiagoa naz, zer egingo deusagu, eta ez dot itxaropenik galdu gura, negua etorri baino lehen, Gabonak iritsi bitartean, Udagoienaz gozatzeko.

Portzierto, Araba non dago?

**"Ahuntz matxinoak egon badagoz, eta mendiz mendi saltoka dabilz"**

## USTEAK USTE

LARRAITZ ZEBERIO | lzeberio@goiena.com

## 'Hula hoop' azterketa eskolan

Daniel Gabarro irakasleari irakurri berri diot *Argia* aldizkarian. "Gorputz hezkuntza ikasgai oso maskulinoa da (...) ikuspegi maskulinitik eraikita baitago; dantza, koreografia, soka gutxi egiten da". Eta, gainera, kontatzen du Lehen Hezkuntzako 4. mailan *hula hoop*-eko azterketa jarri duela: "Futbolaz azterketa egin dezakedan moduan". Ba, nire eskolan ez zen sekula *hula hoop* azterketarik egin. Ezta soka, goma edo bestelakorik ere. Antza, eskola batzuetan badihardute gauzak orekatzeko ahaleginean. Eta Gabarro irakasleak oso argi dauka: indarrak, abiaduraz eta erresistentziaz gain, koordinazioa, malgutasuna eta elastikotasuna landu eta balora daitezke. Gustatu egin zait.

## KALE INKESTA

Azpiegitura egokiekin ibiliko al zinateke herrian bizikletan?



**JOSEBA ZABALA**  
ARRASATE

"Bai. Gaur egun zebra bide asko dago eta auto artetik ibiltzea zaila egiten da. eroso umeeekin. Beste herri batzuk prestatuago daude".



**UNAI PEREA**  
ARRASATE

"Bai, erosoagoa izango litzateke. Egun ez naiz bizikletan ibiltzen, bizikletarik ez dut eta... Azpiegitura egokiekin ibiliko nintzeteke".



**DARWIN FLORES**  
ARRASATE

"Ez, nik nahiago dut oinez ibili bizikletan ibili baino; gaur egun zoro asko ibiltzen dira kotxearekin eta bizikleta ez dut segurua ikusten".



**NEREA ROZAS**  
ARRASATE

"Bai, arazorik gabe. gaur egun ez naiz ibiltzen: auto asko daude eta kalean ez dago bidegorririk; horrela, beldurra ematen du".

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Vuelta, Eibar eta bizikleta

Mikel Lizarralde  
http://eibar.org/blogak/lizarralde/

Vueltako etapa bukaera bat Arraten izango ei dugu 2012an.

Balorazio politikoez gain, burura etorri zaizkit gure herri-agintariek egingo dituzten deklarazioak, batez ere Eibar eta bizikletaren arteko erlazio historikoa nabarmenduz.

Baina erlazio hori historikoa baino prehistorikoa da gaur egun. Aspaldi joan ziren bizikleta fabrikak. Eta Eibarren bizikletan ibiltzea ez da paradisua, ez egunerokoan ezta txirrindulari moduan ere. Zuloz josita daude kale gehienak.

Batzuetan denboraren poderioz edota gaizki zaindu izanagatik, bestetan kalean lanak egitean gaziki asfaltatzeagatik. Pasa zaitez, adibidez, Legarre eta Arrate-bide kaleetatik eta ikusiko duzu nolako saltoak emango dituen zure bizikletak. Bidegorriez hobe ez hitz egitea. Lankide batek dioen moduan oso zaila da bidegorri bat egitea Eibarren, baina saihesbidearen 3. fasea egiteko mendi-magala deusezteza bai.

Trafiko izugarria dago eta auto gidariek ez dute inolako

errespeturik. Bizia egunero arriskuan jartzen dugu herrian bizikletan gabiltzanok. Mugikortasun arazo larriak daude Eibarren eta udal-agintariek ez dute neurri bat bera ere hartzen berau konpontzeko. Bizikletak lagundu dezake autoa alboan lagatzen. Ohiko kontua botako dit baten batek "Eibarren aldapa asko dagoela" esaten, baina guztiok ez gara Urki edota Amañan bizi. Ez didazula sinisten? Ba ibili, ibili bizikletan astebetean eta hitz egingo dugu orduan. Nahiago nuke Vueltan Eibarrera ekartzen xahutuko duten diru hori eibartarrongin inbertituko balute, eta ez egun bakarreko kirol orgia mediatikoan. Dirurik ez ei dagoenean are eta gehiago.

## Hamaika ikusteko

Pello Zabala  
http://berria.info/blogak/pellozabala/

2011 izanik, azaroaren 11n juxtu, hamaikako askotxo egokitu zirela pentsatu zuen hamaikatzu izan zen hamaika ta gehiago bazterretan, noski.

Ez dakit euskaldunok hamaika zerbakiari diogun errespeto ta deboziorik beste inongo hamaika kulturetatik

bateren batek dion zerbaki dontsu horri.

Hamaikatxo kontu pentsatu eta asmatu daitezkeenez, hamaikatxo modutara antolatzeok, inondik ere, honako brasildar karrerista honen balentria dirudit beste hamaikatxoren artean apuntatzekoa: Danilo Perrotti Machado 30 urteko langile bizikleteroa izan da 'matxada' polita egin duena: 3 urte, 3 hilabete eta 3 egun behar izan zituen mundujira egiteko.

Eta zerbaki horiek denak ongi zenbatuak zeramatzen, 1.190 egunen ostean, hamaikatxo lurralde bisitatu eta gero, hamaikatxo pedal kolpe eman eta gero, 2011ko hamaikagarren hilaren hamaikan, Belo Horizonteko ordua zainduz, hamaikak eta hamaika minututan gelditu ta bukatu zuenean bere ibilaldi hain luzea.

Datu eta data zuzen prexixioetara etorritz, 2008ko abuztuaren 8an hasi zuen lehen kilometro Minas Gerais herrian; 59 nazio eta lurralde zeharkatu zituen; 50.500 kilometro osatu. Hamaikatxo izerdi botako zituen, hamaikatxo egarri eta bustialdi ere bai; hamaikatxo atsedean eta arnasaldi ere bai; hamaika lokuluxka ere bai, noski... 1.190 egun eta gauean... Beajondaiola!

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Monika Belastegi  
**Sailietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko edizio arduraduna**  
Xabier Urtzelai  
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano.  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
ARRASATE 20500:  
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550: Durana 11  
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54  
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com  
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50  
harpidetza@goiena.com  
**Lege Gordailua:** SS-0088/04  
**ISSN:** 2173-707X  
**Tirada:** 5.000 ale.  
**Difusioa:** 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



**Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA  
Tel.: 943 25 06 77

### Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO  
945 44 50 86

### Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

### Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita.



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE  
943 53 32 72

[www.errekajatetxea.eu](http://www.errekajatetxea.eu)

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA  
Tel.: 943 76 10 55 / [www.restaurantelasa.es](http://www.restaurantelasa.es)

### Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauean 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona gutxienez).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria  
Mas Gastronomía 2009.

# Jatetxe Gida



## Pildain

Udala auzoa / ARRASATE  
943 79 11 65

### Eskaintza

- Eguneko menua, karta, plater konbinatuak, eta bokatak.
- Astebukaeretan menu bereziak.
- Txerrikumea, saheskia, bildotsa, ... egur labean enkarguz.
- Eskatutako bertan jateko edo etxera eramateko.
- Jangela independentea su baxuarekin.

Astelehenetan itxita



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/b / ARAMAIO  
945 44 50 95

### Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokiak
- Bataioak, jaunartze eta kintadak.

Egunero zabalik



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE  
943 79 12 50 / 943 77 15 62

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

## UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Andoni Kepa de Bedialauneta** | EAJko zinegotzia Arrasaten (1995-1999 eta 2003-2007)

- ▶ Bi alkateren taldean egon zen: Jose Mari Loitirenean eta Inazio Lakuntzarenean
- ▶ Azken agintaldian, Aukeako presidentea izan zen, eta kiroldegia berri zuen orduan
- ▶ Lakuntzarekin hasieratik desadostasun handiak izan zituen: "Txarto pasatu nuen", dio

## "Udalera serio lan egitera joan nintzen, baina erreta irten nuen; ez naiz sekula bueltatuko"

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Andoni Kepa Bedialauneta (Gorliz, 1945) bi agintalditan izan zen zinegotzi Arrasaten: lehenengo, Jose Mari Loitirekin, eta gero, Inazio Lakuntzarekin. Udalera "herriaren alde lan egitera" joan zela eta "ez politikari izatera" dio. Oroitzapen gazi-gozaok dauka bere esperientziaz.

### Zelan gogoratzen dituzu zure zinegotzi urteak?

Egin nuen azkeneko agintaldiko oroitzapen oso-oso txarrak ditut. Inazio Lakuntzarekin lehenengo egunetik desadostasunak izan nituen eta oso txarto konpondu ginen. Jose Mari Loitirekin, aldiz, oso gustura bukatu nuen.


### Zerk animatu zintuen zinegotzi izatera?

Ni ez naiz inoiz politikaria izan. Ni beti izan naiz, eta izango naiz langile bat. Udalera joan nintzen herriaren alde lan egitera. Nire iritziz, lan egitera baino politikari izatera eta norbere burua zuritzera doanak hobe du etxera joatea.

### Aukeako, Kirol batzordeko presidentea izan zinen...

Bai. Loitirekin Aukea, Hezkuntza eta Euskara izan nituen; eta Lakuntzarekin, Aukea. Hori eta beste gauza asko egin nituen inongo beste sailetan egon gabe, baina dena nire kontura. Udalean egin ditudan lanak beti oso bereziak izan dira. Hara, Musakolako nasa (andena) neuk eginarazi nion Foru Aldundiari. Bestalde, Musakolako postontzi guztiak taberna baten zeuden, eta handik atera eta baserri bakoitzaren aurrean ipini nituen.

### Aukeako garaian, Musakolako kiroldegia berri zuen...



Andoni Kepa Bedialauneta, Musakolako bere etxeko txoko baten. | LEIRE KORTABARRIA

Nire diseinua izan zen, nire lana izan zen kirol guztiak batu eta leku berera ekartzera. Loitiren garaian diseinatu nuen. Baina ez dago bukatuta. Eta ez da bukatuko proiektuan zegoen moduan.

### Zergatik?

Pentsatuta zegoen belodromoa ez zen egin, erreka 25 metroan estali behar zelako eta Aldundiak esan zuelako horrela egin ezean, ezingo zela egin. Markel Olanoren sekulako haserrealdia izan nuen horren kontura. Gero, patinaje eta eskubaloiarako lekuak ez zituzten estali. Kiroldegia egiten ziharduten bitartean, jarraipen batzorde bat zegoen, baina ez zidaten hara deitu, kirol ardura-dun nagusia neu izan arren. Bestalde, errugbi zelaian eta ondoko

futbol zelaian ere beste hankasartze larri batzuk egin ziren. Horrekin guztiarekin eta beste hainbat kontugatik, Aukeako presidente kargua uztea erabaki nuen. Niri gauzak garbi gustatzen zaizkit, eta lanean tontokeria gutxi nahi dut; hori, eta dirua neurritz gastatu eta herriarengatik lan egin, besterik ez.

### Beste proiektu garrantzitsu batzuk ere izan ziren zure garaian.

Bai. Musika Etxea egitekoak ziren erlojuaren egoitzan. Baina gaizki egin zuten: azken solairurako proiektua egin zuten bakarrik, eta Foru Aldundiak esan zuen eraikin osorako proiektua behar zela. Egin barik geratu zen. Joan den agintaldian, inork ez zuen egin, eta oraingoan ere ez dute ezertxo ere egingo.

Gelmako kontua ere orduan izan zen: lurzorua 145 milioi balio zituen baina Udalera ez zen txakur txikirik etorri... Erreta irten nuen eta ez naiz inoiz itzuliko.

**"Neuk diseinatu nuen kiroldegi berriua, baina ez dute bukatu"**

**"Musakolako postontzi guztiak tabernatik atera nituen"**

### Loitirekin zer moduz ibili zinen, ze oroitzapen dituzu?

Jose Mari Loitirekin 19 hilabetean egin nuen lan, eta zoragarri, zoragarri ibili ginen. Loiti gestore oso-oso ona da, gizon benetan argia. Arrasatearrek ez dute alkate hori merezi zuen bezala estimatu. Baina alkate bikaina zen: taldeari ardurak ematen dizkio, lan egiten uzten dio eta lagundu egiten dio. Lider peto-petoa da.

### Orain zelako bizimodua egiten duzu?

Orain oso ondo bizi naiz, erregearen pare, emaztearekin. Osasuna pixka bat ukituta daukat, baina bestela, pozik nago. Ortuari lan egiten dut. Liburu bat egiten ere banabil, Gorlizko, nire herriko familien gainekoa. Ea aurten bukatzen dudana, edo datorren urte hasieran. Lau urte daroat honekin. Lan handia da: lehenengo argazkiak atera behar ditut, 1.000 basetxe baino gehiagorenak eta 50 urte baino gehiago dituzten etxeenak, eta ezin naiz egunero Gorlizera joan; gero, familiekin egon behar naiz, nortzuk diren galdetu...

### Beste zaletasunik baduzu?

Bai: musika. Ni txistularia naiz, eta orain lau urte, txisturako zortziko bat eta biribilketa bat idatzi nituen, eta orain urte bi, habanera bat. Baina harmonia ez dakit. Gero, Alacant-etik Gorlizera etorri eta han bizi izandako musikari baten lagunak Gorlizendako habanera bat egin zidan, zoragarria: *Gorlizen nabilela/Paseando por Gorliz* du izena. Hori dena bilduma baten jaso dut, Gorliz, nire herria izenekoa. Eta liburu horiek bukatzen ditudanean lasai geratuko naiz.

## JOSE ANTONIO ARDANTZA

Lehendakaria

GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA

ASTELEHENA, 19:45 | ARRITXU BARRUSO ETA ENEKO AZKARATEREKIN



# HERRIAK

ARETXABALETA

## Auzo-alkateek auzoetako beharren berri emanda hasi dute agintaldia

- ▶ Bederatzi auzo-alkate izendatu dituzte; horietako gehienek lehengoz hartu dute agintea
- ▶ Elkar ezagutu eta lanean hasteko batzarra egin zuten joan den astean alkatearekin

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Urri bukaeran egin zuten alkate aukeraketa herriko bederatzi auzoetan eta dagoeneko izendatu dituzte horiek. Elkar ezagutu eta lanean hasteko lehengo batzarra egin zuten joan den eguaztean Ana Bolinaga alkatearekin, eta auzoetako beharren berri ere jaso zuen hark.

Bederatzi auzo-alkateak zeuden deituta batzarrera, baina sei elkartu ziren -Larrinokoa, Aozaratzakoa eta Apotzaga-Etxebarrikoa ez ziren egon-. Bolinaga alkateak egin zien harrera eta harekin batera Bilduko hainbat zinegotzi zeuden, tartean Lore Martinez Ingurumenekoa eta Edorta Mendieta Hirigintzakoa. Auzoetako beharren berri emateko eskatu zien alkateak eta halaxe egin zuten.

**Auzo-lokalak, bideak eta posta**  
Eskaera batzuk orokorrak izan ziren, auzoen argiztapena, esaterako, eta beste batzuk zehatzagoak. Izurietako Iñaki Oraak gutunak oso berandu iristen zaizkiela auzora jakinarazi zuen, eta zerbitzua hobetzea gurako luketela. Gainera, ganaduarendako kanadiar pasoa eskatu zuen.

Galartza auzoko Angel Aldaik gogorarazi zien auzo-lokalak konpondu beharra duela, eta pozik hartuko luketela Udalaren laguntza. Galartzatik pasatzen diren antzinako bide publikoak behar bezala izendatu eta markatzea ere eskatu zuen.

Goroeta auzoko Jesus Mari Madinabeitiak, ostera, auzoko sarreraren dukaten hesi edo bionda atzeratzea eskatu zuen eta elizaren alboan dagoen lursailan aparkalekua egitea. Urkulu urtegia inguratzen duen bidea behe-eginda dagoela ere gogorarazi zien Madinabeitiak, eta Martinez Ingurumen zinegotziak erantzun zion buru-belarri dabilzala lanean arazo horri konponbidea topatzeko.

Arkarazoko Igor Guenetxea ez zuen aparteko eskaerarik ekarri lehen batzarrera; eta Oro auzoko Xabier Arbulok postontzia eskatu zuen gutun guztiak jasotzeko, eta ispilua, errepidean duten kurba itxirako, "autoen segurtasuna bermatzeko". Bukatzeko, Areantzako Juan Jesus Anduagak hainbat lan egiteko



Anduaga, Arbulo, Guenetxea, Madinabeitia, Aldai eta Oraa auzo-alkateak, udal ordezkarien aurrean elkartuta. | MIRARI ALTUBE

eskaera ekarri zuen auzotarren aldetik, tartean Bolinagatik Areantzara doan bidea eta Garaiko baserri alboko areka garbitzea.

### Auzoak ezagutzera

Alkateak eskaera guztiak jaso zituen eta lehenbailehen lanean hasteko asmoa agertu: "Atzeratu egin zaigu izendapena eta lehengo batzar hau, baina dagoeneko elkartu gara eta agenda zehazteko balio izan digu". Hala,

DATUA

9

AUZO ALKATE

Bederatzi dira auzoak eta bederatzi alkate izendatu dituzte; horietako sei elkartu ziren lehengo batzarrean alkatearekin.

hurrengo batzarra Gabonak baino lehen egingo dute, abenduaren 20an. Onartu zuen, gainera, auzoak non dauden jakin arren, bertako kontuak ez dituela ondo ezagutzen: "Ni ez naiz hemengoa eta iturri hori edo bide hau non dagoen ez dakit". Horregatik auzo guztietara joateko asmoa duela jakinarazi zuen, "bertatik bertara eza-gutuzeko kontu guztiak".

Auzoetara bideratzeko zenbat diru izango duten oraindik ez

### Auzo-alkateak

**IZURIETA AUZOA**  
Iñaki Oraa Arenaza

**GALARTZA AUZOA**  
Angel Aldai Mendizabal

**GOROETA AUZOA**  
Jesus Mari Madinabeitia Jauregi

**ARKARAZO AUZOA**  
Igor Guenetxea Mondragon

**ORO AUZOA**  
Xabier Arbulo Ugarteburu

**AREANTZA AUZOA**  
Juan Jesus Anduaga Arenaza

**AOZARATZA AUZOA**  
Aitor Apraiz Arenaza

**LARRINO AUZOA**  
Isidro Uriarte Bengoa

**APOTZAGA-ETXEBARRI AUZOA**  
Julio Orueta Trojaola

### Aizkorri-Aratz parkea berbagai

Aizkorri-Aratz parkearen gainean ere egin zuten berba udal ordezkariak auzo-alkateekin. Lore Martinez Ingurumen zinegotziak parkearen mapa aurkeztu zien, Aretxabaletako lurretan zelan banatu duten ikusteko. Natura parke horren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planaren gainean ezer dakiten ere galdetu zien zinegotziak, eta batzuek Aldundiko teknikariak Eskoriatzan egindako batzarrean egon zirela aipatu zioten: "Baina ezer gutxi argitu zuten orduan".

Parke horrek herriko hainbat auzori eragingo die, tartean Goroeta, Areantza eta Larrinori, eta auzotarrekin eta parke barruan lursailak dituztenekin kontu horren gainean jarduteko eskatu zien Martinezek auzo-alkateei. Plan horri iradokizunak egiteko epea dagoeneko bukatuta dago, baina argibideak ematen jarraitzeko asmoa daukela Aldundiak aurreratu zien, eta auzotarren iritzia jasoko dituztela.



Lore Martinez zinegotzia parkearen gaineko mapa erakusten. | M.A.

BERGARA

# Mokolo Egunaren bigarren ekitaldia ospatu zuten zapatuan Bergaran

Antolatzaileek oso balorazio positiboa egin dute; hurrengo urterako ere Mokolo Egunaren hirugarren ekitaldia iragarri dute azaroko azken zapatarako



Mahaiaren bueltan koadrila ederra batu zen zapatuan. | A.GANDIAGA

EDU MENDIBIL | BERGARA

Mokolo Egunaren bigarren ekitaldia ospatu zuten Bergaran. Goizerako iragarritako jokoez eta triki-poteoak ez zuten izan nahi beste arrakasta, eta giroa herri bazkariaren ondoren hasi zen berotzen, herriko kaleetan hotz galanta nabaria bazen ere. Herri bazkariak eta Irungo Bad Sound System taldearen kontzertuak giroa alaitzeko erabakig-

riak gertatu ziren zapatuan. Ehun bat lagun batu ziren bazkarian; antolatzaileek adin guztietako herritarrengana heldu nahi badute ere, gazteak ziren nabarmen nagusi bazkarian. Irundarren kontzertuan dantzan ez zebilenik topatzea zaila zen.


## Muniben ekitaldiak

Mokolo Eguna gaztetxetik Muni-bera eraman dute aurten, oihartzun

handiagoa emate alde. Gauean, azkenean Azpeitiko Garraxika taldekoek ezin izan zuten etortzerik izan eta haien ordez Durangoko Hilbete taldekoek jo zuten Muniben jarritako karpan. Emanaldi txukuna egin bazuten ere, Nafarroatik, Etxalarretik etorritako Dantzadi taldeak ikusleak bereganatzea lortu zuten, erritmo dantzagarriekin. Parranda goizaldera arte luzatu zen.



Bad Sound System taldeak emandako kontzertuko irudi bat. | E.M.



ARITZ ALUSTIZA

"Oso giro ona sortu da egun guztian, eta balorazioa oso positiboa da antolatzaileon aldetik. Lan karga ere bada dena antolatzea eta datorren urterako jende gehiago inplikatzeko nahi genuke".



AMAIA BOLINAGA

"Laz ere oso ondo pasatu genuen eta lagun batzuk herri bazkaria etortzen animatu gara, beste zenbait koadrila-tako jende arekin. Arratsaldeko kontzertua oso ona... Gaur zurrenik parrandatxo botako dugu, bai".



AITZOL GANDIAGA

"Bazkaria oso ondo egon da, 100 lagun inguru batu gara eta nik uste dut jai egun polita bihurtu dela Mokolo Eguna... Jende asko etorri da Bad Sound Systemek arratsaldean emandako kontzertura eta jendea gustura dabil...".



BERGARA

## Elkartasun Korrika

Elkartasuna ez da delitua lelopean, Bergarako kaleetatik martxa egin zuten herritar mordo batek zapatu arratsaldean. San Martin plazatik irten eta Bad Sound System taldekoren musikaz lagunduta, erdiguneko kaleetatik igaro ziren. Azken Korrikan presoaren argazkiak eramatearren inputatutako sei gazteei babes adieraztea zen helburua. Madrilgo Auzitegi Nazionalean deklaratzeko zitazioa jaso dute gazteek. Inguruko herrietako hainbat jende ere hartu zuen parte Elkartasun Korrikan.



BERGARA

JOSETXO ARANTZABAL

## Erretiratuen Eguna Osintxun

Gaztañatan azaroko programari bukaera emateko, erretiratuen eguna ospatu zuten domekan Osintxun. Egurdiko mezaren ostean, 32 lagun batu ziren Txuringon egindako bazkarian. Bapo jan ondoren, opariaren zozketa egin zuten eta bazkaloste atsegina igaro zuten lagun artean omendutakoek.

OÑATI

# Olentzerori zer eskatu erabakitzeke, mila aukera ludotekan

Zapatuan eta domekan egindako erakusketak interes handia piztu du bai gurasoengan eta baita umeengan ere

TXOMIN MADINA | OÑATI

Estrategiako jolasak; behaketakoak; logika erabili beharrekoak; digitalak; elkarren artean lehiatzea baino, helburu komun baten alde lan egitera sustatzen duten jolas kooperatiboak... Askotariko jolas eta jostailuak ezagutzeko aukera egon da asteburuan Oñatiko Txaloka ludotekan egin duten erakusketan eta guraso asko pasa dira bertatik zein aukera dauden eza-gutu, umeek eurek nahiago dituztenak zeintzuk diren ikusi eta aholkuak hartzeko.

## Norberak egindako jostailuak

Erakusketan baina, erosteko orduan dagoen joko eta jostailuen eskaintzaz gain, etxean bertan egin daitezkeen jostailuak ikusteko aukera ere egon da. Erakusketan zuzendu duten AHK enpresakoak pozik geratu dira erakusketak izandako erantzunarekin.



Etxeko txikitxoek aukera izan dute erakusketako hainbat jostailu probatzeko. | JOSETXO ARANTZABAL



**BELEN GOÑI**  
OÑATI

"Oso komenigarria da horrelako erakusketak bat, askotan gurasoak galduta egoten gara-eta. Joko kooperatiboak esaterako, oso lagungarriak iruditu zaizkit".



**IRATI ETA NAIARA APAOLAZA**  
OÑATI

"Olentzerori eskutitza idazteko ideiak hartzera etorri gara erakusketara. Askotan zaila izaten da Gabonetarako zer eskatu erabakitzea, eta hemen ikusitakoarekin errazagoa egingo zaigu aukeratzea. Mahai jolasak dira gehien gustatzen zaizkigunak, elkarrekin jolasteko aukera ematen digute-eta".



**AITZIBER ELORTZA**  
USURBIL

"Horrelako erakusketak batera umeekin etorritik gero, ikusi egiten duzu zer gustatzen zaien eta zer ez, eta alde horretatik oso interesgarria iruditu zait".



**ANDOITZ ARANGUREN**  
OÑATI

"Ideiak hartzeko oso ondo dago: jostailudenda batean zoratu egiten zara eta hemen behintzat aukera duzu denbora apur batekin ze eskaintza dagoen ikusteko".



ARRASATE

JOSETXO ARANTZABAL

## Al-Andalusen udazkeneko jaia, arrakastatsua

Al-Andalusekoak pozik agertu dira asteburuan egindako 22. udazkeneko jaia izandako martxarekin. Zapatuan 170 lagun inguruk gala afaria egin zuten; euren artean zeuden Arrasateko alkatea eta Kordobako Montillako hainbat herritar ere. Sonora orkestraren musikarekin, goizaldera arte luzatu zen jaia. Atzo, elkarteko abesbatza errozieroaren eta Sueños de Andalucía dantza taldearen emanaldiek ere ikusle asko erakarri zituen. Janariak ere bere txokoa izan du: zapatuan marisko koktela eskaini zuten, eta atzo, salmorejoa.



BERGARA

JOSETXO ARANTZABAL

## Liburuen trukea Bergaran

Balorazio positiboa egiten du Jarduneko Mireia Mendizabalek egubakoitz arratsean eta zapatu goizean egindako liburuen truke azokaren inguruan. Bigarren edizioa izan da eta Mendizabalen esanetan, trukea egiteko aukera zabalagoa izanda, egubakoitz iluntzean ibili zen jende gehien. Umeendako liburuak izan dira gehien trukatu direnak.

# Akordeoiaren hiriburu izango da Arrasate abenduaren 3tik 6ra

Amaia antzokia, Arizmendi Ikastola eta Kulturate hartuko dituzte akordeoi doinuek; guztira, 300 akordeoilari eta akordeoizale egongo dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasate Hiria Nazioarteko XIX. Akordeoi Lehiaketa aurkeztu zuen joan den egunean Hauspoz Euskal Herriko akordeoi elkar-teak, urtero moduan, Arrasateko Txalaparta elkartean. Horrez gain, Gipuzkoako 32. Akordeoi Lehiaketa eta Gipuzkoako 24. Akordeoi Jaialdiaren berri ere eman zuten.

Abenduaren 3tik abenduaren 6ra nazioarteko eta bertako akordeoilarien topagune izango da Arrasate, beraz. Izan ere, akordeoi lehiaketa horiez aparte, kontzertuak, konferentziak eta sari bana-keta ekitaldia ere –hilaren 6an, Amaia antzokian, 20:00etan– jaso dute aurtengo egitarauan. Kontzertu horien artean aipatzekoa da Bergarako Belceblues taldeak hilaren 6an Kajoi tabernan eskainiko duena (00:00).

## Hiru gune eta 300 akordeoilari

Egitarau osoko ekitaldiak hiru gune ezberdinetan kokatzen dira: Amaia antzokian, Arizmendi ikastolan eta Kulturaten.

Era berean, lehiaketon ibilbide luzeaz gain, esan beharra dago Arrasate Hiria nazioarteko lehiaketan Estatu mailako partaide kopuru handia –300 inguru– eta nazioarteko 12 herrialdeetako partaideek hartzen dutela parte. Kroazia, Errusia, Serbia, Danimarka eta Finlandiako akordeoilariak izango dira gurean, besteak beste. Nazioarteko lehiaketako sariet dagokienez, lehen sailkatuak 3.600 euro, diploma, garaikurra eta 1.000 eurotan baloratutako musika bira irabaziko ditu. Bigarren sailkatuak, berriz, 1.800 euro




Haur, gazte eta helduek hartzen dute parte akordeoi lehiaketa eta jaialdietan. Irudian, iazko edizioa. | ARTXIBOA

diploma eta garaikurra irabaziko du eta hirugarrenak, azkenik, 900 euro, diploma eta garaikurra. Gipuzkoako lehiaketan mailaren arabera izango dira sariak; 800 euro gehienez. Gainera, parte hartzaile guztiek dominak, diplomak eta oroigarriak jasoko dituzte.

## Laguntzaile guztiei eskerrak

Antolatzaileek Arrasateko Udalaren, Gipuzkoako Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza eskertu dute. Eta baita ere, nola ez, SUDC elkartearen laguntza; Arrasate akordeoiaren hiriburu izango den egun horietan bazkari ofizialak emango dituzte Txalaparta elkartean.



INAZIO AZKARRAGA-URIZAR  
ALKATEA

"Anfitrioi onak garela erakutsi dugu; izan ere, badira 19 urte akordeoiaren mundua Arrasateri begira jartzen dena. Agenda sendo eta estuarekin musu truk lanean arituko diren laguntzaileei eskerrak, batez ere SUDC elkarteari".



AITOR FURUNDARENA  
HAUSPOZ ELKARTEA

"Lagun batek zioen moduan, krisi garaitan, diru gutxiago eta kultura gehiago. Badatoz Arrasateko akordeoi lehiaketak. Gabonetako saski batekin gatoz, akordeoi doinuez jantzitako musika ekintzaz betetako saski erraldoiaz".

## Martuteneko presoendako opariak batzen dabilta

J.B. | ARRASATE

Urtero moduan, Arrasateko espetxeratuekiko pastorala materiala batzen dabil Gabonetan Martuteneko presoek opariak egiteko. Bilketa gaur bertan hasiko da. Hilaren 28an, 29an, 30ean eta abenduaren 1ean eta 2an egingo dute material bilketa, Caritas erakundearen bulegoan, Iturriotz kaleko 43. zenbakian.

Ordutegia 17:00etatik 19:00etara da. Antolatzaileek diotenez, "bereziak" diren Eguberri jailetan "gure gertutasuna erakutsi eta laguntza emateko modu ederra" da opariok bidaltzea.

## Denetarikoa materiala

Presoendako erabilgarria izan daitekeen denetarikoa materiala jasoko dute; egoera onean egotea eskatzen dute.

Honako materiala jasoko dute: barruko arropa berria, tabako gorria eta metxeroak, turroi biguna, hortzetako pasta eta eskuilak –zepilloak–, gutun-azalak eta zigiluak, Telefonikaren pinik gabeko txartelak, galtzerdiak, desodoranteak, pilak, azkazalak mozteko tresnak...

## Maialen Lujanbio dator etzi 'Emakumeak protagonista' barruan

Emakume Txokoak eta Udalak saio berezia antolatu dute etziko Kulturateko areto nagusian (19:00). *Emakumeak protagonista* ekimenaren barruan Maialen Lujanbio gonbidatu dute. Uxue Alberdik elkarrizketatuko du.

## Gaztaina-erre festa ospatuko du Herri Eskolak egubakoitzean

Arrasateko Herri Eskolako guraso elkar-teak gaztaina-erre festa antolatu du egubakoitzeko, abenduak 2. Herriko Plazan elkartuko dira, 17:00etan. Musika eta giro ederra izango dira. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

## Txikilandia 2012rako begirale bila dabil Txatxilipurdi

Urtarrilaren 3an, 4an eta 5ean egingo den Txikilandiarako begirale bila dabil Txatxilipurdi. Abenduaren 7a da izena emateko azken eguna: 943 79 54 46 telefonora deituta, [kultura@txatxilipurdi.com](mailto:kultura@txatxilipurdi.com) helbidera idatzita edo Nafarroa etorbideko 23an duten egoitzara joanda.

## Zahar-Berriko berbalagunak afari ederrean

Ikasturtea hasteko eta bidelari eta bidelagunei ongi-etorria egiteko afari goxoa egin zuten Arrasateko Zahar-Berrikoek. Arrakasta handiko ekimena izan zen; izan ere, ekimeneko partaidetza ia bikoitza egin da urri eta azaro bitartean. 34 lagun elkartu ziren, "oso giro onean". Afarian, jende berria ezagutzeko aukera izan zuten berbalagunek: "Aurreko urteetatik programan dabilzanak eta lehen aldiz zetozenak ere mintzapraktikan aritu ziren, mingainak dantzatzen", adierazi dute antolatzaileek.



ZAHAR-BERRI



Ortu ekologikoak izango dituzte berba hitzaldian, besteak beste. Irudian, Garagartzako ortu ekologikoak. | ARTXIBOA

## Jakoba Rekondo: "Etorkizuneko eredu bakarra da ekologikoa"

Fagorreko euskara batzordeek Euskararen Egunaren harira hitzaldia antolatu dute herritar guztiendako; egunean, 18:00etan, Garagartzako auzo etxean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Euskararen Egunaren harira hitzaldia antolatu dute Fagorreko euskara batzordeek. Antolatuzaileek Jakoba Rekondo paisajista gonbidatu dute Garagartzako auzo etxean hitzaldia eman dezan; egunean, abenduak 1, 18:00etatik aurrera.

Sustatzaileek iragarri dutenez, ortu ekologikoen gainean izango da hitzaldia. Hala ere, hizlariak adierazi digu landareen gainean egingo duela berba, orokorrean: "Niri gustatzen zait berba egitea landareen funtzionamenduz, orokorrean nola bizi diren erakutsi gura dut. Ez hitzaldi bat

eman soilik ortu ekologikoak nola zaindu behar diren azalduz". Hori bai, entzuleen kezken araberakoa izango da saioa: "Entzuleek gura badute ortu ekologikoen gainean berba egin, hala egingo dugu. Baina fruta-arbolak, etxe barruko landareak edo basoak ere izan ditzakegu hizpide".

### "Gizarte gaixo baten bizi gara"

Argi azaldu digu Rekondok zer diren haren ustez ortu ekologikoak: "Egun izan ditzakegun kalitate goreneko jakiak sortzeko aukera bakarra dira. Gure gorpuzaren osasunerako eta bizikalitaterako, baina baita gure

paisaiaren osasunerako ere. Eredu ekologikoa oso garrantzitsua da, ekosistema zaintzen duen eta etorkizunerako nekazaritza eredu iraunkorra bermatzen duen bakarra delako".

Ekologikoa gure ondorengoek ezagutuko duten "nekazaritza eredu bakarra" izango dela argi dauka Rekondok, gainerako ereduak "ikaragarritzko" kalteak eragiten dizkiolako naturari: "Beste kontu bat da eredu hori garatzea interesatzen den edo ez; betiko kontua", dio. "Gizarte gaixo baten" bizi garela deritzo eta gaitz horretan gure elikadura eskasak zerikusi handia duela.

## Nuevo Catecismo Catolico haize berriekin dator

'Kooltur Ostegunak' ekimenaren barruan gaztetxean joko dute egunean, 22:00etan

J.B. | ARRASATE


Eguen honetan Nuevo Catecismo Catolico taldea dator gaztetxeko agertokira (22:00), *Kooltur Ostegunak* ekimenaren barruan. Sarrera, ohi moduan, bost euro ordaindu behar da.

### Urteek ondo egin diete

Euskal Herrian zein Estatuan punk-rock taldeen erreferente da NCC. Ia 20 urte daramate punk-rockari eragiten eta Europako zein AEBetako iraganeko korronteak barneratu ostean gai izan dira korronte eta moda

guztien kontra, euren bidea irmo egin eta oztopoen aurrean taldea aurrera ateratzeko. Eta ardoarekin gertatzen den moduan, urteek ondo egin diete.

Azken hilabeteotan ia geldirik egon badira ere, NCC 2012rako indarberritzen ari da, taldearen 20. urteurrenerako. Hala, berotzen hasteko, pare bat kontzertu emango dituzte urtea amaitu aurretik. Formazioan aldaketa bakarra dago: Gonzalo Ibañezek La Perrera Beñat-utzi dio baxua, abeslari moduan aritzeko.



Gonzalo Ibañez baxuarekin; aro berrian, abeslari moduan dabil. | GOIENA



NEREA ARTOLA

## Ia 50 lagun eta giro ederra 1976ko kintoen ospakizunean

Joan den azaroaren 19an ospakizun berezia egin zuten 1976an jaiotako arrasatearrek. Urte horretan jaiotako ia 50 lagun elkartu ziren aspaldiko garaia gogoratu eta eguna giro ederrean pasatzeko. Eguerdi aldera

elkartu eta poteoa egin zuten bazkal aurretik. Gero, Hilarion jatetxean bazkaldu zuten eta bazkalostean atera zuten goiko talde argazkia. Gero, alde zaharreko tabernetan jarraitu zuten ospakizunekin.

Hitzorduan parte hartu zuen lagunetako batek aditzera eman duenez, oso ondo antolatutako ospakizuna izan zen. Datorren urtean berriro ere elkartzeko asmoa erakutsi zuten.

# Sexu-erasoen biktima diren emakumeendako arreta protokoloa

Udalarekin batera, Ertzaintzak, Bergarako Osasun Zentroak eta herriko ikastetxeek sinatu zuten hitzarmena egubakoitzean, osoko bilkuren aretoan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Emakumeen aurkako indarkeria-kasuen atentzioan parte hartzen duten hainbat erakundek eta Udaleko Gizarte Zerbitzuek I. Koordinaziorako Protokoloa sinatu zuten egubakoitzean, udaletxean. Udalarekin batera, Ertzaintza, Osasun Zentroak eta herriko LH eta DBHko ikastetxeak (Aranzadi, Ipintza, Mariaren Lagundia eta San Martin) izan dira sinatzaileak. Sinatzaileen ordezkariak eta Jesus Elortza alkateak hartu zuten parte egubakoitzeko ekitaldian. Maren Belastegi eta Javi Bengoa zinegotziak eta Gizarte Zerbitzuetako teknikari Arantzazu Loidi ere izan ziren udaletxean.

Emakunderen EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Planeari garbi jasotzen den bezala, "emakumeen aurkako indarkeria, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunaren adierazpen larriaren bat da eta beraz, ezinbestekoa eta premiazkoa da giza eskubideen urraketa larri eta onartezin horren aurkalan egitea". Emakumeen aurkako indarkeriatzat zer hartu behar den Berdintasunerako Legeak berak jasotzen du: "sexu arazoetatik egindako edozein ekintza bortitz, ondorioz, min fisikoa, sexuala edo psikologikoa dakarrena edo ekar dezakeena edo emakumeari sufrimendua eragin diezaiokiena, horrelako ekintzak



Erakundeetako ordezkariak egubakoitzean sinatu zuten hitzarmena, udaletxean. | E.M.

egiteko mehatxua, derrigortzea edo askatasun arbitrarioa ukatzea ere barnean hartuta, bizitza publikoan zein pribatuan".

## Eragileen koordinazioa

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimendako arretari dagokionez, legeak, besteak beste, zera eskatzen die administrazioei: poliziaren babesa; laguntza juridikoa, ekonomikoa eta psikologikoa; harrera-pisuak; eta larrial-

dietarako zerbitzuak.

Protokoloaren helburua Bergaran hau da: "tratu txarren edota sexu-erasoen biktima diren emakumeei arreta emateko, babesa eskaintzeko eta dauden askotariko baliabideak bere eskura jartzeko, arretan inplikaturako eragileen koordinazioa eta elkarlana bermatzea".

Herriko errealitatea zein den ezagutzeko emakumeenganako indarkeria-kasuen erregistro

bateratua izatea da helburuetako bat. Arantzazu Loidik emandako datuen arabera, iaz 16 salaketa jaso zituzten Gizarte Zerbitzuetan. Ertzaintzan, berriz, 10 salaketa jaso zituzten 2010ean eta aurten (apirilera arte) hiru zenbatu dituzte. Jesus Elortza alkateak azpimarratu zuenez, aurrerantzean protokoloa erakunde gehiagok sinatzea eta etengabeko hobeakunza dira etorkizunerako helburuak.

## OHARRAK

### 1967AN JAIOTAKOEN

#### AFARIA ABENDUAREN 3AN

1967an jaiotako bergararren afaria abenduaren 3an Azpeitxi ja tetxean. Izen-ematea Euskadiko Kutxan azaroaren 30era arte. 20 euro aurreRatu behar dira 0091140232 kontu korrante zenbakian (Maria Eugenia Basterra).

### HERRI BAZKARIA EUSKARA EGUNEAN

Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatuko da Bergaran eta Udaleko kultura zerbitzuak eta herriko hainbat elkarterek egitarau zabala prestatu dute egun horretarako. Eguerdira-ko herri bazkaria deitu dute Muniben jarriko den karpan. Txartelak 15 eurotan eskuratu ahal izango dira kultura etxean eta Deportivo eta Arrano tabernetan. Menua, hauxe: babarrun gorriak sakramentu guztiekin; oilaskoa entsaladarekin eta hojaldre tarta izozkiarekin (ogia, edaria eta kafea barne). Berogailua jarriko dute karpan.

### LANERAKO IKASTAROAK MIGUEL ALTUNAN

Lanerako Formazioa egitarauaren barruan, langile eta langabetuendako ikastaroak eskaintzen ditu Miguel Altunak. Katalogo modular berri- ra lotutako eta %100ean subentzionatutako ikastaroak dira. Argibideak Miguel Altunan, 943 76 70 49 zenbakian.

### ALKOHOLISMOAREN GAINEKO HITZALDIA

Intxorta Bergarako Alkoholiko Anonimoen Elkartearekin batera, San Joxepe erretiratu- en elkarteak alkoholismoari buruzko hitzaldia iragarri du abenduaren 2rako. Erretiratu- en egoitzan izango da hitzaldia, 17:00etan.

### KEINUEN HIZKUNTZA IKASTAROAK

Aransgik, Gipuzkoako per- tsona gorren familien elkar- teak, keinuen hizkuntza ikasteko ikastaroak antola- tu ditu. Gorrekin komuni- kazioa hobetu nahi duten debagoiendar guztiei daude zuzenduta. Hastapen zein sakontze mailak izango dira, urtariletik maiatzera. Ikas- taroak 30 ordukoak izango dira Argibide gehiago Arans- giko egoitzan, Boni Laskurain pasealekuan, edo 943 76 27 03 telefonoan.

### POL-POLEKO FEDERATU TXARTELAK

2012ko federatu txartelak egiten hasiko dira Pol-Poleko kideak gaur, astelehena. Oxirondo azokako goiko pisuan daukate bulegoa. Orduetgia, hauxe: astelehen, martitzen eta eguaztenetan 18:45etik 19:45era. Internet bidez ere egin daiteke federatu txartela Pol-Poleko webgunean: [www.pol-pol.net](http://www.pol-pol.net).

## Irlandako lehen ministroarekin

Gurean bezala, Irlandan ere hauteskundeak izan dituzte orain gutxi eta gobernu aldaketa etorri da han. Alboko argazkia bidali digute asteon: udan izan ziren Irlandan Moreno familiakoak eta Dublinen Enda Kenny lehen ministroarekin topo egin zuten. Jator-jator, Euskal Herriko egoerarekiko interes berezia azaldu zuela esan digute; argazkian, Enda Kenny Maria Ines eta Aitor Moreno anai-arrebekin, Croke Parken (irlandar kirolen katedralean).



FERNANDO MORENO

# Txerra Aiastui: "Naparbier garagardoarekin merkaturuan gure lekutxoia izatea nahi dugu"

Orain dela bi urte Naparbier kooperatiba eratu zuten Iruñean; aurten 100.000 litro garagardo ekoiztu dituzte: artisau-garagardoa dela azpimarratzen dute arduradunek

EDU MENDIBIL | BERGARA

Aspaldian Nafarroan dabil Txerra Aiastui bergararra. Beste hiru lagunekin batera Naparbier kooperatiban dabil lanean. Iruñeko Landabe poligonoan daukate lantegia eta izenak dioten moduan garagardo nafarra egiten dute han. Gure artean oraindik ezezaguna bada ere, poliki-poliki bere lekutxoia hartzen ari da egileek "artisau-garagardoa" definitzen dutena. Bereziki Nafarroan saltzen da orain arte eta Debagoienera ez da oraindik iritsi. Gertuen, Urretxun (Motz eta Kortaberri tabernetan hain zuzen) eta Gasteizen dastatzeko aukera dugula diosku Aiastuik: "Aurten 100.000 litro ekoiztu ditugu eta zaila da leku guztietara heltzea baina gauzak bide onetik badoaz 200.000 litro egitera iritsi nahi dugu. Kontuan izan behar da garagardo industrialek astebete inguruko fermentazioa daukate eta gureak, aldiz, 28-30 egun behar dituela".

## Komertzial lanetan

Lizarratik oso gertu, Barindano herrian bizi da Txerra duela bost bat urtetik eta aurretik garagardo munduan esperientzia izandakoa da. Hain zuzen ere, zazpi urte egin zituen Mahou enpresarako komertzial lanetan. Behin Nafarroan bizitzen zebilela, Naparbier abian jarri zutenak ezagutu zituen eta bera ere kooperatibako bazkide bihurtu zen: "Orain bi urte hasi ginen eta oso proiektu interesgarria iruditu zitzaizkidan hasieratik. Apustu zintzoa, jatorra eta potroekin egindako dela esango nuke; langabezia geratu



Naparbier kooperatibako kideak: Txerra Aiastui, Juan Rodriguez, Josu Taniñe eta Jose Javier Rodriguez. | ARGAZKIAK: CONNY BEYREUTHER (ZAZPIKA).

ondoren, euren aspaldiko zaletasunari eutsi zioten nire bazkideek. Izan ere, Josuk eta Juanek 2005etik garagardoa egiten zuten azken honen etxean. Lan gabe geratu

eta zortea probatzera animatu ziren. Eta hemen gaude, oraingoz behintzat aurrera egiten eta etorkizunari aurre egiteko ilusioz beteta", dio Aiastuik. Komertzial

lanetan jarraitzen du Txerrak eta Iruñea inguruan ibiltzen da batik bat.

## Hiru garagardo mota

Argi eta garbi definitzen du bergararrak egiten duten garagardoa: "Potentea, naturala eta kalitate handikoa. Ez dago beste halakorik hemen". Gaur egun hiru garagardo mota egiten dituzte: *pilsa*, *dunkela* (ilunena, Alemania jatorria duena) eta *amber ale* deiturikoa (gorrixka eta estilo bereziakoa Aiastuiren hitzetan): "Azken baten, ura, garagarra eta lupuloa dira garagardoaren osagai nagusiak eta nagusiki horien konbinazioetik datoz garagardo mota ezberdinak". Garagardoa zerekin konbinatzen duen ondoen galde-tu diogu baita Aiasturi: "*Pilsa* adibidez arrainarekin fenomeno sartzen da; *dunkela* haragiarekin, ondo: eta *amber ale* garagardoa patxada handiagoz gozatzeko

egokia da, pintxo berezi batekin konbinatzeko proposa, zergatik ez: urdaiazpiko on bat, foie piska bat... horrelako gutziaren bat".

## Kompetentzia handia

Garagardoaren artean kompetentzia handia da eta ez da erraza merkaturuan lekutxo bat izatea: "Produktu segurua da garagardoa, alkoholdun edari merkeenetakoa delako. Baina marka handien aurka kompetentzia ez da batere erraza. Gure abantaila zera da: kalitate dezente gehiagorekin goazela tabernari eta bezeroengana. Horrek produktuaren garestitzea dakar, noski. Halere, produkzioa handitzekotan, gure prezioak erregulatzeko, jaisteko aukera emango liguke horrek. Momentuz, gustura gabiltza abentura zoragarri honetan murgilduta". Zerbeza zaleek badute beraz aukera berri bat eskura, ahora: Nafarroako garagardoa.



Hiru garagardo mota ekoizten dituzte Iruñean.

## Aranzadik Udal Pilotalekua erabiliko du gimnasia eskoletarako

Erret Mintegiko lanak direla eta, gimnasiorik gabe daude plazako eraikinean

E.M. | BERGARA

Aranzadi Ikastolari Udal Pilotalekua erabili ahal izateko baime-na eman berri dio Udalak. Hain zuzen ere, Erret Mintegian egiten diharduten obrak direla eta, gortuz-heziketa eta eskola-kirola egiteko lekurik gabe gelditu dira San Martin plazako eraikinean eta joan den irailean, aste barruan Udal Pilotalekua erabili ahal izateko eskaera egin zioten Udaleko Kirol batzordeari. Esan bezala, Udalak baietza eman die eta beraz Aranzadik Udal Pilo-

talekua erabili ahal izango du. Astelehen eta martitzenetan 17:00etatik 19:00etara eta eguazten eta eguenetan 17:00etatik 18:00etara Aranzadiko ikasleek erabiliko dute Udal Pilotalekua.

## Pilotakoen entrenamenduak

Eguazten eta eguenetan ordu bakar batez erabili ahal izatea herriko pilotarien entrenamenduengandik izan dela zehaztu dute Udaleko ordezkariak. Hain zuzen ere, 18:00etatik 19:00etara Bergara KEko pilota sailekoek

entrenamenduak izaten dituzte eta hori dela eta aipatutako egunetan frontoia bi orduz erabilteko ezetza eman dio Udalak ikastolari.

Azaroaren 7ko gobernu batzordeko aktan jasotzen denez, "ikasleak Seminarioan bilduko dira eta elkarrekin joango dira pilotalekura. Instalazioa aurkitu duten bezala laga beharko dute eta aldagarik ezin izango dute erabili. Era berean, ikasleek ezin izango dute ezer jan, ez kantxan ezta harmailetan ere".



Udal Pilotalekua. | GOIENA

# Genero indarkeriaren kontrako marrazkiak aurkeztu zituzten

Txantxiku Ikastolakoek egindako irudia izan zen onena, epaimahaiaren ustez

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Herriko ikastetxeetako DBHko 3. eta 4. mailetak gazteek genero indarkeria salatzen egindako marrazkiak erakutsi zituzten egubakoitzean udaletxean. Berdintasun batzordeak antolatutako ekimenera 55 lan aurkeztu zituzten eta bi irudi onenak saritu dituzte: lehen saria Txantxiku Ikastolako Astopikuak taldekoendako izan da, eta 500 euro jaso dituzte ikas-bidaiarako; eta bigarren saria Elkar Heziko Sakeo taldearendako (250 euro) izan zen. "Eskerrak eman gura dizkiegu lehiaketan parte hartu duten ikasle guztiei. Marrazki landuak eta maila onekoak aurkeztu dituzte. Zaila izan da bi onenak aukeratzeko. Marrazki originalak egon dira", esan zuten udal ordezkariak.

**Eskua marraztu dute**

Txantxiku Ikastolako Amaiur Bolinagak, Itsaso Guridik eta Itsaso Markinezek egindako irudian eskua da protagonista. Horren gainean biolentziarekin zerikusia duten hainbat berba idatzi dituzte eta azpian *Nahikoa da!* "Lantutako marrazkia da, eta testua oso zuzena. Horregatik aukeratu

dugu. Gainera, hurrengo urteko jaietan pegatinak egingo dituzte irudi horrekin, eta itxura egokia dauka", esan zuten.

**Osoena aukeratu dute**

Maialen Urtzelai Berdintasun zinegotziak, Ainhoa Moiu Prebentzio teknikariak, Inaki Akizu Euskara teknikariak eta Xapi Pico disenaitzaileak osatu dute epaimahaia. Marrazkia eta testua hartu dituzte kontuan. "Bost marrazkiren artean aukeratu dugu onena. Txantxiku Ikastolako irudia osoa zen. Elkar Heziko nahiko ona zen, eta Zuazola-Larrañako beste hirurak ere nahiko onak, baina ez osoak. Batek marrazki landua zuen, baina oso testua poetikoa; beste batek testu ona, baina ohiko marrazkia...", esan zuten.



Genero indarkeriaren kontrako marrazki lehiaketako irabazleak eta udal arduradunak. | MIREIA BIKUÑA

## Presoen eskubideen eta biodibertsitatearen aldeko mozioak onartu zituzten osokoan

M.B. | OÑATI

Azaroko osokoan mozioak izan ziren protagonista. Lau aztertu eta laurak onartu zituzten. Hiru aho batez (EAJ eta Bilduren aldeko botoekin) eta bat Bilduren botoekin bakarrik. Azken hori presoen eskubideen aldeko mozioa zen. EAJko Lourdes Idoiak esan zuen Bilduk aurkeztutako mozioaren hainbat punturekin ados zeudela, baina "biktimen aipamena" falta zela. Hori horrela, EAJk "biktima guztiak aintzat hartzen dituen" presoen eskubideen gaineko beste proposamen bat egin zuen. Bi alderdiak ez

ziren adostasun batera heldu eta Bilduren aldeko botoekin onartu egin zen.

**Euskarazko elebitasuna**

Beste hiru mozioetan –Euskaren Nazioarteko Egunaren gainera, Genero Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunarena eta Biodibertsitatearen aldeko– adostasuna erabatekoa izan zen.

Abenduaren 3an ospatuko da Euskararen Nazioarteko Eguna, eta Udalak adostu zuen euskarazko elebitasuna praktikan ipintzea. Hainbat konpromiso hartu

zituzten: zerbitzu publikoko langileen euskalduntzea, euren lehen berba euskaraz izatea eta udal jarduna euskaraz izan dadin bermatzea.

Genero indarkeriaren kontrako mozioan, berriz, beste konpromiso batzuk hartu zituzten udal ordezkariak: indarkeriari aurre egiteko heziketan oinarritutako prebentzio neurriak hartzea eta genero indarkeriaren aurrean politika aktiboa egitea, "hitzetik ekintzetara pasatuz".

Azkenik, Biodibertsitatearen aldeko mozioa onartu zuten. Oñatiko "natura-ondarea babesteko, hobetzeko eta zabaltzeko konpromisoa" hartu zuten. Hori posible egiteko, agintaldian zehar egingo dituzten ekintzak adostu zituzten; besteak beste, Natur Eskolaren eta Gomistegi Artzain Eskolaren jardunak bultzatzea.

## Erakusleho lehiaketako izen-ematea egubakoitzera arte

M.B. | OÑATI

Oñatiko Udalak Txanda Elkarrearen laguntzarekin antolatu duen IV. erakusleho lehiaketarako izen-ematea egubakoitzean, hilaren 3an, itxiko dute. Dendariek eta merkatariak gutun bidez jaso dute lehiaketan parte hartzeko gonbidapena. Interesatuak izen-emate orria eroan beharko dute udal bulegoetara, Turismo Bulegora edo Enplegu teknikariaren bulegora (Bidebarrieta 12).

Parte-hartzaileek izenak eman ondoren, euren erakus-

lehoak apaindu egin beharko dituzte. Abenduaren 8tik 31ra egongo dira ikusgai eta tarte horretan hartuko du erabakia epaimahaia. Diseinua, irudimena, originaltasuna, argiztapena, gaia eta berrikuntza hartuko dituzte kontuan.

**4.500 euro saritan**

Udalak 4.500 euro banatuko ditu erakusleho onenen artean. Horien artean sarituko dira gaikako apainketa onenak egiten dituenak eta herriarrek aukeratzeko dutena.

## 'Gerrako garrak Oñatin' liburua aurkeztuko dute eguaztenean, 19:30ean, kultura etxean

1936ko gerrak Oñatin izan zituen ondorioak ezagutarazteko *Gerrako garrak Oñatin* liburua idatzi du Gogoratu Guran taldeak. Eguaztenean aurkeztuko dute kultura etxean, 19:30ean. Bi urteko lanaren emaitza da liburua, eta 36ko gerran protagonista izan ziren oñatiarren eta euren familien bizipenak jasotzen ditu. Hainbat elkarrizketa egin dituzte liburua idazteko.

## Ganbara Abesbatzak lehen bi ipuin musikatuak aurkezpena: 'Jostailugilea' eta 'Eskolopendra'

Ganbara Abesbatzak esku artean duen proiektu berria aurkeztuko du egubakoitzean. Lehen bi ipuin musikatuak aurkeztuko ditu kultura etxean, 19:30ean: *Jostailugilea* eta *Eskolopendra*. 3-9 urte artekoendako materiala da. Ipuin bakoitzak liburua eta CDa izango ditu. Liburuan, ipuin musikatuaren kontakutako istorioa jasoko da ilustrazioen bidez.

## Bertsolari txapelketako finalera joateko autobusa ipini du Bertso Eskolak; txartelak kultura etxean

Gipuzkoako bertsolari txapelketako finala abenduaren 18an jokatu dute Illunben. Oñatiko Bertso Eskolak egun osoko irteera antolatu dute. 120 txartel ipini dituzte salgai kultura etxean 10 eurotan. Abenduaren 7ra arte erosi ahal izango dira –kultura etxea abenduaren 8an eta 9an itxita dago–. Finalerako sarrerak ere salgai dituzte kultura etxean.

## Gaixaldi edo larrialdi egoeran egin behar denaz egingo dute berba Txantxiku Ikastolako aretoan

Txantxiku Ikastolako hitzaldia antolatu du hilaren 29rako (18:30) Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoendako. Gaixaldi edo larrialdi egoeran jarraitu beharreko urratsak azalduko ditu Gema Bikuña erizainak. Interesatuak izena eman behar dute ikastolako idazkaritzan. Hitzaldia dagoen bitartean haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

## Argentinara bidaltzeko arropak eta eskolarako materiala batzen dihardute Ulman

Argentinara bidaltzeko materiala batzeko elkartasun kanpaina abiarazi du Ulman. Hain justu ere, arropak eta eskolarako materiala batuko dute abenduaren 12ra arte (08:30-13:00 eta 14:00-17:30): boligrafoak, koadernoak, margoak... Hermansoñola GKE arduratuko da materiala antolatu eta Argentinara bidaltzeaz.

## 2012an larreetara bidali gura diren animaliak identifikatzeko kanpaina abenduaren 31ra arte

Aloñako larreetara eta Artia-Txirikilaleku-Aitzgainera eramango diren abereen berri Udalean eman behar da abenduaren 31 baino lehen. Ardiak, bildotsak, behiak eta ahariak dira identifikatu behar direnak. Bestalde, leku horietan utziko diren zaldiek eta behiek lepokoak izan beharko dituzte. Gainera, animalia guztiek hazterriaren kontrako ziuertagiria izan beharko dute.

## ARETXABALETA

# Mahai-jokoak Basotxon

Txapelketak abenduaren 15ean eta 16an jokatu dira; izena emateko azken eguna hilaren 1a da

A. ALKORTA | ARETXABALETA

Basotxo nagusien elkarteak mahai-joko txapelketa antolatu du abenduaren 15erako eta 16rako. Izena emateko epea abenduaren 1ean amaitzen da. Besteak beste, herritarren parte-hartzea bultzatu nahi du elkarteak.

Mus, domino, briska eta tute txapelketak jokatu dira abenduko bi egun horietan. Finalera heltzen direnek, aldiz, zapatuan jokatu beharko dituzte finalak, goizez eta arratsaldean.

Abenduaren 15ean domino eta mus txapelketak jokatu

dira, 11:00etan eta 15:30ean, hurrenez hurren. Hurrengo egunean, briska eta tute txapelketen txanda izango da, 11:00etan eta 15:30ean.

Txapelketan parte hartzeko aukeraz gain, baina, bazkaltzeko aukera ere eskaini nahi izan du elkarteak. "Bazkariaren prezioa 15 euro da", adierazi dute.

Txapelketaren helburuak herritarren parte-hartzea eta elkarren arteko harremanak sustatzea direla gaineratu dute antolatzaileek: "Elkarrizketa bat izateko beste bide bat da jokoak".



Herritar batzuk, tutean jokatu. | GOIENA

Elkartekoen esanetan, joko bakoitzean irabazle izaten direnek Basotxo ordezkatu dute datozen txapelketetan. "Debagoieneko

txapelketan parte hartuko dute". Dena dela, museko txapelketako irabazleen kasua bestelakoa izango da: haiek Aretxabaleako bes-

te elkarteetakoekin egingo den txapelketan ere parte hartu beharko dutela aurreratuko dute Basotxoek.

## ESKORIATZA

# 'Orri-puntuak' lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago

Lanak liburutegira bidali edo eraman behar dira, abenduaren 12a baino lehen

ASIER ALKORTA | ESKORIATZA

Udalak liburutegiko *Orri-puntuak 2012* lehiaketa abian jarri du. Aurten lehiaketaren zazpigarren edizioa da, eta, orain arte geratu bezala, parte-hartzea handia izango dela espero du Udalak. Lanak aurkezteko azken eguna abenduaren 12a da.

Lehiaketa edozein pertsonarendako dago pentsatuta, heldu zein ume izan. "Ez dago adin mugarik, baina, normalean, nagusiak aurkezten dira, eta, nola ez, umeek baino gehiago lantzen dituzte euren lanak; beraz, haiek irabazten dute".

Lehiaketa nondik atera zen galdetuta, Arantxa Untzueta Kultura teknikariak argi erantzun du: "Lehiaketa hasi zen hurrengo urteko egutegia orri-puntuetan agertzeko aitzakiarekin eta dagoeneko zazpigarren edizioan goaz. Arrakasta handia dauka".

Gutxi gorabehera, urtero hogeitau lagunek parte hartzen dutela esan du Untzueta. "Dena dela, gehienak ez dira herrikoak izaten, kanpotarrak izaten dira".

### Lanak aurkezteko baldintzak

Teknika eta gaiak libreak dira, eta, lehiaketa amaitzen denean, aurkeztutako lan guztiekin erakusketa antolatuko du Udalak. Orri-puntu irabazleak, aldiz, bestelako zabalkundea izango du: urte berrian sartzeaz batera, liburutegian opari egingo dute.

Bada, lanek 21x5,5 zentimetro neurria izan beharko dute eta aurkezterakoan egilearen izenik gabe egon beharko dute.



Orri-puntu irabazlea liburutegian oparitu da urtariletik aurrera. | A. ALKORTA

Beraz, parte-hartzaileek orri-puntuaren alde bat baino besterik ez dute landu beharko. Atzeko aldean lelo bat jarri beharko dute, eta material guztia, egilearen datuak aparte orri baten idatzita, liburutegira eraman edo Udalean aurkeztu beharko dira. "Gutun-azal itxi batean lelo bera, egilearen datuak eta lana aurkeztuko behar dira".

Aurkezteko lekuari dagokionez, nahi duenak liburutegira eraman ahal izango du lana. "Internet bidez ere bidali daiteke, Udalera edo liburutegira". Hori bai, aurkezpena egingo da abenduaren 12a baino geroago izenik gabe.

Behin lanak aurkezteko epea amaitzen denean, orduan epaimahaiaren lana hasiko da. "Epaimahaiak nortzuek osatzen duten esango da lan irabazlea zein izan den ezagutzera ematen den egun berean".

Eta saria ere ez da nolahalakoa: "250 euroko saria dago eta nik uste dut ez dela sari txarra; parte-hartzeak merezi du". Sari-tzen den lana Udalaren esku geldituko da eta hark izango du hura argitaratzeko eskubidea. Saritu gabe geratzen diren lanak, aldiz, egileek jaso ahal izango dituzte, eta, horretarako, Udalak 30 eguneko epea jarri du. Epe hori 2012ko urtarrilaren 16tik aurrera hasiko da zenbatzen.

## ESKORIATZA

# Argazki lehiaketako irabazlea aste honetan aurkeztuko du Udalak

A. ALKORTA | ESKORIATZA

*Eskoriatzako txokoak* izenarekin egin da aurten argazki lehiaketa. Udalaren hasierako asmoa herriko bost postal argitaratzea zen, eta horregatik egin da lehiaketa. "Gero, argazki horiek herriko hainbat dendatan salgai jartzeko eta postalak egiteko, esaterako". Guztira, 58 argazki aurkeztu dira eta asteon erabakiko du Udalak zein den argazki irabazlea.

Herriko txoko ezberdinak izan dira aurtengo gaia. Argazkiak aurkezteko epea urriaren 1etik 31ra arte egon zen zabalik eta bozkatzeko epea azaroaren 1etik 20ra egon da.

### Sariak eta irabazlea

Lehiaketa irabazten duen herritarrek jasoko duen sariaren gain, bozketan parte hartu duten guztien artean ere 50 euroko saria zozketatuko da.

## ARETXABALETA

# Algara ludotekak jostailu bilteta egingo du astelehenetik egubakoitzera

A. ALKORTA | ARETXABALETA

Algara ludotekak bigarren aldiz jostailu bilteta antolatu du, gaur hasi eta egubakoitzera arte. Jostailuak inguruko haurren artean banatuko dira. Duela hiru urte Sahararen aldeko elkarteekin egin zuen Algorak jostailu bilteta. Orduan, asmoa zen han ludoteka bat eraiki eta Aretxabaleako haurrek emandako jostailuz hor-

nitzea. Aurten, aldiz, jostailuak bertokoen artean banatuko dituzte.

Jasotzen diren jostailuak Caritasi emango zaizkio eta hark egingo du banaketa. Jostailuak ludotekan jasoko dira, egubakoitzera arte, 17:00tik 19:00etara. Abenduaren 15ean eta 16an bildutako jostailuekin erakusketa egingo dute udal-txe zaharreko atarian.

## ARETXABALETA

# Panpina ikastaroa antolatu du Loramendi elkarteak zaturako

A. ALKORTA | ARETXABALETA

Loramendi elkarteak antolatuta, zaturako panpina ikastaroa egingo da udaletxe zaharrean. Ikastaroan edonork parte har dezake. "Urte batetik hiru urte arteko haur bati opari eder, berezi eta bakar bat egiteko gogoz dabilen edonorentzat da", esan dute antolatzaileek. Etorrioko Erreka Mari Panpina

Tailerreko kideek gidatuko dute ekimena eta egun osoa iraungo du.

Goizean 09:00etatik 14:00etara izango da eta arratsaldean 15:00etatik 19:00etara. Bazkideek 50 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoak, 55. Izena emateko, herritarrek Loramendi elkartera jo beharko dute, 16:00etatik 20:00etara.



Ekintzak liburutegian izango dira. Irudian, Olga Jauregi eta zenbait gaztetxo, egubakoitz arratsaldean. | JOKIN BEREZIARTUA

## ARAMAIO

# Euskarazko literaturaz bertatik bertara gozatzeko aukera ikasle gazteenendako

Euskararen Egunaren harira, eguen eta egubakoitzean Lehen Hezkuntzako ikasleek eskaintza zabala izango dute liburutegian, klase orduetan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aurten Euskararen Eguna zapa-tuan ospatzen denez, Udaleko Euskara zerbitzuak eta liburutegiak aurreratu egin ditu egun berezia ospatzeko ekintzak. Abenduaren 1ean eta 2an San Martin eskolako ikasle txikiak ez dute aspertzeko astirik izango liburutegian. Izan ere, saio guztiak klase orduetan izango dira. Hala azaldu digu Olga Jauregi liburutegiko arduradunak: "Oso gaztetxoak izan arren klase orduetaz kanpo hainbat ekintza izaten dituzte eta asko baserri auzoetan bizi dira. Horregatik, eta saioetako asistentzia bermatzeko, klase orduetan egingo dira ekintzak". Hau da, aurten ere Euskararen Egunaren harira antolatatu diren ekintzak eskolako arduradunekin elkarlanean antolatatu ditu Jauregik.

### Lehen ekintzak, eguenean

Abenduaren 1ean, hasteko, euskarazko literaturan aski ezaguna den *eleberririk ilustratzerako* orduan bereziki Jon Zabaleta ilustratzaileak bi saio egingo ditu; lehena, 4 eta 5 urte arteko ikasleendako eta bigarrena, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleendako.

Horrez gain, Lupe Lekuona ipuin kontalaria ezagunak ere beste bi saio egingo ditu egun berean; Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoendako lehena, eta 5. eta 6. mailako ikasleendako bigarren saioa. Bi edo hiru ipuin kontatzeaz gain, euskara eta umorea uztartuko dituen "esperimantu bat" egingo duela adierazi die antolatzaileei Lekuonak. Liburutegiko arduradunaren arabera, ipuin kontalariak bideoren bat erabiliko du.

### Antzezlea ipuin kontalari

Euskararen Egunaren bezperan ere, hau da abenduaren 2an, ipuinek hartuko dute protagonismoa. Eñaut Gorbea Zurrunka antzerki taldeko ipuin kontalaria izango da gurean. Ipuin kontalaria izateaz gain, antzezlea ere bada. Klown antzerkia bereziki gustuko du Gorbeak.

Hala ere, orain ipuinak kontatzen dihardu, hurrekin hainbat urtetan lan egindakoa dela aprobetxatuz. Bi saio eskainiko ditu Aramaion: lehena 6 eta 7 urte artekoendako izango da eta bigarrena, aldiz, 8 eta 12 urte artekoendako. Bitxikeri moduan aipa daiteke Gorbeak Arantza Ozaeta eta Divina Arriolabengoa aramaioarrek jasotako bi liburu kontatuko dituela. Egitarauarekin amaitzeko, 22:15ean Kukubiltxoren saioa izango da Kultur etxean.

## ANTZUOLA

# Islandiara egindako bidaiak ezagutu ahal izango dugu eguenean, Etxanizen eta Anduagaren eskutik

'Antzuolarrak munduan zehar' zikloko abenduko hitzaldia izango da

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Hileko lehen eguenean izaten dira *Antzuolarrak munduan zehar* zikloko hitzaldiak. Aste honetan da hileko lehen eguna, abenduaren 1ean, eta Islandiara egindako bidaiaren gaineko xehetasunak emango dituzte Pilar Etxaniz eta Miren Anduaga antzuolarrek. Islandia ezagutzeko egindako ibilbidea, bisitatutako lekuak,

ezagututako lagunak, argazkiak, bizitako esperientziak eta beste zenbait xehetasun ezagutu ahal izango ditugu bi antzuolarren eskutik. Eguenean, abenduak 1, 18:30ean izango da hitzaldia, Olanen.

### Federatu txartela

Arrola Mendizale Taldetik adierazi dutenez, mendiko federatu

txartela egin edo aldaketaren bat egitea nahi izanez gero azaroaren 30era arte dago epea zabalik. Horretarako, Arrolaren lokalera joan beharko da egun horretan bertan, eguaztenean, 19:00etatik 20:00etara. Bestetik, juntakoekin harremanetan jarrita ere egin ahal izango da. Aurten, federazioak aginduta, derrigorrezkoa da telefono zenbakia ematea.

## ELGETA

# Tontortxoak, jabeei ohartarazteko txakur kakak kentzeko beharraz

Partikular baten ekimena izan da: 'Zure txakurra egin du?' galdetzen zuen tontortxoan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Eguenean ahoz aho ibili zen kontua herrian. Domingo Iturbe kaleko bizilagun batek tontortxoekin seinalatu zituen etxe parean aurkitutako txakur kaka bi. Hiru zipotz eta paper orri banarekin seinalatu zituen *erregaluak*. Eta tontortxoetan galdere zuzena: *Zure txakurra egin du?*

Elgetarren artean ere handituz doa kezka txakur kakak direla-eta. Bazter guztietan daude; berdeguneetan, kalean, espaloietan, haur-parkeetan, eskolako jolastokian... Txakur jabeak euren animaliek egindako gorotzak jasotzera behartuta daude, eta askok horrela egiten dute. Baina ez denek.

### Sentsibilizazioa

Egoerarekin jabetuta, Udalak mahai gainean du gaia. Sentsibilizazio kanpaina bat egiteko aukera aztertu zuten duela hilabete batzuk, eta, azkenean, txakur jabeei gutun bana bidaltzea erabaki zuten.

"Gero eta txakur kaka gehiago dago herrian", zioen eguenean guraso batek. "Asteon atentzioa eman dit Bolatokiko haur-parkearen ondoan zenbat dauden". Kale erdian ere asko egoten direla zioen San Roke kaleko bizilagun batek. "Oinezkoek saihesten ditugu, baina autoa garajera sartu behar eta ustekabeen gurpilarrekin baten bat zapaltzen baduzu, kaka garaje barrura doa".



Herritar batek txakur kakak ikusarazteko egindako tontortxoak. | L.Z.

## LEINTZ GATZAGA

# San Milixanetako argazkiak ikusgai daude

Joxe Felix Diaz de Tuestak ferian ateratako argazkiak jarri dituzte Udalaren webgunean

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

San Milixan egunak emandakoak argazkitan jaso zituen Joxe Felix Diaz de Tuesta argazki zaleak, eta orain Udalaren webgunean *www.leintzgatza.com* jarri dituzte argazki horiek ikusgai.

Artisau ferien bueltan sagardoa zelan egiten den erakustaldia egin zuten hainbat herritarrek eta sagardogilek herriko plazan, eta horixe jaso zuen argazkitan Diaz de Tuestak: sagarrak txikitzen, tolarean sartzen, sagar zukua ateratzen... Argazki dotoreak dira guztiak, eta herritarrek ikus ditzaten jarri ditu webgunean orain Udalak. Horiekin batera beste batzuk ere badaude.

Bestalde, GOIENAK ere jaso zituen argazkiak San Milixan eguneko ferian, eta webgunean

ditu ikusgai *goiena.net*. Sagardoaren gaineko erakustaldiarekin batera azaroaren 13an egindako beste hainbat jarduerak ere jasota daude argazkitan: neska-mutikoak gatz pastarekin eskulanak egiten; herritarrek eta bisitariak artisau ferien bueltan; Sorginak emakume elkarretakoak taloak egiten... Jai giroko irudiak, hain zuzen.

### Film emanaldirik ez

*Nagore* filmaren emanaldia eta ondoren hausnarketa saioa zeuden iragarritako datorren egubakoitzeko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren bueltan, baina ez da egongo halakorik. Joan den egubakoitzean herriko plazan egindako elkarretaratzearekin izan zuten gogoan egun hori.

## AZAROKO SARIEN IRABAZLEAK

### JAKIONEKO OTARRAK



**JAKIÖN**

www.jakion.es

<b>Izen-abizenak:</b> Ana M. Ruiz Santos Jose M. Arenaza Garitano Txaro Yaniz Laskurain	<b>Heria:</b> Eskoriatza Bergara Oñati
--	---

**goienakluba**<sup>“</sup>  
Abantailaz betetako kluba!

#### Zarzuelarako sarrerak

**Izen-abizenak:**  
Andoni  
Zubia  
Madinabeitia  
**Heria:** Eskoriatza

#### PLECS antzerkia

**Izen-abizenak:**  
Loli  
Zeziaga  
Bengoa  
**Heria:** Arrasate

#### Hostoak ikuskizuna

**Izen-abizenak:**  
Enara  
Minguez  
Aranberri  
**Heria:** Bergara

**ZORIONAK, GUZTIOI !**

## Zinera joan nahi?

Gaurtik eta urte bukaera arte,  
nahi duzun filma, nahi duzun egunean!

Deitu eta lortu Florida Guridirako 2 sarrera\*

**943 25 05 05**

\* Sarrerak agortu arte.



# KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

## Anaitasuna geratu ostean, Mondrak oparia egin eta arnasa hartu zuen liderrak

- Mondra 10. minutuan aurreratu zen
- Atsedendian 2-2 erakusten zuen markagailuak

EMAITZA

MONDRA

2-3

ANAITASUNA

## FITXA TEKNIKOA

**Mondra:** Ander R. de Azua, Chaves, Alain Gomez, Calzon, Iregi, Iker Lopez, Crespo, Mikel Gonzalez, Pavon, Oier, Ormaetxea (Aulkian, Garcia, Jokin Pavo, Asier, Alvaro eta Lander).

**Anaitasuna:** Astigarraga, Albizuri, Godoy, Murua, Eskurtza, Artetxe, Arzalluz, Egaña, Aranbarri, Sanchez, Lopetegui.

**Epailak:** Asier Letamendi epailak Liher Martin eta Julen Lasarte izan zituen ondoan. Jokin Pavok txartel gorria ikusi zuen.

Rodriguezek belaunaldi berri bati eman behar izan diolako paso, halaberharrez. Berdegunean, baina, Anaitasunak ez zuen apartekorik erakutsi; hala, 10. minutuan Xabi Pavonen erdiraketa Txonane buruz ederto errematatu zuenean (1-0) zaleen esperantzak piztu ziren, posible zen liderra ezustean harrapatzea.

Poztasunak 8 minutu iraun zituen, Mondrako atezain Ander Ruizek azkar jokatu nahian Iregiri eman ziolako baloia, baina defentsak kontrarioa gain-gainean zuenean. Azkar ibili zen Azkoitiko aurrelaria, motel atzelaria, eta baloia lapurtuta gola egin zuten azkoitiarrek. Zaleak haserre, liderraren aurrean ezin direlako horrelako opariak egin.

## Minutu eroak

Akatsa zuzendu nahian hurrengo jokaldietan ondo ibili zen Arrasateko atezaina, argi, dezentetan irten behar izan zuelako sakoneko paseak moztera. Atsedendiarako bi minuturen faltan, baina, Anaitasunako Sanchezek egin zuen 1-2koa, sakonean pase on bat jaso, atezainari iskin egin -Anderrek gutxi egin zezakeen hor- eta maisutasunez baloia ondo gurutzatuta saretara bidali zuenean. Bazirudien Mondraren gainbehera izango zela, bai-

na Pavonek 45. minutuan egin zuen binako berdinketa, atezainari ondo aurre eginenez (2-2).

Bigarren zatian gehiago nahastu zen jokoa. 68. minutuan Anderrek ez zuen ukabilez ondo urrundu, eta aurreratuta geratu zen; baloia loratuaz egin zuen Anaitasunak 2-3koa.

## Bazkideak haserre daude

Berdegunean bolada onean ez badabiltza, bulegoetako egoera ez da hobea, Mondrako zale asko haserre daudelako Patxi de Andres presidentearen lanarekin. Ekonomikoki kluba kudeatzerako orduan erakusten ari den gardentasun faltarekin daude haserre, eta sinadura mardoa batu dituzte batzar orokorraren eguna aurreratu eta kontuak eskatzeko. Patxi de Andresek GOIENARI baieztatu dio abenduaren 5ean egingo dutela batzarra: "Ez daukat ezer gordetzeko".



Oier erdiraketa egiteko gertu, Anaitasunako atzelaria gainean duela. | J.A.

ANDER RUIZ DE AZUA | ATEZAINA

### "Gazte mailako batek egingo lukeen akatsa egin dut lehenengo golean"

Berdegunean egingo dako akatsak ahaztu ezinka, Arrasateko atezaina ez zen partidu ostean gorde. **Egin dituzuen opariak erabakigarriak izan dira.** Eta pena da, lehenengoak izateko ez dutelako apartekorik erakutsi.



Ruiz de Azua. | X.U.

## Zer gertatu da lehen golean?

Azkar jokatzeko agindua genuen, eta hori neukan buruan. Baina hanka sartu dut, gazte mailan egingen den akatsa egin dut.

## Hirugarrenean aurreratuta harrapatu zaituzte.

Bai, loratuta zetorren baloia, eta berehala konturatu naiz ez nintzela iritsiko. Urteetan ere aurrera goaz eta igarri egiten da.

## Liderrari irabazteko gauza zinetela

## erakutsi duzue, baina.

Oso motibatuta irten gara, baina partidu guztietan irten behar gara horrela, ez batzuetan bakarrik. Baita Rotetaren kontra ere.

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Ligako hamabigarren jardunaldian lider dagoena ez da kasualitatez horra iritsi, txapelketaren hasieran gerta daitekeen moduan. Eta Mondra ere ez dago kasualitatez atzealdeko postuetan, bestelako arazoekin batera, batera erretiratu direlako titular ziren bost jokalaririk beteterano, eta Iban

OHOREZKO ERREGIONALA

## Arazkonaga golegile, 1-0



Macho eskuin hegaletik eraso jokaldia antolatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

X.U. | BERGARA

Bergarak etxean jarraian lortzen duen hirugarren garaipena eskratu zuen zapatuan Aurreraren kontra: "Garaipen garrantzitsua izan da, saikapenean ondoan dagoen taldea delako Aurrera. Bagenekien partidu zaila izango zela, talde gogorra da, edozer gauzgatik protesta egiten dute, eta euren jokoan sartuz gero asko geneukan galtzeko", adierazi zuen Neka Galan entrenatzaileak.

Jokoari dagokionez Bergarak izan zuen lehenengo zatian gola egiteko aukera garbiena, baloi geldiko jokaldietan, batez ere, baina bigarren zatira arte ez zen etorri gol erabakigarria. 80. minutuan kórner erdiraketa batetik urrea lortu zuen Arazkonagak.



EMAKUMEZKOAK

JOSETXO ARANTZABAL

### Ezin lehen zatia aprobetxatu

Mondrako neskek 1-2 galdu zuten atzo Gasteizko Aurrera taldearen kontra. Arabarrak aurreratu ziren 8. minutuan, baina Ezkurraren neskek aukera garbiak izan zituzten berdintzeko, eta baita aurrea hartzeko ere. Gola, baina, Aurrerakoek egin zuten (0-2). Atsedendia iritsi aurretik Roak egin zuen 1-2koa, Alonsok zutoinera botatako jaurtiketa aprobetxatuta. Bigarren zatian, nahi baina ezin.

## OHOREZKO ERREGIONALA

# Aitor Perezek laugarren minutuan egindako golak garaipena eman zion Aretxabaletari

Real Unioneke hamar jokalarirekin amaitu zuen, zaleei keinu bat egitearren

## EMAITZA

ARETXABALETA

1-0

REAL UNION

XABIER URTZELAI | ARETXABALETA

Etxean jokatuak azken bi partiduak berdindu ostean Aretxabaletako zaleek pozik hartu zuten etxeko taldearen garaipena, gainera, Real Union moduko talde indartsu baten kontra. Aretxabaletako jokalaria Aitor Perez

esna zelairatu zen, eta lau minutu baino ez zituen behar izan irundarren atea zulatzeke (1-0). Gol baliotsua zen hori, partiduko bakarra izan zelako.

Berez kanpotarrek lortu zuten Aretxabaletako atezain Agirregabiria gainditzea, baina epaileak

balio gabe utzi zuen gola, kanpo-ko zaleen haserretarako.

## Azken minutuak zatartuta

Aretxabaletak beharrezkoa zuen azken minutuetan markagailuan zuen abantaila ondo kudeatzea, eta kanpotarrek mesedea egin zieten horretan, komeni ez zitzaizkien iskanbilatan sartu ziren-eta. Aldaketetako batean epaileak atentzioa deitu zion Real Uniongo jokalaria bati belarritakoa eramatearren, eta zale aretxabaletarrak txistuka hasi ziren; jokalaria keinu batekin erantzun eta epaileak egotzi egin zuen.

## OHOREZKO ERREGIONALA

## Trintxerpen lortu du Aloñak hirugarren garaipena jarraian

Bolada txarra atzean utzi, eta kolpean, gainera. Horixe egin du Aloña Mendik, azken bederatziko puntuetatik guztiak irabazi dituzte-eta. Zapatuan Trintxerpe 0-1 mendean hartzeko gauza izan ziren Azkar-gortaren mutilak.

## GAZTEAK, EUSKAL LIGA

## Aretxabaletak lau gol egin dizkio bosgarren dagoen Hernaniri

Euskal Ligari eutsi ahal izateko moralki bultzada ederra jaso dute Aretxabaletako mutilak, asteburuan bosgarren postuan dagoen Hernaniren zelaian jokatu dute, eta etxetik kanpo lau gol egiteko gauza izan ziren. 2-4 nagusitu ziren aretxabaletarrak.

## ERREG. PREFERENTEA

## Antzuolak aurrean jarraitzeko atzerapausoa

Denboraldi oso txukuna egiten dabilta antzuolarrak, baina asteburuan aurrean jarraitzeko aukera galdu dute Getarian 1-0 galduta. Hala ere laugarren postuan jarraitzen dute, liderak baino bost puntu gutxiago batuta. Ordizia hartuko dute datorren astean.



Aretxabaletako jokalaria Ibai Real Uniongo jokalaria atzean duela, plano motzean biak. | JOSETXO ARANTZABAL



Aukerazko

# IBILGAILUAK

salgai



14.500€-tik aurrera

> FORD FOCUS  
2011 | Diesela | 0 Km

**MUGARRI**

Araba etorbidea, z/g ARRASATE  
943790744 • www.mugarri.es

- Ford Mondeo 1.8 TDCI 19.800 €  
2011 | Diesela | Zilarra | 0 Km
- Ford Focus TDCI 115 ZP 8 abiadura 17.500 €  
2011 | Diesela | Beltza | 0 Km.
- VW Passat Avant 4x4 Highline 2000 TDI 140 ZP 14.800 €  
2007 | Diesela | Beltza | 110.000 Km.
- Ford Focus TDCI 140 ZP 19.800 €  
2011 | Diesela | Urdina | 0 Km.
- Ford Focus TDCI 110 ZP 10.500 €  
2008 | Diesela | Beltza | 49.000 Km
- Ford Kuga TDCI- 4W 140 ZP 24.400 €  
2010 | Diesela | Urdina | 16.000 Km
- Seat Leon FR TDI 170 ZP 13.800 €  
2007 | Diesela | Gorria | 39.000 Km
- Ford Focus ST 225 ZP 13.500 €  
2007 | Diesela | Laranja | 70.000 Km
- Mitsubishi Montero TDI 115 ZP 14.800 €  
2006 | Diesela | Zilarra | 102.000 Km
- Mitsubishi Montero TDI 115 ZP 15.800 €  
2007 | Diesela | Beltza | 128.000 Km



28.700 €

> Audi A4 2.0 TDI 143 DPV AVANT  
2010 | Diesela | 29.649 Km

**Udalaitz**

- Audi A3 1.9 TDI E DPV ATTRACTION 18.400 €  
2010 | Diesela | Grisa | 24.634 Km
- Volkswagen Bora 1.9 TDI CONCEPTLINE 100BHP 7.900 €  
2005 | Diesela | Grisa | 131.000 Km
- Renault Clio CAMPUS AUTHENTIQUE 1.5 DCI 65 6.600 €  
2007 | Diesela | Txuria | 103.932 Km
- Fiat Punto 1.9 JTD DYNAMIC 3.900 €  
2002 | Diesela | Urdina | 176.372 Km
- Audi A4 2.0 TDI E 136BHP DPV 26.900 €  
2010 | Diesela | Beltza | 22.552 Km
- Volkswagen Polo 1.2 ADVANCE 10.500 €  
2010 | Gasolina | Txuria | 13.805 Km
- Seat Exeo 2.0 TDI 120 PS DPV REFERENCE ST 20.500 €  
2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Seat Altea XI 1.6 TDI 105 PS STYLE ECOMOTIVE 19.500 €  
2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Skoda Scout 2.0 TDI Quattro 25.500 €  
2010 | Diesela | Beltza | 5.300 Km
- Seat Leon 1.6 TDI 105 16.500 €  
2010 | Diesela | Grisa | 50 Km

Gipuzkoa etorbidea, 36  
ARRASATE • 943 71 18 70



15.000 €

> Citroen DS3 1.6HDI Special Edition II  
2011 | Diesela | Gorri argia | 2.500 Km

**CHAPIME**

SAN ANDRES AUZOA 5  
ARRASATE  
TEL.: 943 79 45 22



**CITROËN**  
Debagoieneko  
Kontzesionario ofiziala

- Citroen Berlingo 1.6HDI 110 XTR 14.900 €  
2010 | Diesela | Gris argia | 45.725 km
- Citroen C4 1.6 VTI Cool 9.500 €  
2009 | Gasolina | Txuria | 33.150 km
- Citroen C4 1.6HDI Cool 110 FAP 11.850 €  
2010 | Diesela | Beltza | 47.634 km
- Citroen C4 G. Picasso 1.6HDI Millenium CMP 21.500 €  
2011 | Diesela | Gris argia | 1.500 km
- Citroen C8 2.0 HDI Premier 138 21.900 €  
2010 | Diesela | Urdin argia | 44.000 km
- Citroen DS4 1.6 e-HDI Style CMP STT 23.500 €  
2011 | Diesela | | 3.500 km
- Citroen DS4 1.6 e-HDI Design STT 21.750 €  
2011 | Diesela | Ilun urdina | 1.000 km
- Hyundai i30 1.6 CRDI Comfort GLS 11.500 €  
2010 | Diesela | Txuria | 10.110 km
- Citroen C8 2.0 HDI PREMIER 120 21.000 €  
2010 | Diesela | Gris argia | 27.800 km
- Citroen C8 2.0 HDI PREMIER 138 22.000 €  
2010 | Diesela | Gris iluna | 35.050 km

## SASKIBALOIA

# Atzoko garaipenarekin sailkapeneko bigarren postua lortu du Eskoriatzak

- ▶ Nahiz eta makal hasi, bigarren zatian defentsa ezin hobea egin zuten
- ▶ 3. laurdenean partidari buelta eman zioten Murilloren neskek



Eskoriatzako jokalaria bi puntuko jaurtiketa bat egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

## EMAITZA

ESKORIATZA

# 48-38

KRAFFT ATLETICO

## ANDER MONEDERO | ESKORIATZA

Eskoriatzako neskek, normalean, etxeko partidua zapatu arratsaldetan jokatzen dute, baina Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emaldia zela-eta, domeka goizean jokatu zuten partida. Ez dakigu ordutegi aldaketak eragin zuen edo ez, baina lehenengo zatian Eskoriatzako neskek ez ziren fin ibili. Defentsan akats asko egin zituzten eta jaurtiketetan ere ez zuten zorte handirik izan. Hori bai, bigarren zatian erreakzionatu eta partiduari buelta ematea lortu zuten Fernando Rasoren neskek.

Partiduen hasieran Krafft Atletico San Sebastianeko neskek etxekoak baino gehiago izan ziren. Kanpoko taldeak ez zuen meritu handirik egin, baina Eskoriatzak defentsan egindako akatsak aprobetxatu zuten markagailuan aurreratzeko. Defentsan makal, erasoan ere ez ziren eskoriatza-

rrak fin ibili, batez ere jaurtiketa asko huts egin zituztelako.

Lehenengo laurdunen bukaeran, talde donostiarrak aurea hartu zuen markagailuan eta bigarren ere, etxeko taldea baino gehiago izan zen. Gauzak horrela, Eskoriatza 19-24 galtzen joan zen atsedenaldira.

Atsedenaldira, Rasoren neskek partiduan zehar egindako akatsak identifikatzeko gai izan ziren eta hirugarren laurden paregabea egin zuten. Etenaldien aurretik sartzen ez zituzten jaurtiketak, saski barruan sartzen hasi ziren eta defentsan egindako lan paregabea esker partiduari buelta eman zioten. Eskoriatza hiru minutuz egon zen saskiratzerik jaso gabe.

Etxeko taldeak beste itxura bat eman zuen bigarren zatian eta partiduko azken laurdenean hirugarrenean bezala, Donostia-ko taldea baino gehiago izan zen. Partidua bukatzeko bi minutu falta zirenean, Eskoriatzak 12 puntuko aldea zuen; markagailuko aldea ikusita, eskoriatzarrek partiduen tentsioa galdu zuten eta kanpotarrek hiruko saskiratze bat lortu zuten. Segidan, baloia gaizki atera, baloia galdu, eta beste bi puntu lortu zituen Krafft Atletico taldeak: bost puntu segundo gutxiren tartean. Bazirudien etxeko taldeak partiduen azken minutuan sufritu egingo zuela, baina Eskoriatzak bi puntuko saskiratzea egitea nahikoa izan zen talde donostiarra behera etortzeko; partidua noiz bukatuko zain geratu ziren: 48-38 etxeko taldearentzat garaipena.

**Hurrengo partidua Oiartzunen**

Atzo arte liderra zena menderatu ostean, Eskoriatzako neskek Oiartzunen jokatuko dute hurrengo partidua STL Bilintx taldearen aurka.

## SASKIBALOIA

# Logroñotik eta Gasteiztik esku hutsi bueltatu dira Natra Aloña eta MU

Igartuaren taldeak 70-68 galdu zuen eta Larreategirenak, berriz, 81-59

## A.M. | ARRASATE

Natra Aloña Mendik eta Mondragon Unibertsitateak ezin izan zuten partidua irabazi. Oñatiarrek partidua hasiera ona egin zuten, baina ezin izan zuten emaitza mantendu. Arrasatearrek, berriz, ezin izan zuten Seky.es taldearen aurka ezer egin.

Natra Aloña Mendik partidua hasiera txukuna egin zuen Logroñoko Deportes Ferrer taldearen aurka. Lehenengo bi laurdenetan oñatiarrek defentsako lan ona egin zuten eta atsedenaldira markagailuan aurretik joatea lortu zuten.

Hirugarren laurdenean, berriz, Xabier Igartuaren mutilek oso gaizki jokatu zuten, defentsan akats asko egin zituzten eta erasoan ere ez ziren fin ibili. Azken laurdenean, hirugarrenean egindako akatsak konpontzen saiatu

ziren, baina Logroñoko taldeak ondo eutsi zion emaitzari. Bukarera 70-68 etxeko taldearentzat eta oñatiarrek burumakur etxera; garaipen garrantzitsu bat lortzeko aukera izan zuten, baina esku utzik bueltatu ziren.

MUK, berriz, ez zuen aukerarik izan Seky.es taldearen aurka. Lehenengo laurdenean, talde gasteiztarrek 25-13ko partziala egin zuen eta arrasatearrek ezin izan zuten partiduari buelta eman.

Bigarren laurdenean, MUKo jokalaria gogotsu irten ziren eta markagailuko distantzia murriztea lortu zuten, baina talde gasteiztarrek lehenengo laurdenean lortu zuen abantaila handia murrizteko arrasatearrek gehiago egin behar zuten. Kontraerasoetan baloi asko galdu zituzten. Partiduen bigarren

zatia bigarrena bukatu bezala hasi ziren eta markagailua berdintzeko gai izan ziren. Berdintzeta lortu ostean, talde arrasatearrek falta asko egin zituen eta gasteiztarrek hori aprobetxatu zuten markagailuan aurre hartzeko.

Azken laurdenean, MUK intentsitatea galdu zuen eta 9 puntuko aldea lortu zuen. Bukarera, 81-59 talde gasteiztarra nagusi.

**Hurrengo jardunaldia, etxean**

Datorren zapatuan, Natra Aloña Mendik Pas Pielagos talde kantabriararen aurka jokatuko du Zubikoan.

MUK, berriz, ez du aste honetan partidurik jokatuko, atsedena izango dute-eta. Hurrengo partidua, abenduaren 11n Zarautzen jokatuko dute, Leihoak Zarautzen kontra.



GIPUZKOAKO SENIORRAK

## 75-80 MUK etxean galdu

Mondragon Unibertsitateko lehen senior mailako taldeak ezin izan zuten Irungo Carnicas San Marcial Errobiderearen aurka garaipena lortu. Egubakoitz iluntzean Musakolako kiroldegian jokatu zuten partida eta, nahiz eta talde irundarrari aurre egiten saiatu, kanpoko talde etxekoa baino gehiago izan zen. Egubakoitzekoa, Bergarari irabazi ostean, ligan jarraian jasotzen duen bigarren porrota da.

## PILOTA

# Eneko Muguruzak ezin izan zuen txapela etxean, Bergaran, jantzi

Oso urduri, bergararrak ez zuen joko ona egiterik izan eta Aranalde usurbildarrak eraman zuen Gipuzkoako Kluben arteko txapela

## EMAITZA

ARANALDE

22-17

ENEKO MUGURUZA

EDU MENDIBIL | BERGARA

Nerbioek indar eta azkartasun barik utzi zuten Eneko Muguruza atzoko partiduan. Gipuzkoako Kluben arteko finala zen, bergarra eta Aranalde usurbildarren artekoa. Partidu amaieran ezin zuen sinetsi Muguruzak aurretik, ordubete inguruz, kantuan gertatutakoa. Partidu osoan zehar atzetik joan zen Muguruza, eta amaiera aldera aldea bi tantora murriztea lortu bazuen ere (17-19) Usurbil aldera hegan egin zuen txapelak. Merezita jantzi zuen Aranaldek.

Txapelketan zehar Ander eta Eneko Muguruza izan dira Bergarako ordezkariak banakako senior mailako txapelketan. Hiru partida jokatu dituzte ligan zehar eta finalerdian zein finalean Eneko izan da kantzara atera

dena. Finalerdian Elgetako Ozkarbi taldeko Atxotegiri 22-9 irabazi eta gero, Muguruza faborito zirudien atzoko finalerako. Zenbait eskuinkada ederrak eman bazituen ere, atzokoa ez zen bere eguna. Nerbioei eusten jakin beharko du hurrengoan. Ziurrenik, etxean, lagunaren aurrean jokatzeko ere ez zion mesederik egingo atzo. Reyes Azkoitia entrenatzaileak Muguruzari animoak ematen zizkion bukaeran, aurkari zailena nerbioak izan zirela aitortuz.

**Hernanik binaka**

Jarraian, ohorezko mailan, Hernaniko Ojuel-Gorrotxategi eta Ilunpe taldeko Larrañaga-Uzkudun bikoteak izan ziren aurrez aurre. Hernaniarrek eraman zuten txapela, Ilunpeko bikoteari 22-11 irabazita. Bestetan baino zale gutxiago batu ziren atzo eguerdian Bergarako Udal Pilotalekuan.

**Josu Zezeaga gaztetxoa**

Bestalde, egubakoitzean, infantil mailako partidua izan zen Lapke eta Bergarako pilotari gaztetxoaren artekoa, Gipuzkoako Kluben arte-

ko txapelketaren barruan baita. Josu Zezeaga Bergarako ordezkaria 2-0 nagusitu zitzaion Lapke taldeko pilotariari. Tenisean egiten den antzera, 8 tantora bi set modukoak jokatzeko dituzte, aurrenekoak batek sake guztiak egiten dituelarik eta hurrengoan besteak. Esan bezala, bietan nagusi izan zen Zezeaga gaztetxoa.



Eneko Muguruza, atzoko finaleko irudi baten. | JOSETXO ARANTZABAL

ENEKO MUGURUZA | BERGARA KIROL ELKARTEA

## "Nire sakearekin gutxitan asmatu eta aurkariarena eraman ezinda ibili naiz"

Finala bukatu eta zenbait minutu egin zituen kantxan, aulkian, Muguruzak (24 urte). Partiduan gertatutakoa burutik kendu ezinik, gutxitan gozatzea izan zuela aitortu zigun.

**Ez duzu zure jokoa egiterik izan...**

Ez, sakeak eramanda ezinda ibili naiz eta nire sakearekin ere gutxitan asmatu dut. Bergaran finala izanda banuen ilusioa irabazteko baina ezin izan ditut nerbioak gaintitu.


**Orain, zer?**

Lau t'erdiko Soraluze txapelketa

abenduan hasiko da eta Gabon Sari-rako ere ilusioa daukat. Iaz Ander lehengusuari irabazi nion finala... Ea aurten zer gertatzen den... Bestalde, Espainiako Txapelketan ere lehiatuko naiz, Quintanar de la Sierra-ko taldearekin.

**Zelan ba hori?**

Gipuzkoak ez du parte hartzen eta Burgosko Quintanar de la Sierrako taldekoek deitu ninduten, ea beraiekin jokatuko nuen galdetzen. Gure taldean baimena eskatu eta aurrera egiteko



Eneko Muguruza. | E.M.

esan zidaten. Badaukat ilusioa. Ikusi behar noraino heltzen garen.

**Debarroko txapelketa Bergarak antolatzen du aurten.**

Bai. Finalak jaien inguruan dira eta hor ere baditugu esperantzak jarrita.

## MENDIA

## Hego Polo oraindik urrun, epeak betetzen ari dira Transantartikan

E.M. | ARRASATE

Zailtasunekin jarraitzen dute mendizaleek beraiekin izandako azken hartu-emanen. Proiektua arriskuan jar zezakeen ezbeharrak izan zuten joan den astean, Juan Vallejo lera 30 metroko sakonera zeukan zuloa jausi zenean.

Gertaera hura gaudituta, eta trineoa apurtuta ez zegoela ikusita, animoz ondo daude 2.500 metroko altuerara iristeko gutxiago falta delako eta bertan topatuko duten *plateau* antartikoan kometa eta lerei etekin guztia ateratzeko momentua laster iristear dagoelako. Izan ere, orain arte nekez erabili ahal izan dituzte.

**Eskalada, zailago**

Hasierako helburuetariko bat zeharkaldia eskalada saioren batekin uztartzea baldin bazen ere, Inurategik, Vallejo eta Mikel Zabazak oso zaila ikusten dute orain. Zabazaren hitzetan, "mendikatea igaroko dugu laister eta ez dugu egun bat bera ere izan eguraldi aproposarekin eskalatzeko. Gune egoki batera mugitzea, denbora eta esfortzu aldetik alperrikakoa da eta eguraldiak lagunduko digun jakin gabe". Helburua guztiz baztertu ez duten arren epe motzean egon daitezkeen aldaketen menpe utzi dute ahalegina, eguraldiak eta lurra eragonek baldintzatuta".



Inurategi, Zabaz eta Vallejo, espedizio irudi baten. | BASQUE TEAM

## ATLETISMOA

## Debagoieneko lasterkariak maratoian

3.000 lagun izan ziren atzo Donostiako Maratoiaren irteeran. Azken urteotan ohikoa den bezala, debagoiendar ugari hartu zuten parte Donostiako proban. Irabazleak Btami Otmane marokarra (2:20:26) eta guipuzcoana Claudia Behobide gipuzkoarra (2:47:42) izan ziren. Alboko argazkian Jose Mari Anduaga (1.000 zenbakia) eta Manu Larrea (2.806) bergararrak atzoko proban.



OIHANA ELORTZA

## ESKUBALOA

## Ford Mugarrik ez dauka areriorik: 26-41 irabazi zion El Pilarri zapatuan

E.M. | ARRASATE

Ford Mugarrik sendo jarraitzen du Euskadiko Ligan. Arrasatearrek urrezko garaipena ekarri zuten zapatuan Gasteiztik. 26-41 irabazi zioten El Pilar taldeari, arrasatearren atzetik bigarren tokian zegoen taldeari. Lehen zatian bi goleko abantailarekin

joan ziren Ane Herreroren mutilak aldageletara. Eguenean, abenduaren 1ean, Bilbon jokatuko dute Deustoren aurka eta zapatuan, abenduaren 3an, Elgoibarreko taldea hartuko dute Iturripen. Elgoibartarrak bigarren daude orain sailkapenean, Ford Mugarrik lider jarraitzen du: 10

partidu irabazi eta bakarra berdindu dute orain arte.

**Bergarak Bilbon irabazi**

Bergarak meritu handiko garaipena erdietsi zuen zapatuan Bilbon, Deustoren kantxan. 28-32 nagusitu zuten bergararrak. Sailkapenean 10. tokian dago Josetxo Muniategiren taldea. Hurrengo La Bacaladera Hondarribia taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak. Sailkapenaren erdialdean daude kostaldekoak.

OÑATIKO MARTXA

# 400 txirrindularik omendu zuten Iban Altube Oñatiko mendi bizikleta martxan

- ▶ Aurten, gaztetxoendako martxa ere egin dute
- ▶ 120 gaztetxok egin zuten 5 kilometroko ibilbidea

ANDER MONEDERO | OÑATI

Askori domeka goizeko tenperatura hotzak eta behe-lainoak mendiko bizikletan ibiltzeko gogoak kenduko zioten, baina Oñatin batu zen koadrila galantak –nagusi zein gaztetxoak– ez zuen halako arazorik izan. Izan ere, nahiz eta goizeko lehen orduko freskotasanak askorik ez lagundu, 400 ziklistek parte hartu zuten Iban Altuberen lagunek antolatutako bi martxetan; nagusientzako bata eta bestea, gaztetxoentzako. Nagusien martxan 40 kilometroko ibilbidea prestatu zuten eta guztira

280 ziklistek hartu zuten esku-tartean ziren Irizarren lagun Amets Txurruka eta Haimar Zubeldia. Horiek 09:30ean hasi ziren pedalei eragiten, eta 10:30ean gaztetxoak hasi ziren jardunean. Bigarren martxan 120 haur eta gurasok parte hartu zuten eta herriko auzoetan zehar 5 kilometroko ibilbidea egin zuten.

## Bukaeran, omenaldia

Nagusien martxa bukatu eta gero, ziklistei arnasa hartzeko eta indarrak berreskuratzeko denbora utzi eta gero, herriko

plazan Iban Altube omendu zuten. Omenaldian, martxan parte hartu zuten txirrindulariekin batera herritar asko gerturatu ziren plazara. Bertan Ibanen gertukoek lore sorta, txapela eta oroigarria jaso zuten eta Ibanen bi umeei Markel Irizar txirrindulariak Radioshack taldeko mailot bana oparitu zien. Ondoren, Euxebio Lasartek bertso batzuk eskaini zizkien Altuberi eta haren familiakoei.



Altuberen omenez, lore sorta bat jarri zuten plazan. | JOSETXO ARANTZABAL



Umeen bizikleta martxaren hasiera. | J.A.



Ziklista bat kamera txiki batekin. | J.A.



Amets Txurruka, eta Irizar bikarrez, lagunartean berbetan. | J.A.



Umeak irtetzeko prest. | J.A.



Irteeran behe-laino handia zegoen Oñatiko plazan. | J.A.



Lagun talde bat Urtegainera iristeko gertu. | J.A.



**AIDA, OLGA ETA ANDER**  
BIZIKLETA-ZALEA

"Iban gure laguna zen eta bera omentzeko parte hartuko dugu. Aitak nagusien martxan parte hartu du eta guk, berriz, gaztetxoentzako martxan. Beraz, familian parte hartuko dugu. Umeentzako martxaren ibilbidea ez da zaila, 5 kilometro egin eta, ondoren, aitarekin plazan elkartuko gara hamaiketako egiteko".



**IÑAKI SANCHEZ**  
BIZIKLETA-ZALEA

"Bizikletan ibiltzea asko gustatzen zait eta gaur lagun koadrila osoarekin herrian zehar buelta bat egingo dugu. Lagunekin egoteko plan ona da".



**XABIER AGIRRE**  
BIZIKLETA-ZALEA

"Gustoko dut bizikletan ibiltzea eta ondo pasatzera etorri naiz. 5 kilometroko ibilbidea prestatu dute. Uste dut errez egingo dugula".



**JULEN AGIRRE**  
BIZIKLETA-ZALEA

"Hotz handia egiten du eta hasteko desiatzen nago. Ea horrela bero apurtxo bat hartzen dugun. Ibilbideak 5 kilometro ditu, errez egiteko modukoa da".

Iker Orobengoa | Auto mekanikoa

# "Autoak egiten duen gauza bakoitzaren zergatia jakitea gustatzen zait, horrekin gozatzen dut"

- ▶ Nafarroako Opena irabazita, TRT Racingen erresistentziako probak dituzte buruan
- ▶ Iker Orobengoa Euskal Herriko pilotu onenendako mekaniko lanetan ibilitakoa da

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Auto igoerak alde batera utzi eta zirkuituetan lehiatzera pasa zirenetik lehen garaipen garrantzitsua eskuratu dute Arrasateko TRT Racing taldekoek, Nafarroako Opena. Igor Orobengoak gidatzen du Seat Sport autoa, baina atzean haren anai Ikerren lana dago, Euskal Herriko puntako pilotuen ondoan jardutea zer den ondo dakien garagartzarra.

**Zer dela-eta sortu zenuten TRT Racing taldea?**

Igoera guztietara hiruzpalau lagun joaten ginen, eta ez genuen laguntza handirik behar, etxetik autoa ia gertu eramaten genuelako. Igoeratan azken orduko aldaketa txikiak egiten dira, gurpilak aldatu beharrik badago... Igoeratako azken urtean koadrila handiagoa batzen ginen, baina zirkuitura joaten hasi ginenean konturatu ginen han lan handiagoa dagoela, txanda batetik bestera aldaketak egin behar izaten direla, eta jende gehiagoren laguntza behar genuela. Ordurako, baina, sortuta geneukan TRT Racing.

**Zeintzuk batzen zarete lasterketetan?**

Automobilak eta lasterketak gustuko ditugun lagun koadrila bat. Unai eta Asier Arana, Iñigo Garai, Alain Sulupe, Iñaki Beci... mekaniko lanetan laguntzen ibiltzen dira; Igor pilotua da eta Andoni, anai nagusia, logistika arduraduna; jatekoetaz eta edatekoetaz arduratzen da [Barre]. Ez dadila ezer falta, gu kapaz gara egun osoa jan barik egoteko-eta.

**Mekaniko lanetan ibiltzen zara autoa gidatzen baino gusturago?**

Ez pentsa, sekulako inbidia pasatzen dut, eta datorren urtean erresistentziako probak egin nahi baditugu nik ere pilotu lanak egin beharko ditut. Baina, nik ez dut Igorrek bolantean duen odol hotza, ezta zirkuituko itzuli bakoitza denbora berdintsuan egiteko gaitasuna ere. Igorrek esku ona du, azkar gidatzeko dohaia du eta lasterketan nahia go izaten dut berak gidatzen badu. Bestalde, nik mekaniko moduan gozatu egiten dut, autoak egiten duen gauza bakoitzaren zergatia jakitea gustatzen zait.

**Horixe eskatu zenion, hain zuzen, Jon Aranbururi mekaniko lanetan ibiltzea eskaini zizunean.**

Bai. Jon Aranburuk urte mordoia egin ditu Seat Sport etxean, eta arlo mekanikoan mordoia dakien gizona da. Lehengago geneukan Seat Ibiza GT TDI autoa guk muntatu genuela jakin zuenean



Iker Orobengoa lasterketetan erabiltzen duen kaskoekin. | XABIER URTZELAI

eskaini zidan euren taldean mekaniko moduan hastea. Baldintza bakarra eskatu nion, gertu nongoen ezer kobratu barik lanean jarduteko, baina autoari egiten genion gauza bakoitzaren zergatia jakin nahi nuen; mordoia ikasi nuen eurekin eta puntako pilotuekin lan egiteko aukera

**"Zirkuituetan lagun gehiagoren laguntza behar izaten dugu ondo ibiltzeko"**

**"Zirkuituetan guk ez dugu besteekin arazorik izaten, baina badira pikeak"**

izan nuen: Iñigo Vigiola -GP2n De la Rosarekin ibilitakoa-, Txus Jaio, Aitor Arakistain... Pilotu onak izatearekin batera oso jende jatorra da, beti daude laguntzeko gertu.

**Montmelon egin zenuen debuta.** Bai, 24 orduko lasterketa batean. Sekulako esperientzia izan zen, ederra, baina baita gogorra ere. Saltsa handia egoten da, gurpil aldaketak, pilotu aldaketak, deposito betetzeak... Baina zapatu eguerdian hasten dute lasterketa, eta domeka eguerdian amaitu. Goizaldeko 03:00etan gure pilotuari abiadura-kaxa apurtu zitzaion, eta osorik desmuntatu behar izan genuen. Goizeko 07:00etan, berriz, laugarren pilotuari sekulako kolpea eman zioten, eta txikituta geratu zen autoa. Lasterketatik kanpo geratuta eta egiteko ezer ez genuela ikusita, Red Bull kaxa bat erosi, eta lorik egin barik etxera itzuli ginen.

**Beste batzuek mekaniko lanetan, baina, lehenago hasi zinen.**

2005ean *Rally Pays Basque*-n eza-gutu nuen Mikel Sarasola. 107 pilotutatik 22. postuan gindoazen rallyan, sekulako zartakoa hartu genuen arte. Sarasolaren eskutik hasi nintzen lanean Antonio Aris-ti, Arriet Arruabarrena eta kon-

**"Montmeloko 24 orduak esperientzia galanta izan zen, baita gogorra ere"**

**"Gure autoa kapaz da bi ordu deposito batekin egiteko; hori abantaila handia da"**

painiarekin, eta Mikel Sarasolari esker ezagutu ahal izan nuen Jon Aranburu, nire mekaniko arduraduna izan zena.

**Zer dela-eta utzi zenion talde horietan mekaniko moduan ibiltzeari?**

Oso nekagarria zelako. Aste barruan lantegian lan egin ostean asteburuan, esaterako, Albaceteraino joan behar izaten ginen. Domekan lasterketak amaitu eta dena batu orduko 17:00ak ziren, eta itzulerako bidaia geratzen zitzaigun. Eta astelehenean 07:00etarako lantegian egon behar nuen.

**Hain zuzen, Aranburuk animatuta hasi zineten autoa zirkuituetara eramaten.**

Igoera bat ikusten ari zela harrituta geratu zen anaiak egin zuen lasterketarekin; garbi trazatzen zuela jabetuta zirkuituan ondo ibiliko ginatekeela esan zigun, eta probatzera joateko.

**Frantziako Pau zirkuitura joan zineten lehenengo.**

Bai, baina ez genuen gauza onik egin (Barre). Hasteko, galdu samar ibili ginen bertara iristeko eta eguerdiko txanda egiteko berandu iritsi ginen. Baina ondoren barre egin genuen; autoak fisura bat zuen distribuzioeko polean eta abiadura-markagailua ez zebilen ondo; gure abiaduraren eta erlojuak erakusten zuenaren artean 60-80 kilometro orduko aldea zegoen. Anaiari irratiz galdetzen nion ea zer moduz zihoan, eta berak autoa hegan zihoala, 240 kilometro ordura! Bai zera...

**Zirkuituetako lehenengo urtea ez zen erraza izan.**

Hainbat arazo mekaniko izan genituen. Esaterako, Jaramako RAC-eko proba batean konfigurazio okerra jarri eta turboa apurtu genuen; baina ez lasterketako autoarena bakarrik, baita anaiaren kaleko autokoa ere. Asteburu beltza izan zen, eta nahikoa komeria izan genuen etxera itzultzeko.

**Eta orain erresistentziako probak dituzue buruan.**

Gertuen Jarama eta Los Arcos ditugu, baina Montmelora joan nahiko nuke nik. Gainera, uste dut gure autoarekin aurrean egoteko aukera handiak izango genituzkeela. Lasterketa bi ordukoa izaten da, eta nik badakit gure autoa kapaz dela bi ordu egoteko deposito bakarraz. Seat Leon edota Clio Sport autoek ezin dute halakorik egin, eta hor bakarrik 180 segundoko abantaila izango genuke. Hori pistan abantaila handia da.

Alex Barandiaran | Hazitegiko koordinatzailea eta Huheziko irakaslea

## "Umeek askatasun handiagoa behar dute eskolan; sarkorrak gara"

- ▶ Huheziko Hazitegi taldeak haur garapenari buruzko bi liburu kaleratu ditu
- ▶ Hezkuntza proposamen berritzailea ere egiten dute Hazitegikoek

LARRAITZ ZEBERIO | ESKORIATZA

*Haurraren Ongizatea I: Oinarri Psikopedagogikoak eta Haurraren Ongizatea II: Hezkuntza proposamenak* dira bi liburuak. Hazitegiko Alex Barandiaranek eman dizkigu argibide gehiago.

### Zer aurkituko dugu bi liburuotan?

0-6 urte bitarteko gizakia ulertzeko mapa bat aurkituko dugu eta horretan oinarrituta haurraren garapenari erantzungo dion haur eskolarako proposamen bat. Haurrari buruz jakin nahi duen edonorentzat dira liburuok. Hezkuntza komunitaterako pentsatuta daude; hau da, ikasle, irakasle, guraso eta haurtzaroaren inguruko profesionalentzat. Modu didaktikoan egiten saiatu gara, egoera errealak, hausnarketarako galderak, jarduerak, planoak, ilustrazioak eta abar erabiliz...

### Gurasook zer-nolako ezagutza dugu?

Ikusten dugu jendeak ez duela haurra egoki ezagutzen, eta zaila egiten zaio haurraren jokabideak ulertzea; ez du erreferentzia garbirik. Unibertitate moduan azken ezagutza zientifikoa ematea dagokigu guri.

### Ikerketa enpirikoak egiten dira?

Etengabe, baina gehienak Estatu Batuetan. European gutxiago, Estatu espainolean apenas eta Euskal Herrian ere oso gutxi. Gu gabilta horretan, adibidez, abenduan, Hazitegiko Elena Lopez de Aranak tesi bat aurkeztuko du 0-3 urteko haurrekin eta estresaren hormona esaten dioten kortisolarekin egindakoa.

### Zein da Hazitegitik egiten duzun hezkuntza proposamena?

Alderdi teorikoa aplikatzea zaila da, baina egin daitekeela uste dugu. Arkitektura aldetik gela kontzeptua puskatzea proposatzen dugu. Espazio diafanoak edo irekiak planteatzen ditugu, eta testuinguru familiarra izatea proposatzen dugu. Hau da, eskola erraldoiaren orde koordinatuta dauden eskola unitate familiar txikiak.

0-6 urte bitarteko haurrek segurtasuna behar dute eta hori da bidea; eskola etxearen jarraipena izatea. Espazio komunak egon daitezke — jangela, irakasleena gela, gurasoen txokoa — baina ezin ditugu familiak eta umeak erleak moduan pilatu.

### Eskola txikien eredia da hori.

Asko hurbiltzen da. Nire ustez eskola txikiak halabeharrez sortuak izan dira. Guk hemen justifikatu egiten dugu eredu hori.



Hazitegiko koordinatzaile Alex Barandiaran, liburuak eskuan. | L.Z.

### "Unibertitate moduan azken ezagutza zientifikoa ematea dagokigu"

### Bestelako aldaketak ere proposatzen dituzue.

Beti ere 0-6 etaparentzako 'irakaslea/nire taldea' kontzeptua ere apurtzea proposatzen dugu, eta talde berean adin ezberdinetako umeak etengabeko elkarrekintza egotea. Umeek eskolan askatasun gehiago behar dute zer egin nahi duten erabakitzeke. Dena programatzen diegu eta programazioa betetzera goazenean haurrak pasiboak eta gu sarkorrak izan gaitezke.

Premiazkoa ikusten dugu umeekin sentikorrak izatea; garapen osasuntsua izateko klabea da umeek lotura seguruak erakitzea. Irakasle eta guraso sentikorrak behar ditugu eta horren inguruko programa bat garatzen ari gara Huhezin.

### Zer da heldu sentikorra izatea?

Umearen seinaleak identifikatzea eta erantzun egokia ematea. Zer gertatzen da gaur egun prestatu-

### "Premiazkoa ikusten dugu haurrekin sentikorrak izatea"

tako egitaraua betearazten diegunean? Sarkorrak bihurtzen garela. Ordua iritsi delako eten egiten dugu jarduera bat, umea kontuan hartu gabe.

Ikusi dugu irakasle batzuk oso sentikorrak direla, baina egitarauak bultzatuta sarkorrak bihurtzen direla. Askotan programazioa betetzean dago sarkortasuna. Sentikorra izatea da momentu jakin batean programazioa aldatzeko erabakia hartzea, malgua izatea, ikusten dugulako ikasleen egoera — nekea, motibazio falta... — ez dela behar den modukoa. Sentikorra izatea da nork bere buruari esatea; "Gauza bat neukan planifikatuta, baina ezin dut burutu eta aldatzera noa". Enpatikoagoak izan behar dugu bai irakasleok bai gurasook.

### Aniztasuna errespetatzeko beharra ere nabarmentzen duzue.

Bai, gaur egun ez dugu errespe-

tatzen. Talde homogeneous egiteko umeak adinka sailkatzen ditugu eskolan. Zer gertatzen da? Batzuekin ondo joan daitekeela, baina beste batzuekin sarkorrak gara. Homogeneizatzea irakaslearentzako errazagoa da, baina ez aberatsagoa; aberastasuna desberdintasunean dagoelako. Gainera, ez dugu helburua guztiz lortzen adin berekoen artean ere aniztasun handia dagoelako. Horrekin batera autoritate kontuak nahasten ditugu... Errutina behar dute umeek, baina malgutasun baten barruan.

### Zaila ikusten dut hezkuntza proposamen hori gauzatzea.

Nik uste dut posible dela; zenbait gauza egin daitezkeela. Nahi duguna da gure ikasleek bide horretan ahalegina egitea, eta gaurko irakasle-hezitzaileei ideiak ematea. Posiblea da ikuspegi tradizioaletik aldatzea; etxe honetan, esaterako, hala egin dugu Mendeberrri gure Hezkuntza Proiektuaren bidez. Haur eskolara eskola tradizionalaren planteamendu guztiak — akademikoak, antolakuntzakoak... — eraman ditugu, baina ez ditugu adin horretako haurren beharrak eta ezaugarriak kontuan hartu.

Egiten dugun hezkuntza proposamenak lan asko exijitzen du, zailagoa da irakasle-hezitzaileendako. Lan egiteko beste modu bat planteatzen dugu. Berez, planteamendu didaktikoaren berri-kuspena suposatzen du.

### Umeen motibazioa lortzea ere ezinbestekotzat jotzen duzue.

Bai. Umearen esplorazioa aktibatzeke bere interesa piztu behar dugu. Eta interesgarria irudituko zaio bere garapen prozesuarekin bat egiten duen horrek. Esaterako, dinosauroek arrakasta handia dute txikien artean; euren beldurrekin eta beharrekin ondo konektatzen dute. Umeen beharrak gehiago hartu beharko genituzke kontuan.

### Ebaluaketaren inguruan ere oso ikuspuntu berritzailea duzue.

Bai. 0-6 etapan zer da ebaluatu behar duguna? Tradizionalki umea ebaluatzen dugu, baina gure ustez kontradikzio bat da hori.

Umearen hazkundea bere testuinguruaren arabera garatzen bada, umearen testuinguru da ebaluatu behar duguna. Umea haritz ederra izateko hazia da, baina sartzen dugun testuinguruaren arabera izango da bere garapena. Umeak maitasuna, jolasa, harremanak... behar ditu. Gure buruari galdetu behar dioguna da zer egiten dugu hori horrela izateko. Ze espazio eskaintzen dizkiogu jolaserako, ze maitasun ematen diogu?... Umearen lorpenak ebaluatu beharrean testuinguru da ebaluatu behar duguna. Eta ez ditugu umeak arrakasta edo porrot egoeratan jarri behar. Auto-estimua landu behar dela esaten digute behin eta berriz; ba ez jarri 0-6 urteko umeak porrot egoeratan.

## Ahots edo disfonia arazoak umetan

L.Z. | ARRASATE

Maidar Egino logopedak disfonia izan du hizpide *Guraso.com* atarian. Azaldu du disfonia funtzionala edo organikoa izan daitekeela. Funtzionala da ahotsaren erabilera egokiaren ondorioz sortzen denean eta organikoa, berriz, arazoa anatomikoa —noduluak edo polipoak— denean.

Jatorria hereditarioa izan daiteke, baita ikasitakoa, umeak, imitazioz, ahotsa erabiltzeko patroia ezegokiak ikasi baditu. Garrasi asko egin izanarekin lotzen dugu disfonia —futbol partidu bat ondolik edo udalekuetatik bueltan— eta ohikoa da mina izatera iritsi arte disfoniari garrantzi handirik ez ematea. Baina ahotsa gal dezakegu arnaske-ta arazoak ditugula edo arazo psikologiko baten ondorioz.

Medikuak egiten du diagnostikoa eta tratamendua otorrinolaringoloaren eta logopedaren ardura da. Eginok dio gurasoen lana ezinbestekoa dela ahots heziketan.

## Lanaldi murriztua eta krisi ekonomikoa

L.Z. | ARRASATE

Lanpostua galtzeko arriskua gero eta handiagoa den honetan, zenbat gurasok egiten diote uko lanaldi murrizketa eskatzeari? *Consumer* aldizkariaren esanetan, *Todoexperts* eta *Laboro* atarietara gaiaren inguruan egindako kontsulta kopuruak erakusten du egoera hori ere badagoe-la.

Legez 8 urtetik beherako umeak dituzten gurasoek lanaldia %12,5 eta %50 arte murrizteko eskubidea dute eta trukean soldataren kopuru proportzionala bakarrik galduko dute. Ez hori bakarrik. Ohiko ordutegiaren barruan zein ordutegirekin lan egin nahi duten erabakitzeke eskubidea ere badute langile horiek. Enpresek gero eta gehiago errespetatzen dute eskubide hori, baina badira oraindik ere langileen eskakizunak handiegiak direla-eta epaitegietara jotzen dutenak. Legea langilearen alde dago.



# KULTURA



Euskal Herriko pailazo ezagunenek gorputza astindu eta astinduarazi zuten zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL

## Koloretako zurrunbiloak ia behera bota zuen Eskoriatzako kiroldegia

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek azken lana estreinatu zuten zapatuan

TXOMIN MADINA | ESKORIATZA

Berriz ere etorri ziren, eta berriz ere galanta egin zuten. Ohitura bihurtu den legez, Eskoriatza aukeratu zuten Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Zazpikoloro*

izena duen euren azken lana estreinatzeke eta lortutako arrakasta ikusgarria izan zen. Ikusleek, sarrera eskuan izanda ere, ilara luzeak sortu zituzten kiroldegiko sarreran ikuskizuna hasi

aurretik. Kiroldegia goraino betetzen eta dena hasteko minutu gutxi falta zirela, urduritasun eta zirrara aurpegiak ziren nagusi txikienen aurpegiatan. Aurpegiez ari garela, egon zen berea

Pirritxek edo Porrotxek bezala margotu zuenik ere.

**Aniztasunaren alde**

Indartsu hasten da Euskal Herriko pailazo arrakastatsuenen azken

ikuskizuna: musika martxosoarekin eta kolore askotako banderak astinduz. Eta hain zuzen ere horixe da ikuskizunak irauten duen ordubete inguruan kontaktzen zaigun istoriaren mamia; aniztasunarekiko, ezberdinak direnekiko onarpena eta errespetua. Gai serioa, baina umore izpirik galdu gabe lantzen dutena. Umore kontuetan, nola ez, paper garrantzitsua dute Porrotxek eta bere puzkerrek.

Pertsonaia berriak ere aurkeztu zituzten zapatuko emanaldian. Hala, Patakon bihotz oneko lapurra ezagutu genuen, baita, hasiera baten behintzat, maltzurra den Belekoi Anderea ere.

**Denak gorputza astintzen**

Zoramena baina, bukaera aldera etorri zen, kiroldegi guztia dantzan jarri zenean. Agertoki gainean, pailazoak eta euren lagunak; agertoki behean, ehundaka neska-mutiko eta guraso. Askok dagoeneko buruz dakizkiten abestiak kantatu eta dantzatu zituzten; besteak beste dagoeneko klasikoa den *Maite zaitut*, zapatuan galegoz, katalunieraz eta euskaraz abestu zutena.

Hasi zen bezala, ilarekin amaitu da ikuskizuna. Izan ere, Pirritx, Porrotx, Marimotots eta tropa guztia euren lagunekin elkartu ziren besarkadak eman, argazkiak atera eta marrubizko muxuak banatzeko. Esandakoa: berriz ere etorri ziren eta berriz ere galanta egin zuten.



**GARAZAI IGLESIAS ETA LEIRE LEZETA**  
ESKORIATZA

"Aspalditik geneukan Pirritx, Porrotx eta Marimototsek prestatutako ikuskizun berria ikusteko gogoia, eta polita iruditu zaigu. Bukaeran kantatu dituzten abestiak gustatu zaizkigu gehien, denok dantzan jarri gaituztenekoak. Orain ez, baina lehen entzuten genituen euren diskoak-eta etxean".



**EÑAUT LASAGA**  
ARRASATE

"Gaurko ikuskizunetik dena gustatu zait; dantzan eta kantuan ere ibili naiz apur bat. Etxean ere entzuten ditut; piraten abestia da gehien gustatzen zaidana".



**ASIER GUENETXEA**  
ARETXABALETA

"Umeendako ikuskizunak izan arren, gurasook ere gustura egoten gara; musika eta abesti oso politak dituzte. Gaurkoan ere ibili gara kantuan eta dantzan".



**GERARDO AMOZARRAIN**  
ARRASATE

"Ilobak zaintzera etorri naiz eta neuk ere ez dut gaizki pasatu atsegina iruditu zait. Musikarekin eta dantzeekin oso ikuskizun ona prestatu dute, orekatua".

Aurtego Azokan **GUNE BERRIAK**: Aretoa, Ahotsenea, Haur Literatura Aretoa, Kabi@, Irudienea eta Szenatokia. 200 ekitaldi baino gehiago, jai-giroa... **GUZTIA DURANGON!!!**

# ZATOZ AZOKARA

Abenduaren 4tik 8ra



**46**  
**DURANGOKO**  
Euskal Liburu  
eta Disko  
Azoka

2011ko abenduaren 4tik 8ra



Lac La Belle bikotearen kontzertuko une bat. | T.M.

## Folk eta country doinuen gaua izen zen egubakoitzekoa Arrasaten

Petti beratarrak eta Lac La Belle bikote estuatubatuarrak kontzertua eskaini zuten egubakoitzean Gaztemaniak! ekimenaren eskutik

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Pettik eman zion hasiera Arrasateko Amaia antzokiko atondoan egindako kontzertuari. Xabi donostiarrarekin jotzekoa zen arren, azkenean bakarrik aritu behar izan zuen. Dena dela, gogoangarria izan zen emanaldia: ahots sendo, limurtzaile eta tarteka urratuarekin eta gitarra maisuki astinduta. Bere abestiak jo zituen, baita *Amaiur gaztelu baltza* eta Ruper Ordorikaren *Ene begiek* piezen bertsoak ere.

Bukaera aldera, Andoni Zubiaga arrasatearrarekin Gosereren *Surik bai* jo zuen eta amaitzeko, Eñaut Zubizarreta eta bere txeloa batu zitzaizkien, *Noiz arte justiziarik gabe* disko argitaratu berrian sartu duten abestia jotzeko.

### Atlantikoaren beste aldetik

Pettiren ostean, Jennie Knaggs eta Nick Schillace estatubatuarrek osatzen duten Lac La Belle bikotearen folk eta country doinuen txanda izan zen. Gitarrez gain,

banjoa eta mandolina ere erabili zituzten, baita akordeoia ere. Aipatzekoa da Schillacek tarteka erabili zuen altzairuzko gitarra, 20ko urte ingurukoa.

Ama eta maitemindu berri den alabaren arteko harremanari edo etxera bueltatzeari buruzkoak kontatu zituzten kantu bidez, eta aipagarria izan zen Oklahomako landa guneei eskainitako pieza. Ezin utzi azpimarratu gabe Jennie Knaggsen ahotsa, beharren arabera leuna edo indartsua.

## Debagoiendarrak zorte barik Kantu Txapelketako finalean

Esku hutsik bueltatu ziren ibarretik Donostiara joandako bederatzizko parte-hartzaileak

T.M. | ARRASATE

Bederatzi bakarlarari, sei bikote eta bi talde ibili ziren atzo nor baino nor Donostiako Antzoki Zaharrean jokoan egon zen XV. Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako finalean. Ikusmin handia piztu zuen gainera finalak, aretoa bete egin zen-eta. Finalean parte-hartu zuten debagoiendarrek baina, esku hutsik bueltatu behar izan zuten etxera.

### Alegiakoak onenak

Taldeka Bergarako Nau eta Alegiako Keiran aritu ziren eta azken hauek izan ziren irabazleak. Bikoteen mailan Arrasateko Maialen Arratibelek eta Eneritz Urrutiak hartu zuten parte, baina Alegiako Nora Salvador eta Marta Olea gailendu ziren. Josu Zubia oñatiarra eta Sara Manzano bergararra bakarka lehiatu ziren, baina saria Jon Antzarentzat izan zen.

## Atera berri duten azken lana etxean aurkeztu zuten Klak!sonekoek

T.M. | ANTZUOLA

Aspaldian jo barik egon ostean, euren herria aukeratu zuen Klak!son talde antzuolarrak atera berri duten diskoa aurkezteko. Torresoroa aretoan izan zen kontzertua egubakoitz gauean, eta 60-70 lagun joan ziren bertara.

azken diskoko zazpirak eta aurreko lanean jaso zituzten bostak. Hamahirugarren abesti bat ere eskaini zuten: askotan jo izan duten Itoiz talde ahaztezinaren *Foisis jauna*. Tarteka, kantutik kantura, disko berriaren nondik norakoei buruzko azalpenak eskaini zizkieten entzuleei.

Kontzertua emateaz gain, disko berria ere salgai jarri zuten Torresoroan eta taldeki-deak pozik zeuden, 42 ale saldu zituzten-eta.

### Dozena bat abesti

Eurenak diren dozena bat abesti jo zituzten antzuolarrek: *Zai At Devo City* izena duen euren



Torresoroan jo zuten egubakoitzean Klak!sonekoek. | JOSETXO ARANTZABAL

## 'La revoltosa' izan da orain arteko zarzuelarik arrakastatsuen

T.M. | ARRASATE

Inoiz baino jende gehiago erakarri du Izaskun Murgia elkarre lirikoak eta Arrasate Musika-orkestrak azken bi aste-buruetan eskaini duten *La revoltosa* zarzuelak. Elkarteko zuzendari Tere Gonzalezen esanetan, lau emanaldietan 2.500 ikuslek ikusi dute zarzuela. "Bigarren astebururako sarrerak, aurreko eguazten goizean agortu ziren, eta hori ez zaigu inoiz ere gertatu", zehaztu digu. Gauzak horrela, ez dute baztertzeko datorren urtean emanaldi bat gehiago egitea.

Gonzalezen esanetan, arrakasta ez da zenbakietara mugatzen: "Batek baino gehiagok esan dit profesionalak ematen dugula, eta horrek bete egiten zaitu". Elkarteko zuzendaria gainera, oso gustura agertu da zarzuelan parte hartu dutenen lanarekin, bere esanetan ez ditu-eta inoiz hain inplikaturik ikusi.

### Datorren urteari begira

Datorren urteari dagokionez, Gonzalezek iragarri digu bere asmoa dela *El rey que rabió* izatea agertokira eroango duten zarzuela.



ARANTZAZU EZKIBEL

**'Gerrako ipuinak' liburua kalean da**

Gerrako ipuinak liburua eta Noiz arte justiziarik gabe CDa eskuragarri daude dagoeneko. Liburuak, Sunti Amilibia donostiarrak idatzitako eta benetako istorioetan oinarritutako lau ipuin jasotzen ditu eta Noiz arte justiziarik gabe diskoarekin ipuinei musika jarri diete bost taldek. Gose; Anger; Andoni, Petti eta Eñaut Zubizarreta; Xarma; eta, Bide Ertzean dira abestiak egin dituzten taldeak. Lanok Txukun fotokopia dendan eta Eroski kanpoko estankotan erosi daitezke.



Afaldu ostean hasi zuten Bertxoko sariketaren finala. | JOSETXO ARANTZABAL

# Peio Ormazabalek irabazi du 2011 Bertxoko sariketa

Nahiz eta finalerako herriko bertsolaririk ez sailkatu, giro paregabea izan zen Iturrieta sagardotegian

ANDER MONEDERO | ARAMAIO

Egubakoitz gauean, Hala Beti irratiak eta Arabako Bertsozale elkarteak antolatzen duten sariketaren finala jokatu zuten Aramaio Iturrieta sagardotegian. Bertxoko sariketa, bertsolari gazteentzako tranpolina den lehia-keta da eta, aurtengo irabazlea Peio Ormazabal arrigorriagarra izan da.

Aramaio finalean, Ormazabalekin batera, Ekaitz Samaniego eta Ander Solozabal gazteztarrak, Ane Labaka lasartearra, Izar Mendiguren laudioarra

eta Manex Mantxola urretxuarrak aritu ziren.

Saioa hasi baino lehen, afaria egin zuten Aramaio Iturrieta sagardotegian eta, bertan, 70 bat pertsona izan ziren afaltzen. Afalostean, sabela ondo beteta –kantuan egiteko eskertzen dena–, bertsu saioa hasi zuten. Ondoren, umorez betetako saioa eskaini zuten bertsolariek.

**Etxeko ordezkariak, entzule**

Egubakoitzeko finalean ez zen Aramaio bertsolaririk izan. Txapelketan Xabi Igoa eta Paula

Amilburu bertsolari aramaioarrek parte hartu zuten, baina bietako inork ez zuen lortu finalerako txartela.

Amilburuk azaroaren 11n Kanpezun (Araba) egin zen finalurrekoan izan zen, baina Labakak eta Solozabalek lortu zituzten finalerako bi txartelak.

Igoak, berriz, azaroaren 18an Agurainen jokatu zuten finalurrekoa, eta bertan, Mendigurek eta Mantxolak lortu zuten finalerako txartela. Txapelketatik kanpo egonda ere, bi bertsolariek finala jarraitu zuten.

Aser Polvorosa | Germinal fanzinea

## "Fanzineak literatura eta kultura baino gauza gehiago ditu"

'Germinal' fanzinearen bigarren alea aurkeztu zuten egubakoitzean Bergarako gaztetxean.

ANDER MONEDERO | BERGARA

Egubakoitz iluntzean, Bergarako gaztetxean *Germinal* fanzinearen bigarren alea aurkeztu zuten. Aurkezpenean, musika eta jantzia ez ziren falta izan eta gauean Fuego inna Hernani Dancehall Reggae Sound System taldeak jo zuten.

**Fanzinearen bigarren alea aurkeztu duzue. Zelako harrera izan du?**

Ekitaldiak harrera ona izan duela uste dut, izan ere, aurkezpenean, 40 bat lagun elkarrekin ginen.

**Zenbatero kaleratzen duzue fanzinea?**

Ez dugu epe finkorik. Hurrengo astean, fanzinea egiten dugunok bilera bat dugu gai honi buruz hitz egiteko. Bertan, *Germinal* zenbatero kaleratuko dugun erabakiko dugu, bi hilabetero, sei hilabetero... Ez dakit noiz kaleratuko dugun hirugarren zenbakia, baina jarraitasun bat finkatu nahi dugu.

**Parte-hartzea librea da?**

Bai, edonor etor daiteke fanzinearen inguruko bilerara. Parte hartu nahi duenak bileretara etorri besterik ez du.

**Zenbat pertonek parte hartzen dute *Germinal*-en?**

Momentuz, bost pertsona gara fanzineko lantaldean, baina, esan beharra dago, gaztetxeako Angiolillo liburuegiaren ardurak ere badugula. Gaztetxeako liburutegian elkartzen gara, batzuk fanzinean lan gehiago egiten dugu, eta beste batzuk, batez ere, liburutegiaren kudeaketaz arduratzen dira.

**Noiz kaleratu zenituzten aurreko zenbakiak?**

*Germinal*-en zero zenbakia 2010eko jaietan kaleratu genuen, eta urte berdineko inuxente egunean, abenduaren 28an lehenengo alea kaleratu genuen.

**la urtebete pasa da lehenengo zenbakia atera zenutenetik. Zergatik hainbeste denbora?**

Gauza asko daude egiteko eta martxa hartu beharra dago. Arrazoi ezberdinengatik gertuta egon gara, baina, orain indarberrituta gatoz.

**Zer aurki genezake bigarren zenbaki honetan?**

Literatura, kultura... gaiak aurki daitezke, baina ez hori bakarrik, bizi dugun egoerari buruz eta Bergara edo gurean gertatzen diren gauzei buruz hitz egiten dugu. Ale honetan, soziologo bat elkarrizketatu dugu, ipuin bat, musika talde bat ere elkarrizketatu dugu, Kukutzari buruz ere hitz egiten dugu...

**Teknologia berriak ere erabiltzen dituzue?**

Bai, interneten *Germinal* fanzinearen lehenengo bi aleak, zero eta bat, irakurtzeko aukera dago eta laister bigarrena ere izango da. Ez hori bakarrik, liburutegiko hainbat liburu ere sarean jarriko ditugu.

**"Fanzinean parte hartzea librea da, bilerara etorri besterik ez dago"**



Beñat Gaztelumendi eta Alaia Martin zapatuko bertso saioan. | JOSETXO ARANTZABAL

## Beñat Gaztelumendi, Gipuzkoako txapelketaren finalera

Beñat Gaztelumendi bertsolari donostiarra irabazi zuen G-puntuaren Gipuzkoako txapelketa. Hala, lehenengo finalurrekoa eta abenduaren 18an jokatu duten finalerako txartela lortu zuen Uarkapeko pilotalekuan.

Epai-mahaiak lan handia izan zuen, izan ere, lehenengo postutik laugarrenera 30 puntuko

aldea izan baitzen. Gipuzkoako Bertsozale elkarteak ariketa berri asko sartu ditu txapelketan, zapatuko saioa, esate baterako, kartzelako ariketa batekin hasi zuten. Lehenengo finalurreak ikusmin handia sortu zuen, izan ere, zapatu arratsaldean mila lagunek jarraitu zuen saioa Uarkapen; goraino bete zen pilotalekua.

Aser Polvorosa *Germinal* fanzineko zenbaki berriarekin. | JOSETXO ARANTZABAL

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

### ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otorala lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

### ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

### BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Arte kale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

### LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe  
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

### TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11  
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

### GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

### GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe  
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

## GURE MUSIKA TALDEAK

## GOVERNORS



Governors taldeak 'Collage' diskoa aurkezteko atera duen promo argazkia. | GOVERNORS

# "Ez zaizkigu gauza markatuak gustatzen; esperimentatu eta mugitu egin nahi dugu"

- ▶ Urtarriletik aurrera, Yago Goronaetak hartuko du Keuren errelebu
- ▶ Abenduaren 3an eskainiko dute lehen zuzeneko, Durangon

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Governors talde arrasatearrak ez du atsedetik hartu. *Frenetikodrome* diskoa astindu ostean, berriro dator *Collage* aurkeztera. **Kolaborazio askoko lana da?**

Beste jende baten ikuspuntua jaso gura izan dugu. Abesti bat eman eta geure musikak zer iradokitzen zien jakin nahi genuen. Mikel Etxaburuk kartzelatik idatzitako *Zu orain txoria* eleberrian ere oinarritu gara; bertako letrak, testuak erabili ditugu. Fredi Paia eta Amets Artzallusen berbak ere jaso ditugu. Diskoak dioen moduan, collage bat izan da.

**Bederatzi abestiko lana da.**

Denetik. Governors azken bi diskoekin identifikatzen duten abestiak daude; baita oso ezberdinak diren kantuak ere. *Larru azaletan* kantuak oso hasiera elektronikoa

dauka eta jendeak ez du Governorsekin identifikatzen. Baina jendea harritu nahi genuen eta beste zerbait esperimentatu, ebo-luzionatu egin nahi genuen. *Herrien arteko lo kanta* apurtzailea da egiten dugunarekin alderatzen badugu. Oso kuru ezberdinak ditu eta zati melodikoa asko urruntzen da egiten dugunetik. Ez zaizkigu gauza markatuak gustatzen; mugitu eta esperimentatu egin nahi dugu.

**Mackfarland-en kantu bat ere euskaratu duzue.**

Mackfarland IRAko komandantea izan zen hamar pertsona hil ziren gose greba hartan. Oso istorio gordina bizi izan du. Egun, Mackfarland musikari moduan dabil zuzenekoak eskaintzen. Letra politikak, hunkigarriak ditu. Irlandako kontaktu baten bitartez

baimena eskatu genion. Gainera, ingelesez sartu du errezitaldiaren pasarte bat.

**Laboari omenaldia.**

Fredi Paia, Mikel Laboa hil zenean, artikulu bat argitaratu zuen *Berria*-n: *Mikel Snake*. Laboak Artzeren letraz egindako kantuan oinarritu zen Paia. Guk testu horretatik ideia hartu gura izan dugu; Paiaekin hitz egin eta hala egin genuen abestia.

**Haritz Harreguyekin berriro.**

Haritzekin oso erraza da lan egitea. Askok gustatzen zaigu entzuten duen musika estiloa. Ekonek garaian ere zuzenekoak egin genituen. 1995a ezkerro egin dugu lan harekin, pentsa! Musikarekiko duen ikuspuntua gurearen oso antzekoa da.

**Melodikoagoa, gordinagoa da?**

Jendeak melodikoagoa dela dio

eta egia da guk beti izan dugula melodia. Azkenean, gustuen kontua oso pertsonala eta zaila da. Batzuek gogorragoa da, beste batzuek melodikoagoa. Aniztasun handiagoa du lan honek, muturreko diskoa da *Frenetikodrome*-rekin alderatzen badugu, estilo gehiago ditu.

**Joserra Senperenaren laguntza ere izan duzue.**

*Introa* egin eta soinuak lagundu digu. Sekulako ibilbidea eta ikuspegia dauka; pila bat ikasi dugu. Mikel Erentxun, Fito... musikari askorekin lan egin du. Oso pertsona umila eta gertuko da; gustura egin dugu lan Senperenarekin.

**Keu Badoa eta Yago sartzen da.**

Keu urtebeterako etorri zen eta dagoeneko urte eta erdi egin du gurekin! Diskoa egiten lagundu digu eta badoa. Oso gustura dago, baina lana eta familia ezingo ditu Governorsekin bateratu. Yago ordezkari naturala da. Ekonek garaitik ezagutzen dugu eta zuzeneko *haragia* da. Urtarriletik aurrera dena emango duen zalan-zarik ez daukagu.

**Zuzenekoan berriro harrituko gaituzue?**

Ez izan zalantzarik! Dena ezberdina izango da; hala ere, suak mantenduko ditugu. Bestelako eszenografia dugu eta txunditzen saiatuko gara. Ez gara Ramstein, baina ikuskizuna bermatuta egongo da.

**Agenda bete-beteta duzue.**

Abenduaren 3an Durangon izango gara; 11n Irunen; eta Keuri agurra abenduaren 30ean, bere etxean, Ondarroan egingo diogu. Eta urtarrilean 15 eguneko atsedena; gero, otsailera arte beste bost zuzeneko lotu ditugu. Ilusioz eta zuzenekoan gosez gaude, has-teko desiatzen!

## ZERTZELADA



COLLAGE

**Estiloa:** Rock, pop, metal, stoner, punk-rock...

**Egilea:** Governors.

**Argitaletxea:** Mauka.

**Iraupena:** 39,5 minutu.

Sentsazioz betetako lan hunkigarria

Governorsek, oso talde gutxi bezala, melodiaren eta musika gogorrenaren arteko oreka ia ezinezkoa bermatzen du beti. Oraingoan, gainera, muturrak are eta gehiago aldendu dira. Izan ere, badira heavy-rockaren tamainako indarra eta gitarrak dituzten kantuak, eta baita pop-rockak presentzia izugarria duten piezak ere. Hor tartean, baina, bestelako kolore eta sentsazioak aurki ditzakegu: Eskandinavia inguruko sugarrak dituen punk-hard-rocka, metalaren oinarri indartsua, elektronika dantzagarria, folkari hurbilketa eta beste.

Oso kontuan hartzekoa da baita musikan (Keu, Joserra Senperena...) eta batez ere hitzetan jaso duten luxuzko laguntza; asko dira aipatzekoak, baina nik batez ere Amets Arzallusek idatzitako 'Larru azaletan' pieza nabarmenduko nuke sinesgarritasun handiz deskribatzen duelako abestea zer den.

IKER BARANDIARAN

## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Arrasate.** Uriburu kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldia, egongela, komuna eta despentsa. Berogailua. Barrutik eta kanpotik berritua. Ikuspegi ederra. Unibertsitatetik gertu. 153.000 euro. 615 71 86 84 edo 645 00 89 97

**Bergara.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Toki Ederren. Terraza handia. Bi logela, egongela, bainugela handia eta komuna. Igogailua eta berokuntza zentrala. Seigarren solairuan. 191.000 euro. 670 55 87 41

**Bergara.** Etxebizitza salgai San Pedro kalean. Bi logela. Ganbara. Egoera onean. 155.000 euro. 671 84 15 63

**Bilbo.** 2012ko urtarilaren 6tik ekainaren 30era bitartean gure etxea alokairuan jarriko dugu. 2 logela, komuna, sukaldia-egongela-jangela ditu. Gas bidez berotzen dira ura eta berogailuak, sukaldia beharrezko elektro-gailu guztiak ditu. Aurtun berri-tutako pisua da. Gela guztiek dute leihoa, dela patiora dela kalera. Egongelako zatiak eta logela txikiak bakoitza dute Artxandako ikuspegi ederrenantz. Etxea ikusi nahi izanez gero, bota e-mezu bat.

**Donostia.** Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det donostian, antiguo auzoan bertan. Persona batentzako egokitua, bi planta dauka eta kotxea sartzeko aukera dago. Eguskitzua da eta lasaia. Prezio 550 euro. 609-48 11 24.

**Elorrio.** Elorrio etxea errentan. Harremanetan jartzeko deitu ondorengo telefono zenbakira: 695-78 27 86.

**Iurreta.** Gelak alokatzen dira maspe kalean, abendutik aurrera. 687-58 66 37.

**Oleta.** 5 urteko etxe bakarra salgai. Lursaila dauka. Bizitzera joateko prest dago. Prezio interesgarria. Etxea trukatzeko ere aukera egon daiteke. Idatzi camilabagues@gmail.com helbidera edo deitu 945 45 05 15 edo 645 73 82 31.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Biteri kalean, Grupo San Juanen. Hiru logela, sukaldia, komuna eta egongela. Ganbara. Jantzia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 60543 29 31.

**Arrasate.** Musakolan etxebizitza ematen da errentan. Bi logela. Prezio interesgarria. 645 72 53 51.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bikote arduratsua gara, lanean diharduguna. Etxebizitza behar dugu errentan, epe luzerako. Bi logelakoa gutxienez. 662-66 34 20.

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan erdigunean edo San Andresen. 610-82 02 17.

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. 500-600 euro ordaintzeko gertu nago. Brigitte Castro. 664-51 64 98.

**Bergara.** Bertako bikoteak etxebizitza behar du errentan. Hiru logelakoa, ahal bada. 675-62 30 03 / 651-56 55 30.

**Durangaldea.** Pisu bila nabil Durango, Iurreta edo Elorrio. Deitu 603-07 16 26 telefono zenbakira.

**Durangaldea.** Pisu bila nabil Durango edo inguruetan. Persona arduratsua. Deitu 617-86 00 55 telefono zenbakira.

## 105. ETXEA OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 73 66 54

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean pertsona bakarrarentzat. 657-55 81 15, 648-86 05 49.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean, unibertsitatetik gertu. Erosia eta handia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645-01 05 84.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan, erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. Mutila bada, hobeto. 688-69 64 90.

**Arrasate.** Arrasaten logela ematen da errentan San Andresen. Erosia eta handia. 617-98 78 67.

**Arrasate.** Pisukide bila nabil. Erdigunean dago etxea. lone. 636-05 36 18.

**Bergara** edo inguruan errentan hartzeko logela bila nabil. Mutilanaiz. Lehenbailehen hobe. 672 68 57 77

**Debagoiena.** Erasmus ikasleentzat logelak. Otsailaren 1etik ekainaren 30era etorriko diren erasmus ikasleentzat logelak behar dira debagoiengan. 600-04 76 38.

**Durango.** Logelabat alokatzen da komun pribatuarekin Ibaizabal auzunean. 652-86 57 80.

**Durango.** Pisu konpartitzeko lagun baten bila nabil durangon. 2 komun, 2 logela, 2 egongela eta sukaldia konpartitzeko. Tel.: 650-73 87 24.

**Durangaldea.** Pisu konpartitzeko lagun bila nabil (emakumea nahiago). Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688-67 86 90.

**Erasmus ikasleentzat** logelak Otsailaren 1etik ekainaren 30era etorriko diren Erasmus ikasleentzat logelak behar dira Debagoiengan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600 04 76 38

## 2. GARAJEAK

## 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Lausitta kalean aurkitzen den garajea salgai. 676-43 28 05.

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Musakolan. Deitu 659-94 67 65 telefonora.

**Bergara.** Garaje handia salgai. 30m2ko garaje itxia, Burdinaten (konde panaderokua aldean). 24.000 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685-72 51 58.

**Berriz.** 42 m2-ko garaje itxia salgai. Ate automatikoa. Ur eta argi instalazioak iaz eginda. Komuna eta bodega txiki bat. Txoko txikia sukaldia dago. 2 edo 3 kotxe. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615-75 21 36.

**Durango.** Itxitako garajea salgai tronperri kalean, erdialdean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 628-78 78 35.

**Elorrio.** Kotxea gordetzeko garaje bilazabilza? Berrio-otxoa kalean baduzu horretarako aukera! Garaje itxia salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 658-75 92 64.

## 203. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Durangoko Antso Estegiz kalean garajea alokagai. Interesatuok telefono zenbaki honetara: 690-18 91 68.

## ZURE IRAGARKIAK

## IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagor argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

## 1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu  
102. Erosi  
103. Errentan eman  
104. Errentan hartu  
105. Etxeak osatu  
106. Bestelakoak

## 2. GARAJEAK

201. Saldu  
202. Erosi  
203. Errentan eman  
204. Errentan hartu  
205. Bestelakoak

## 3. LOKALAK

301. Saldu  
302. Erosi  
303. Errentan eman  
304. Errentan hartu  
305. Bestelakoak

## 4. LANA

401. Eskaintzak  
402. Eskerak  
403. Bestelakoak

## 5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso  
502. Eman  
503. Bestelakoak

## 6. MOTORRA

601. Saldu  
602. Erosi  
603. Alokatu  
604. Bestelakoak

## 7. ANIMALIAK

701. Saldu  
702. Erosi  
703. Eman  
704. Bestelakoak

## 8. DENETARIK

801. Saldu  
802. Erosi  
803. Eman  
804. Hartu  
805. Trukatu  
806. Galdtu  
807. Aurkitu  
808. Bestelakoak

## 9. HARREMANAK

901. Agurrak  
902. Harremanak  
903. Deiak  
904. Bestelakoak

## 10. RELAX



**Deba Garaia Inmobiliaria**

Telesforo Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

## ETXEBIZITZAK SALGAI

## BERGARA

- Sanantonabat, 75 m<sup>2</sup>, oso ondo, eguzkitsua, lorategia.
- Aranerrek, 80 m<sup>2</sup>, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m<sup>2</sup>, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.
- Burdiñate, 104 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m<sup>2</sup>, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m<sup>2</sup>.
- Martoko, 87 m<sup>2</sup>, ondo, garajearekin.
- Ibargarai, 80 m<sup>2</sup> oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m<sup>2</sup> oso ondo.
- Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m<sup>2</sup>, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 m<sup>2</sup>, berritua, prezio onean.
- Zubieta, 125 m<sup>2</sup>, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m<sup>2</sup>, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m<sup>2</sup>.
- Masterrek, 46 m<sup>2</sup>, eraikuntza berria.
- San Lorentzo. Prezio ona. Berria.
- Urteaga. Berrizteko. Prezio ona.
- Urarte (Lorentxoko), 140 m<sup>2</sup>. Berria
- Bidekurutzeta. 78 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Juan XXIII enparantza. 87 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon, San Lorentzon eta Lorentxokon.
- Lorentxokon aukera ona.
- Basarte. 69 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m<sup>2</sup>. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale. 48 m<sup>2</sup>. Apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai, 88 m<sup>2</sup>. Berria. Garajearekin.
- Fraizkoziuri, 75 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.

## ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.



Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Fax: 943 76 97 97  
www.inmokrosti.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

## Bergara:

- Burdiñate 88 m<sup>2</sup>. 3 logela eta bi balkoiekin. 195.000 €.
- Lorentxokon pisuak estrenatzeko. BEHERAPEN HAUNDIAREKIN. AUKERA ONA
- Bidekurutzetan 60 m<sup>2</sup>. Obra itxeko. Oso prezio ona.
- Masterrek 70 m<sup>2</sup>. 2 logela. Igogailua eta garajearekin
- Zubieta 240 m<sup>2</sup>, ortuarekin.
- San Antón Abad. 75 m<sup>2</sup>. Berritua. Txokoarekin, 138.233 €.
- Dr. Fleming 82 m<sup>2</sup> + kamarotea goian. Duplexa egiteko aukera.
- Mekolalde 94 m<sup>2</sup>. Berrituta. Kamarotearekin.
- Koldo Elizalde 74 m<sup>2</sup>. Oso eguzkitsua. Tximiniarekin
- Zubiaurre 82 m<sup>2</sup>. Igogailua eta berogailuarekin. 150.253 €.
- Aranerrek 80 m<sup>2</sup>. Balkoiarekin.
- San Antonio 87 m<sup>2</sup>. Erabat berritua. Oso ondo. Garaje bikoitza aukeran.
- Masterrek 88 m<sup>2</sup>. Aire girotua, oso ondo.
- Ibarra 47 m<sup>2</sup>. 2 logela. Berritua. 119.601 €.
- Cruz Gallastegi 70 m<sup>2</sup>. 3 logela. Trasteleku.
- San Lorenzo 67 m<sup>2</sup>. Garajearekin.
- Zabalotegi 54 m<sup>2</sup>. Balkoiarekin. 120.202 €.
- Martoko 60 m<sup>2</sup>. Berritua. Igogailuarekin.
- Mabiategi 75 m<sup>2</sup>. Oso eguzkitsua. Balkoi haundiarekin.
- Toki Eder Plaza. 54 m<sup>2</sup>ko apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai 74 m<sup>2</sup>. Igogailua eta garajearekin.

- Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan, San Lorentzon, Toki Ederren eta Ibargarain. Aukera ona.

## Antzuola:

- Buztinurri apartamentua estrenatzeko. Aukera ona.
- Buztinurri, Sagasti, Antigua, Zurategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aieria eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m<sup>2</sup>. Oso etxe ona.

## Soraluze:

- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Dugun eskaera dela eta etxebizitza behar ditugu alokatzeko

**Durango.** Garaje partzela alokagai Alluitz kalean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669-63 03 12.

**Durango.** Zabalik dagoen garajea alokatzen da Muruetoren. Ona eta merkea. 660-38 59 95 / 660-38 60 43.

## 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Harane Erreka edo Bolu kalean garajea errentan hartuko nuke. Arratsdez deitu mesedez. 943-76 59 94.

## 3. LOKALAK

## 301. SALDU

**Abadiño.** Matiena. 44 m2ko txoko berria salgai. Beharrezko baimen guztiak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672-25 80 41.

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Durangaldea.** Etxeko lanak egiteko andra bat behar da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 94-655 09 37

## DEBAGOIENA

Klinika laguntzailea behar da hortz-klinikan, astean 2 egunez jarduteko. 656 70 27 09

## ESKORIATZA

Zerbitzaria eta sukaldia laguntzailea behar dira tabernarako. 660 60 83 86 646 31 06 67

## 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 682-31 97 37.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu plantxa egin edo bestelako lanetarako, orduka. 699-54 17 27.

**Arrasate.** 53 urteko emakume euskalduna, lanerako gertu, ume edo nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943-79 60 89.

**Arrasate.** Erreferentzia onak dituen neska lan ezberdinetarako gertu: garbiketan, nagusiak zaintzen eta abar. Marta. Deitu 671-15 96 97 zenbakira.

**Arrasate.** Aretxabaleta eta Eskoriatza, neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomatu eta hezkuntza berezian espezialista. Deitu 600-39 47 77 zenbakira.

**Bergara.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Deitu 665-75 41 32 telefono zenbakira.

**Bergara.** Emakume euskalduna eskaintzen da lan egiteko: etxeko lanak edo ume zein edadetuak zaintzen. Interes duenak dei dezala 606-50 25 67 telefono zenbakira.

**Berriz.** Mutil gazte batek bere burua eskaintzen du lorazaintza lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652-72 38 69.

**Bergara.** Bergaran neska gazte eta euskalduna asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko prest. Bailarako edozein herritan ere egingo nuke lan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649-19 81 15.

**Bergara.** Bergarako neska gertu nagusi zein umeak zaintzen jarduteko bergara, Arrasate, Eibar edo inguruan. Irene. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 651-70 81 70.

**Debagoiena.** Sukaldari laguntzaile, etxean postrean egiten edo garbitasun lanetan lan egingo nuke. 686-66 80 63.

**Durangaldea.** Etxeko lanetarako prest. Nagusiak edo umeak zaindu edota garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Jardunaldi osoa. Erreferentzia eta esperientzia. 636-85 20 59.

**Debagoiena.** Emakumea etxean bertan bizi izaten lan egiteko gertu. 618-80 75 66.

**Debagoiena.** Emakumea gertu sukaldari laguntzaile jarduteko zein gaixoko zaintzeko. Egunez eta gauzez. Esperientzia eta informea ditut. 661-48 86 74 / 943-79 67 96.

**Debagoiena.** Sukalde laguntzaileak lana egingo luke. Deitu zenbaki honetara edo mezua utzi. 667-06 79 62.

**Debagoiena.** Asteburuetan lan egingo nuke nagusiak zaindu edo etxeko garbitzen. 699-09 46 26.

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten ere bai. 659-77 96 22 / 943-76 48 80.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka, egunez, gauetan edo etxean bertan bizi izanda ere bai. Erreferentzia onak daukat eta lanean berehala hasiko nintzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 638-93 11 48 / 943-25 01 11.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten, edo bestela. 636-78 34 90.

**Debagoiena (Gipuzkoa).** Neska gertu nagusiak zaindu edo ume zein nagusiak zaintzeko, orduka. Baita zerbitzari ere. Eskarmentuduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 674-59 85 01.

**Debagoiena.** Gizon arduratsua, legezko paperekin, prest garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko, orduka. Baita zerbitzari jarduteko ere. Gida-baimena eta autoa daukat. 677-77 22 31.

**Debagoiena.** Neska eskaintzen da debagoiengan pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Etxean bizi izaten edo bestela. Lanean hasteko moduan nago eta erreferentziak ditut. 606-62 37 82.

**Debagoiena.** Neska gertu etxean bizi izaten edo orduka nagusi zein umeak zaintzeko, edo garbitasun lanetan jarduteko. Erreferentzia onak daukat eta berehala hasiko nintzateke lanean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649-07 31 33.

**Debagoiena.** Ilkasketa soziosanitarioko dituen neska gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanetan jarduteko, asteburuetan. 649-15 72 47.

**Debagoiena.** Bertako neska, esperientziaduna, nagusiak zaintzeko gertu 14:00etatik aurrera. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637-18 07 23.

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke. Egun erdiz edo osoz. Neska arduratsua naiz. 645-01 05 84.

**Debagoiena.** Ikasketako zozio-sanitarioak dituen neska gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanetan jarduteko, asteburuetan. 649-1572 47.

**Durangaldea.** Neska gazte euskalduna umeak zaindu edota etxeko lanak egiteko prest. Goiz eta arratsalde. Esperientzia. Gabineteko pedagogikoan egon naiz laguntzen. 648-13 13 27.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko, etxe, atari eta abarrak garbitzeko, edo sukalde laguntzaile jarduteko. Gidabaimena dut. 600-81 99 34.

**Debagoiena.** Neska eskarmenduna gertu nagusi edo umeak zainduko zeingarbitasun lanetan jarduteko. 606-41 04 00.

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako. Sukaldean, garbitasunak, nagusiak zaindu eta abarretan. 610-99 70 46.

**Debagoiena.** Nikaraguako neska arduratsuan lanerako gertu, nagusiak edo haurrak zaintzen. Bergaran edo debagoiena osoan. 606-62 37 82 edo 606-54 89 90.

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Neska gertu orduka lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketako edo sukalde laguntzaile. Honetan esperientzia daukat. 659-37 41 95.

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza emakumea gertu nagusiak zaindu edota garbiketako lanak egiteko. 672-88 01 01.

**Debagoiena.** Neska arduratsua orduka garbiketako lanak egiteko gertu, umeak edo nagusiak zaintzeko eta nagusiak pasioan ateratzeko. 943-71 53 74/695-73 87 95.

**Durangaldea.** Etxeko laguntzaileak gara. Pertsona nagusiak zaintzeko prest gaude: exeko lana, zainketak, errezetak kudeatzea, gauak ospitaleetan, aseok... Durangaldean eta Bilbao. Tel.: 690-28 60 71.

**Debagoiena.** Emakumea lan egiteko gertu, umeak zaintzen, garbiketa edo dendari lanak. Orduka edo egun osoz. Erreferentziaduna. 606-72 28 76.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaindu edo garbiketako lanak egiteko gertu. Zaharren egoitzetan eta tabernak garbitzen lan egindakoa. 680-77 06 46.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, nagusiak zaintzen eta abar. Interesatuok deitu telefono honetara: 699-70 38 82.

**Debagoiena.** Garbiketako lanak egiteko zaintzen (baita gauz ere), tabernatan zein sukalde laguntzaile jardungo nuke. Deitu 943-10 96 89 telefonora.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketako egiteko eta abar. 645-67 82 24.

**Debagoiena.** Emakumea gertu edozein motako lanetan jarduteko. 610-99 70 46.

**Debagoiena.** Neska gertu sukalde laguntzaile, garbiketa, eta abarretarako. Etxean bizi izaten edo orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662-26 71 41.

**Debagoiena.** Neska gertu astean zehar orduka edo asteburuetan lan egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659-90 85 13.

**Debagoiena.** Sukaldean, nagusiak zaindu zein garbiketa lanetan jardungo nuke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 662-26 71 41.

**Debagoiena.** Mutil gazte euskalduna edozein lanetarako gertu, astean zehar zein goizez edo arratsalde, baita asteburuetan ere. 645-70 80 71.

**Debagoiena.** Lantegian, zerbitzari, kamioilari, nagusien zaintzan edo etxeko garbiketako lan egingo nuke. Anbulantzia gidari titulua daukat. Eduardo. 690 25 29 33.

**Debagoiena.** Mutila peoi lanetan, sukalde laguntzaile, taberna, garbiketa eta abarretan lanerako gertu. Andres Felipe. 632 83 45 10

**Debagoiena.** Erizaintzako laguntzaile titulua duen neska prest edozein lanetarako. Jacqueline. 650-83 66 58.

**Debadioena.** Neska garbiketako lanetarako gertu. Deitu 635-71 12 88 telefonora.

**Durangaldea.** Ordu batzuetan garbitasun lanak egiteko edota umeak zaintzeko prest. 94-681 19 98.

**Durangaldea.** Asteburuetan edo gauetan nagusiak edo umeak zaintzen edota etxeko garbiketako egiten lan egingo nuke. Tel.: 603-07 16 26.

**Durangaldea.** Ume edo nagusien zaintzarako edota garbiketako lanetarako prest. Interna edo externa. Gauz edo asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. 628-00 22 17.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua nagusien edo umeen zaintzan, etxeko garbiketako, portaletan, tabernetan... Lan egiteko prest. Orduka edo jardunaldi osoan. Erreferentziak. Tel.: 620-82 85 79.

**Durangaldea.** Bertako emakumea ume edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Goizez, arratsalde edo gauz. 94-658 33 32.

**Durangaldea.** Psikologo euskalduna ikasketarako arazoetan laguntzeko prest. Ikasketak teknikak era eskaintzen dira. Tel.: 679-38 23 69.

**Durangaldea.** Interna edo externa modura lan bila. Ume edo nagusien zaintzan edota garbiketako lanetarako. Orduka, asteburuetan edota gauz ere. Erreferentzia eta esperientziarekin. Tel.: 679-71 64 42.

**Durango.** Neska gazte euskaldunak bere burua eskaintzen du tabernari lanak egiteko, astean zehar goiz zein arratsalde, eta baita asteburuetan ere. Esperientziaduna. 615-71 62 32.

**Durango.** Umeen edo pertsona nagusien zainketarako zein garbiketako lanetarako lan bila. Jardunaldi osoan, erdian edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 638-43 79 01.

**Durango.** Lan bila nabil etxeak garbitzeko edo umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 696-75 35 30.

**Durango.** Altzarien muntaietan, igeltserotzan zein elektrizitate lanetan jarduteko prest. Esperientzia hiru esparruetan. 620-02 97 00.

**Durango.** Neska gazte euskalduna etxeko lanekin, haurrak zaindu, klase-partikularrak eman, tabernari lanekin edo tagarbitzaile lanak egiteko prest. 615-71 62 32.

**Durango.** Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. EGA eta First titulua daukat, eta farmaziako ikaslea naiz. 638-85 78 60.

**Durango.** Psikologian lizentziatua. Durangoko neska euskalduna naiz eta prest nago irailaren 20tik aurrera umeak orduka zaintzeko, goizetan zein arratsaldetan. 646-53 83 90.

**Durango.** Emakume arduratsua bere burua eskaintzen du orduka eta externa bezala lan egiteko: umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak, tabernak garbitzeko eta antzekoetarako. 670-67 46 41 (Juana).

**Durango.** Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila, interna edo externamodura, orduka zeingauz. Esperientzia askorekin eta erreferentziak. 603-95 41 94.

**Durango.** Neska euskalduna umeak zaintzeko, etxea garbitzeko zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Kotxearekin. Tel.: 664-14 69 04.

**Durango.** Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila, astelehentik ostiralera, 13:00etatik 20:00etara. Erreferentzia onak. Tel.: 650-61 01 94.

**Durango.** Andre euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. 659-08 81 85.

**Durango.** Umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lan bila. Esperientzia daukat. Orduka, jardunaldi osoan edo erdian. 616-30 04 15.

**Durango.** Neska gazte euskalduna haurrak zaintzeko prest, goizez zein arratsalde, haur-hezkuntzako ikasketak burutuak. Esperientziaduna. Interesatuok deitu: 615-71 62 32.

**Durango.** Persona nagusien, umeen edo garbiketako lanetan lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona arduratsua, esperientzia eta erreferentziak. 646-10 45 52.

**Durango.** Umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketarako lan bila. Externa, interna edo orduka. Esperientzia. Erreferentziak. 697-12 64 38.

**Durango.** Emakume arduratsua umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketako lanetarako prest. Interna edo externa. Esperientzia eta erreferentziak. 660-64 20 89.

**Gasteiz.** Gasteiz edo inguruetan lan bila nabil, edozein lan mota egiteko prest. 696-38 10 07.

**Iurreta.** 51 urteko emakume euskalduna lan bila, batez ere, arratsalde. Ume zaintzan esperientzia. 663-32 84 25.

**Oñati.** Mutil gaztea eta euskalduna. Edozein lan egiteko prest, asteko egun denetan, asteburuetan barne bai goizez edota arratsalde. 645-70 80 71.

**Oñati.** Neska etxeko lanak egiteko prest goizez edo arratsalde. Esperientziaduna. 637-11 00 56.

**Zumaia.** 3 urtetako lan esperientzia tokiko telebistan. Mota guztietako gertakari eta ikuskinak grabatuz eta hauen ondorengo edizio lanak egiten. Telebistako parrilaren jarraipena. Premier eta Encore programen ezagutzak. Kontakurako telefona: 629-11 23 11.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Durangaldea.** Batxilergoko murraketa teknikoko klaseak emateko durangaldeko pertsona bat behar da. Ingenieritzako edota arkitekturako ikaslea edo lizentziatua. 655-71 75 27.

**Durango.** Marrazketa teknikorako, algebra eta fisikarako irakaslea behar da. 659-84 17 75 edo 685-71 86 54.

## 502. EMAN

**Arrasate.** Arrasaten ingeles eskolak ematen ditut, DBH Tetik beherako maila guztietan. 688-63 80 50/943-79 55 98.

**Arrasate.** Neska euskalduna 6-12 urte bitarteko haurrei klase partikularrak emateko prest. 685-77 40 28.

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen dira. Goimailako ingeniarri-industrialak. Matematika, fisika, kimika, teknologia, marrazketa, ... Maila guztiak unibertsitate barne. 630-71 35 83.

**Arrasate.** Eskola partikularrak Arrasaten eta Aretxabaletan. Idazlea ingeleza, alemaniera eta erderako eskola partikularrak emateko prest. 660-75 22 16.

**Bergara.** Ingelesko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Cambridge edo hea azterketak prestatzeko. Bussines eta bakarkako eskolak ere bai. 618-91 32 89.

**Debagoiena.** Urte askotako esperientziadun irakasleak eskola partikularrak ematen ditu urte osoan. 943-78 28 43/635-75 71 86.

**Debagoiena.** Ingeles eta errusiera eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak prestatzeko, komunikazioa eta abar. 10:00etatik 17:00etara. 610-97 49 68.

**Debagoiena.** Italiarazko eskola partikularrak ematen ditut debagoienean. Maila guztietan eta azterketa ofizialeterako prestatuntza. 630-35 89 16.

**Debagoiena.** Informatika eskolak ematen dira. Oinarrizko maila. Programazioa. Oposizioak prestatzeko. 679-74 00 61.

**Debagoiena.** Gitarra elektriko eskolak ematen dira. Merke. Nahi izanez gero ikaslearen etxean ere bai. 679-74 00 61.

**Durango.** Fisika, matematika, marrazketa teknikoak, kimika... Fisikan lizentziatua naiz eta klase partikularrak ematen esperientzia dut. Astelehentik larunbatera, goizez 14:00ak arte, eta igandeetan egun osoa libre. 646-65 65 89 (Iagoba)

**Durango.** Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Astean zehar eta baita asteburuetan ere. Esperientzia handikoa. 653-71 24 60.

**Gipuzkoa.** Ingenieritza informatikoko ikasle naiz eta matematikako eskola partikularrak emango dizkidan pertsona bat behar dut. Eskoriatza, Aretxabaleta edo Arrasate. 605-73 71 10.

**Gitarra eskola partikularrak Durangon.** Gitarra eskola partikularrak durangon. Elektrikoa, akustikoa, rocka, bluesa, jazz, funka eta abar. Eskalak, akordeak, erritmoa, teknikak, inprobisazioa, irakurketa... 650-17 22 85.

**Oñati.** Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest, LH zein DBHko ikasleei. Interes izanez gero, deitu zenbaki honetara: 659-09 67 32.

**Trikitixako klaseak.** Trikitixako klaseak ematen ditut. 661-12 56 47.

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Mazda 626 gasolina salgai.** Autoa salgai. Mazda 626 gasolina. 120.000 km. 1.800 euro. 660-05 03 78.

**Motoa salgai.** Derbi motorra salgai. Gurpilak berriak ditu. Bete garajejan dago. Prezioa adostu daiteke. Harremanetarako deitu: 653-01 72 51.

**Seat Ibiza salgai.** Seat Ibiza 1900 tdi salgai. 5 urte. 86.000km. 100 zaldi. Beltza. 3 ate. IAT-a pasatuta. 5.000 euro. 669-83 87 68.

**Volkswagen Multivan.** TDI 2.5 110Zp salgai. Egoera onean. SS-AX matrikuladuna. 5.000 euro. 638 93 07 34

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ardi latxak salgai.** Ardi latxak salgai. Deitu telefono honetara. 943-79 62 63.

**Astoa salgai.** Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipa jarrita. 650-17 22 85.

**Bulldog fransesa.** Emea. LOEn izena emanda. Bi hilabetea eta txuri-beltza. 637 32 25 46 eta 676 55 15 46

**Ehizako txakurkumeak salgai.** Spaniel Breton-ak eta Setterrak. 150 €. 695-71 00 68.

**Txakurra salgai.** Gold Terrier bat saltzen dut. 4-5 urte ditu. Zuria. 653-72 70 18.

## 704. BESTELAKOAK

**Arratoi txakurra opari.** Arratoi txakur arra oparitzen dut. Urte bat ingurudu. 94-681 96 10.

**Arratoi txakurra opari.** Arratoi txakur emea oparitzen dut 2 hilabetea. 656-74 34 57.

**Border Collie** aurkitu dugu Oñatin. 676 98 79 07

**Pastor aleman txakurra.** Bi urteko pastor aleman txakurra, asteardean, azaroaren 15ean desagertu zen Degurixa aldean. Norbaitek ikusi badu mesedez deitu dezala telefono honetara. Sarituko da. 620 50 08 49

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Akordeoi kromatikoa salgai,** egoera onean. 943 77 16 50

**Altzariak salgai.** 1,50m-ko haritzeko ohea saltzen da, bi ohe-mahairekin batera: 400 euro. Koltxo berria: 100 euro. 6 kajoidun sinfoniera: 150 euro. Banak markako apal rustikoak: 400 euro. Mahai rustikoa: 100 euro. Tel.: 610-41 55 11

**Baxua eta amplifikagailua.** OLP Musicman erako baxua (4 soka) eta Peavey TKO 115s

Sheffield amplifikagailua (80 watt). Dena 350 euroan. Aitor. 656 41 00 35

**Biolina.** Biolina salgai, Gara 3/4 tamainakoa. Osagarri guztiak eta egoera onean. Deitu zenbaki honetara: 666 05 73 15

**Bizikleta.** BH Supra bizikleta salgai Arrasaten. Urte dezente ditu baina gutxi erabilitakoa. 45 euro. 690 19 82 79

**Bizikletarako umeen aulkia salgai.** Bizikletarako umeen aulkia saltzen dut. Ume txikiak atzean eramateko eroso. Oso gutxi erabilia. Merkea. 648-63 58 06.

**Durango.** Bulegoko altzariak salgai: mahaiak, aulkia, batzar gela... Egoera oso onean daude. 656-73 77 79

**Egurrezko sehaska.** 120x60 cm. Egoera oso onean. Koltxoia, babeslea, koskor-babeslea, oheazala eta bi izara joku. 99 euro. Arrasaten. Idatzi marysea15@hotmail.com edo deitu: 653 72 22 54

**Eskiatzeko materiala.** 10-12 urteko umearendako praktak, 36 neurrikoa, eta snow taula salgai, 1,25 neurrikoa. 656 78 64 64

**Eskia eta botak.** 3 alditan erabilitakoa. Eskia Atomic C9-1, 60cm-ko luzerakoak, kotak 104-64-94, erradio buelta: 18. Fjizioak erregulatu daitezke edozein botarako. Salomon fundarekin: 230 euro. Botak: Nordica Thermo Custom Fit (beroagoak). Flex: 50-60.4 lotura mikrometrikoko eta goiko biak makrometrikokoak. Zerbakia: 38-24. Fundarekin: 100 euro. Berri-berria dau dana. 606 21 37 18

**Estufa katalitiko.** Oso gutxi erabilia, ia berria eta bonbona barne. 80 €. 656 41 00 35

**Furgonetako jarlekuak.** Traffic furgonetako atzeko jarlekuak salgai. Hiru plazakoa da. Erabili gabea. 400 euro. Argazkiak ditut. Tel.: 650-73 51 56.

**Gasoi berogailua.** "Roca" etxeko gasoi berogailua saltzen da. 12 radiadore bertzeko ahalmena. Gutxi erabilitakoa. Baserri, txabola, etxe txikiendako aproposo. Prezio interesgarria. 50 litroko ur kalderina oparitzen da. 616 23 81 74, 943 79 34 74 edo 945 44 53 03

**Gimnasia bonoa.** Arrasateko Saioa gimnasia bonoak bazkideztatu bonoa salgai. 2013ko apiril bukaera artekoa. 250 euro. Idatzi marysea15@hotmail.com helbidera edo deitu zenbaki honetara: 653 72 22 54

**www.inmosalbide.com**  
**SALBIDE**  
Higiezin zerbitzuak

**Aia.** Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m<sup>2</sup>ko terraza. Oso prezio onean 39.000,046 pezeta!

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500,000 pezeta.

**Iraeta.** Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. 39.000,000 pezeta.

**Getaria.** Herrerietan kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Oso prezio onean. 39.000,000 pezeta.

**Zarautz.** Vista Alegre. 2 logela, bainugela, sala, sukalde. Bista zoragarriak itsasoaldera. Oso prezio onean. 38.000,000 pezeta.

**Zarautz.** Azken Portu. Ekialdea. 3 logela, bainugela, sala eta sukalde. 41.400,000 pezeta.

**Zestoa.** Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000,000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz  
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

ki honetara: 653 72 22 54

**Hozkailu konbinatua salgai.** Hile baten bakarrik erabilia. Martxoan erosi. Ecron markakoa. No frost eta 2 urteko garantiarekin. Saltzeko premia. 300 euro, negoziagarriak. 691-35 40 31.

**Hozkailua Combi New Pol No-frost. 200 euro.** Hozgailu - Izozgailu. New pol experience x-1850 ix nf. No-frost sistemaduna. Altzairuzko atea. 4 urtetan martxan egondakoa, egoera onean dago. Neurriak: altuera 185 cm x zabalera 59 cm. 2 ate. Kristalezko apalak. Izozkailuaren kapacitatea: 75 litro. Hozkailuaren kapacitatea: 217 litro. 200 € 680-59 73 79.

**Izozkailu ia berria salgai.** Ia berria dagoen izozkailua salgai. 85 litroko edukiera. 100 €. 94-655 06 04 672-41 09 38

**Karabana salgai.** 4 plazakoa. Ez du matrikularik behar. Zaharra baina egoera onean eta merkea. Abantzia opari. 685 72 58 25

**Kanpadenda salgai.** Marechal markako kanpadenda salgai. Behin bakarrik erabilia. 4 pertsonentzako. 120 euro. Tel.: 615-00 72 16.

**Korrika-makina.** Treo T208 korrika makina salgai. Egoera onean. Dendako prezioa 500 euro inguru, nik 275 euro-gatik saltzen dut. Deitu 669 17 09 51 telefono zenbakira.

**Mobil homea.** Banareko kanpinean (Errioxa) Mobilhomea salgai. Oso merke. Interesatuok deitu 656 77 17 23 telefono zenbakira.

**Paiste Alpha platerak salgai.** Nahiko berriak dira, eta oso gutxi erabiliak. Honako hauek dira: rock crash 16 eta 18, full ride 20, eta zildijian zht medium thin 16. Tel.: 607-43 84 03. cuesta.roberto@gmail.com.

# Googlek zenbait proiektu bertan behera utzi ditu

- ▶ Wave sare sozialak apirilaren 30ean egingo ditu azken urratsak
- ▶ Google+ sare soziala garatzera bideratu ditu ahalegin guztiak

IRATI GOITIA | ARRASATE

Urte hasieran, Larry Pagek, Googleko zuzendari exekutiboak, adierazi zuen konpainiak bertan behera utziko zituela arrakastatsuak ez ziren negozioak, aukera gehiago eskaintzen zituztenak indartzeko.

Horrenbestez, Googlek hainbat zerbitzu garatzeari utzi dio: Buzz sare sozialaren saiakera, Google

Desktop ordenagailuan artxiboak bilatzeko aukera ematen zuen aplikazioa eta Google Health osasun pertsonalaren erregistro zerbitzua.

Urs Holzlek, enpresako operazioen presidenteordeak, Googlen blegean argitaratu du alde batera lagatuko azken zerbitzuen artean hauek daudela: Google Bookmarks Listis, erabiltzaileei *bookmarks*

bat konpartitzeko aukera ematen ziena; eta Google Friend Connect, *webmaster*-ei euren orrietan ezagurri sozialak gehitzea ahalbidetzen dien erreminta.

Interneteko enpresak Google Gears, Chrome nabigatzailetik atera zuten konexio weba, ere erabat ezeztatu behar du.

Bestalde, kontsulta historikoen gaineko kronologia ere erretiratu

egin dute; horretarako, bilatzaileko osagarriak erabili beharko dira.

Era berean, Googlek ez du *Ikatza baino energia berriztagarri merkeagoak* ekimena garatzen jarraitu behar. Holzlek hau adierazi du: "Beste instituzio batzuk Google baino hobeto prestatuta daude ikerketa hau hurrengo mailara eramateko".

## Wave ere etenda

Waven garapena orain dela urtebete baino gehiago eten zuen, aparteko produktu moduan. Hala, urtarrilaren 31tik aurrera, zerbitzu hori irakurketarako bakarrik izango da. Eta apirilaren 30ean erabat etengo du zerbitzua. Ordu arte, bidalitako mezu guztiak esportatzen lagako du zerbitzuak PDF formatuan, bidalitako waveak gorde ahal izateko. Horrelako zerbitzu bat erabiltzen jarraitu nahi duenak, baina, posible izango du kode irekiko Apache Wave zerbitzuaren bidez egitea, bestek beste.

## Google+

Google+ zerbitzuan jarri du arreta guztia Interneteko enpresak. Izan ere, beste zerbitzu batzuk eten eta sare soziala indartzeko ahalegin gogorretan dabil. Horren lekuko da, adibidez, Google+ enpresetara bideratzea.

Miloika erabiltzaile dituen arren, sare sozialak ez du Googlek nahi besteko onespentik lortu.

## Tuenti sare sozialaren onarpena gero eta txikiagoa da

I.G. | ARRASATE

Tuenti sare sozialaren erabiltzaile bakarren zenbatekoak sekulako beherakada izan du, DoubleClick Ad Planner-en arabera (*on line* publizitate-rako Googlen erreminta). 2010eko uztailetik 2011ko hil bererera, sare sozial espainiarren eguneroko bisitari bakarrak erdira jaitsi dira, erreminta horren arabera.

### Telefonica ez dator bat

Hala ere, datuek dantza egiten dute nork ematen dituen kontuan izaten badugu. Izan ere, Telefonicaren arabera (2010eko abuztuaren Tuenti erosi zuen), sare sozialak 3 milioi erabiltzaile berri lortu ditu azken urtean, erregistratutako orriak 12 milioiko kopurua gaudituta. Horrek urteko %33ko hazkuntza adierazten du. Are gehiago, Cristobal Fernandez konpainiako komunikazio zuzendariak zehazten du: "Tuentira 4 milioi argazki igotzen dira egunero eta 7 milioi bideo ikusten dira. Bestalde, 40.000 orri bisitatzen dira hileroko".

Hala ere, datu horiek ez datoz bat Espainiako *on line* audientziez arduratzen den comScore enpresak eta Nielsen eskaintzen dituztenekin. Izan ere, bigarren horrek 2011ko martxoan eginiko neurketaren arabera, 5,2 milioi erabiltzaile bakar ditu Tuenti. Beraz, comScore, Nielsen eta DoubleClick sare sozialaren trafikoa jaisten doala diote.

## Pertsonen arteko distantzia 4,74 gradu da

I.G. | ARRASATE

Facebooki buruzko azterketa batek aditzera eman du elkar ezagutzen ez duten bi pertsonaren arteko distantzia ohiko sei graduetatik 4,74 gradura jaitsi dela.

Milango Unibertsitateak eginiko ikerketa baten ondorio da murrizketa hori eta azterketarako oinarri hartu dira Facebookeko 721 milioi erabiltzaile. Hau da, munduko populazioaren %10.

### Milgramen sei urratsak

20ko hamarkadako ideia den arren, 1967an, Stanley Milgramek zehaztu zuen pertsona batek beste batengana heltzeko eman beharreko urratsak sei zirela. Hori zehazteko proba bat egin zuten 296 boluntariorekin. Herritar horien eginbeharra izan zen eskutitz bat bidaltzea lagun bati, pertsona batek bitartez Bostonen bizi zen herritar bati iritsi arte. Emaiza izan zen sei pertsona zeudela tartean.

Orain, Milango Unibertsitateak eginiko azterketan zehazten da Facebook sare sozialean eman beharreko pausoak murriztu egiten direla. 2008an batez besteko distantzia 5,28 salto ziren; orain, 4,74. Are gehiago, hainbat herrialdetan hiru urratsera murrizten da.

Hala ere, Facebookek azpimarratu du bi ikerketen metodologiak ezberdinak izan direla, eta, beraz, ezin daitekeela konparaketarik egin.



Tamagotxia. | GOIENA

## Tamagotxiak 15 urte bete ditu; jarraitzaile ugari ditu

I.G. | ARRASATE

Maskota birtualaren kontzeptua ekarri zigan Tamagotxiak 15 urte bete ditu eta urte hauetan guztietan 78 milioi erabiltzailearen zaintza jaso du.

1996ko arazoaren 23an kaleratu zen Tamagotxiaren lehen bertsioa. Arrautza formako pantaila bat zen eta hiru botoi zituen.

Horien bitartez, elikatu, garbitu eta zaindu egin behar zen txita birtuala. Orduetik hona, 35 bertsio kaleratu dira, esaterako: 2004an Tamagotxi Plus, 2008an koloreta-pantailadun bertsioa eta 2009an Tamagotxi iD.

Tamagotxiak izugarriko arrakasta izan zuen eta 40 milioi saldu ziren hiru urtean.

## EBk deskargak saihesteko ikuskatzeak debekatu ditu

I.G. | ARRASATE

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak adierazi du ez dela legala epaile batek telekomunikazio operadore bati agintzea bere sarean helarazten diren mezuen ikuskapen orokorra egin dezala, egile eskubideengatik babestuta dauden artxi-boen deskarga ez autorizatuak saihesteko.

Sententziak dio horrelako iragazki sistemak bezeroen oinarriko eskubideak urratzen dituztela, hala nola, datuen babesarena edo informazioa jaso eta komunikatzeko askatasunarena.

Auziaren jatorria Belgikan dago. Bertako egile eskubideen elkarteak (Sabam) salatu zuen Scarlet Interneterako sarbide hornitzailea erabiltzen zutenek baimen gabeko deskargak egiten zituztela.

## Etxean eginiko iPada opari neskalagunari

Txinako gazte batek erakutsi du dirurik izan ezean opari ederrak egiteko trebezia nahikoa dela. Izan ere, berak etxean eginiko iPada opari egin dio neskalagunari. Horretarako, nahikoa izan ditu bigarren eskuko ordenagailua eta Interneteko bideo bateko urratsak jarraitzea. Appleko sagarra ere jarri dio.



## TELE-BEGI

AMAIA PAVON



'Mujeres y hombres y viceversa'

Gipuzkoako nerabeekin burutzen ari garen ikerketan baieztatu dugu neska eta mutilen kontsumo ohiturak desberdinak direla: neskek telesailak dituzte gustuko eta mutilek umoreagatik eta futbolagatik apustu egiten dute. Azpimarratzekoa ere, gaztelaniaz direla aipatu dituzten saio arrakastatsu denak. Ezer berririk orain arte.

Badago, ordea, atentzioa eman didan kontu bat, eta izan da mutil zein neska *Mujeres y hombres y viceversa dating show*-aren ikusle fidelak direla.

Saioa ikusteko ahalegina egin nuen aurrekoan: neska-panpina bera babestuko zuen mutil guapoaren bila zebilen. Kexu zen, mutilak ez ziren-eta oldartzen neska bereganatzeko, eta mutilak, eskaerei men eginez eta gizentasuna haizatu guran, oilar-hauska letxe zebiltzan bata bestearen aurka.

"Baina flipautxo batzuk dira!", "gezurra da dena!" esaten didate nerabeek askotan. Justifikazio horiek hutsaren hurrengo dira nire ustez, gaztetxoek egunero-egunero ordu betez saioarekin egiten duten zita fidelarekin konparatuta.

## ASTEA GOIENAN

## GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 28



**Orobengoa anaiei elkarrizketa**

20:45

Orobengoa anaia Nafarroako automobilismoko openaren irabazleak elkarrizketatu ditu Xabi Urtzelai, *Harmailatik*-en.

12:25 Magazinea

13:25 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Bertso saioa

14:45 Berriak

15:15 Ikusten

15:55 Berbetan

16:26 Erositaikasi

16:43 Berriak

17:13 Ur eta lur

17:45 Altxor Txokoa

18:15 Marrazki bizidunak

18:42 Berriak

19:12 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Harmailatik

21:30 Magazinea

22:30 Harmailatik

23:15 Tolosako

abesbatza lehiaketa

MARTITZENA, 29



**Jose Antonio Ardanza, gurean**

19:45

Jose Antonio Ardanza lehendakaria izango da *Magazinea* saioan. Elkarrizketa egingo diote Arritxu Barrusok eta Eneko Azkaratek.

12:30 Magazinea

13:30 Marrazki bizidunak

13:50 Kantari

14:17 Onein

14:45 Berriak

15:15 Berbetan

15:45 Harmailatik

16:25 Ikusmira

16:53 Berriak

17:23 Harmailatik

18:06 Marrazki bizidunak

18:26 Tolosako

abesbatza lehiaketa

18:51 Berriak

19:18 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Bizitegia

21:15 Magazinea

22:15 Jaiak:

Doneztebiko feriak

22:47 Magazinea

23:47 Gipuzkoa kultura

EGUAZTENA, 30



**G Puntuako lehen finalurrekoa**

20:42

Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketako lehenengo finalurrekoa egin zen asteburuan Arrasaten. Horixe erakutsiko dizuegu.

12:30 Magazinea

13:30 Harmailatik

14:15 Kantari

14:45 Berriak

15:15 Ikusmira

15:45 Gipuzkoa kultura

16:15 Tolosako

abesbatza lehiaketa

16:45 Berriak

17:15 Bizitegia

17:42 Bertso saioa

18:07 Harmailatik

18:47 Berriak

19:17 Kantari

19:42 Magazinea

20:42 Bertso saioa

21:12 Magazinea

22:12 Berbetan

22:43 Gipuzkoa kultura

23:13 Magazinea

00:23 Bertso saioa

EGUENA, 1



**Argazki erakusketa**

22:15

Elgoibarko Ongarri argazkilaritza taldeak *Ongarri Bilduma* erakusketa zabaldu du. Erakusketa gehiago ezagutuko dugu.

12:30 Magazinea

13:30 Marrazki bizidunak

13:55 Kantari

14:20 Bizitegia

14:45 Berriak

15:15 Gipuzkoa kultura

15:45 Onein

16:15 Bertso saioa

16:45 Berriak

17:15 Kantari

17:45 Ur eta lur

18:15 Hamaika.bit

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Altxor Txokoa

21:15 Magazinea

22:15 Gipuzkoa kultura

22:45 Tolosako

abesbatza lehiaketa

23:23 Magazinea

EGUBAKOITZA, 2



**Limoi tarta nola egin ikasiko dugu**

14:22

Egubakoitzean, Goierri telebistak ekoizten duen *Onein* sukaldaritza saioan limoi tarta nola egin ikasiko dugu.

12:30 Magazinea

13:30 Marrazki bizidunak

13:55 Kantari

14:22 Onein

14:47 Berriak

15:14 Tolosako

abesbatza lehiaketa

15:39 Marrazki bizidunak

16:14 Leku txiki bat

16:44 Berriak

17:17 Marrazki bizidunak

17:47 Ipupomamua

18:17 Onein

18:45 Berriak

19:20 Kantari

19:47 Magazinea

20:47 Gipuzkoa kultura

21:17 Ikusten

21:55 Magazinea

22:55 Tolosako

abesbatza lehiaketa

## ARRASATE IRRATIA

**'Nuevo catocismo catolico' taldearen kontzerturako sarrerak**

*Kooltur ostegunak* egitasmoaren barruan, *Nuevo catocismo catolico* taldeak kontzertua eskainiko du Arrasateko Gaztetxean. Bada, guk bertara joateko sarrerak dauzkagu. Zozketan parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera. Zorte on.

**Durangoko azokari buruz hitz egingo dugu Arrasate Irratian**

Durangoko azoka zabaltzear dago eta 107.7ko uhinetan bertan aurten izango denari buruz hitz egingo dugu. Liburu eta disko azokako hainbat ikuspegi landuko ditugu Arrasate Irratian, beraz, azokari buruzko xehetasunak jaso nahi badituzu, entzun *Igo autobusera* irratsaioa.

**Ortu ekologikoei buruz hitz egingo dugu Jakoba Rekondorekin**

Ortu ekologikoen gaineko hitzaldia antolatu dute Fagorreko Euskara Batzordeek Garagartza auzoko herriko etxean, egunean. Edozein herritar joan daiteke hitzaldira eta Jakoba Rekondo izango da hizlaria. Guk Rekondo 107.7ko uhinetara gonbidatuko dugu ortu ekologikoei buruz berba egitera.

## TELE-ALBISTEAK

**Pil-pilean dauden gaiei buruzko saio berria, Goiena telebistan**

Abenduan 'Eztabaida' izeneko saio berriaren hiru atal eskainiko ditugu; Eneko Azkaratek aurkeztuta



Eneko Azkarate izango da saioetako aurkezlea eta gidaria. | IMANOL GALLEGO

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Gaur puri-purian dauden gaiak jorratuko ditugu *Eztabaida* izeneko saio berrian. Lehene-nego, gaia ezagutzeko erreportaje bat eskainiko dizuegu, eta ondoren, hainbat solaskiderek in tertulia izango dugu.

Ekai Center-ekin batera Goienak elkarlanean ekoiztuko ditu hiru saio eta hauek izango dira horietan jorratuko ditugun gaiak: industria politika, finantza merkatuak eta euroaren etorkizuna, besteak beste.

**Hainbat aditu**

Eneko Azkarate izango da saioetako aurkezlea eta solaskideak izango ditu bere alboan aipatutako gai horiei buruz eztabaidatzeko.

Tartean, ekonomian eta hezkuntzan adituak diren pertsonak izango ditugu *Eztabaida*-n jorratuko ditugun gaiei buruzko iritziak ematen: Xabier Zabaltza, Urko Lopez, Mikel Anton, Jose Ramon Bengoetxea, Adrian Zelaia, Iñigo Bullain, Eduardo Malagon eta Adrian Zelaia.

**Kantariko saioak osorik daude ikusgai sarean, baita argazkiak ere**

'Goiena.net/gaia/kantari' helbidean dago karaoke ikuskizuneko informazio guztia

A.T. | ARRASATE

Bukatu ditugu Kantarirekin egiten ditugun herriz herriko grabazio guztiak. Arrasaten, Oñatin, Bergaran eta Aretxabaletan izan gara Debagoieneko gaztetxoak kantuan eta dantzan ikusten, eta orain, Goiena telebistan eskaintzen ari gara saioak.

Hala ere, aurten, saio horiek internet bidez ikusteko aukera ere badaukazue *Goiena.net/gaia/kantari* helbidean.

Ikuskizunak telebistan eman ondoren, sarera igoko ditugu edonork edozein tokitatik Kantari karaokeaz gozatu ahal izateko; dagoeneko Arrasate eta Oñatiko ikuskizunak oso-osorik ikusgai daude atari horretan.

**Argazkiak ere bai**

Ikuskizunetan hartutako argazkiak eta emanaldi bakoitzaren ostean talde bakoitzari ateratutako argazki dibertigarriak ere badaude helbide horretan.

Argazki horiek herriko daude sailkatuta eta zuen argazkiak ikusi nahi izanez gero, *Goiena.net/gaia/kantari* helbidean duzue aukera.

Grabazioak bukatu dira, baina orain telebistan eta sarean jarraituko dugu kantari.

## ZORION AGURRAK



ARRASATE  
**June Iriarte Balerdi**  
Abenduaren 3an, 4 urte.  
Zorionak, Mari Matraka!  
Patxo handi bat Aner,  
Malen eta Naroaren  
partetik!



ARRASATE  
**Unai Eraña Epelde**  
Abenduaren 3an, 8 urte.  
Zorionak, Unai. Jadanik  
zortzi urte bete dituzu eta  
familia guztiaren partetik  
egun polita opa dizugu.  
Muxu handi bat zure anai  
Urko eta Manexen eta  
baita lehengusua Anartz eta  
Jonen partetik ere.



ARRASATE  
**Zihara Bergaretxe  
Gaztañaga**  
Abenduaren 1ean,  
urtebete. Zorionak  
etxeko danen partetik  
gure printzesari.  
Egoitzen partetik, patxo  
potoloak!



ARETXABALETA  
**Hodei eta Beñat Martinez Revuelta**  
Azaroaren 29an, 3 urte. Zorionak! Gaur hiru urte! Oso  
ondo pasatu familia guztiarekin eta prestatu kandlei  
putz eta putz egiteko, eh? Muxu handi-handi bat  
bakoitzarentzat, maittiak!



ARRASATE  
**Haizea Arroyo Zubia**  
Azaroaren 29an,  
urtebete. Zorionak,  
prexioxa! Zenbat urte ein  
biozu? Bat! Patxo  
handi-handi bat amtxo  
eta aitaxoren partetik.



ARRASATE  
**Urko Eraña Epelde**  
Azaroaren 28an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Egun  
polita pasatu zure familiako kide guztien partetik eta  
muxu handia Unai, Manex, Anartz eta Jonak.




BERGARA  
**Oihana Murgiondo**  
Azaroaren 28an,  
urtebetetzea. Zorionak  
eta patxo handi-handi  
bat familixako neska  
guapienarentzat  
Maialen, Aitor eta danon  
partetik! Ondo pasatu  
eguna, Oihana!



BERGARA  
**Hodei Zanguitu Sanchez**  
Azaroaren 28an, 3 urte. Zorionak, Hodei, Unax eta  
etxeko partetik.



ARRASATE  
**Alaitz Zaitegi  
Manzanar**  
Azaroaren 28an, 2 urte.  
Zorionak familiako  
guztio, eta bereziki,  
Iratiren partetik.




ARRASATE  
**Milagros Aramendi Ugarte**  
Azaroaren 27an, 68 urte. Zorionak, amana. Ondo  
pasatu zure urtebetetzea familia guztiarekin. Eta egun  
horretan 46 urte aiteita eta amana ezkondu zirena.  
Zorionak eta urte askotarako Jon eta Iraideren partetik.



ARRASATE  
**Ane Lozano Moyano**  
Azaroaren 26an, 4 urte.  
Zorionak, gure erregina!  
Lau urte! Ondo pasatu  
zure eguna eta muxu  
asko Ainara, ama eta  
aitaren partetik.



OÑATI  
**Malen Guridi Agirre**  
Azaroaren 25ean,  
urtebete. Zorionak,  
maitte! Muxutxo asko  
maite zaitugun guztion  
partetik.



BERGARA  
**Aiora Bernal Orgaz**  
Azaroaren 25ean,  
urtebete. Zorionak  
guraso, aitona, amonak,  
izeba-osabak eta batez  
ere lehengusua Uxueren  
partetik, patxo handia!



ARRASATE  
**Naroa Alberdi Segovia**  
Azaroaren 25ean, 7 urte.  
Zorionak, polit hori. Ondo  
pasatu eguna.  
Besarkada handi bat  
lbaireren partetik.



ARRASATE  
**Garazi Etxebarria Zubizarreta**  
Azaroaren 24an, 21 urte. Zorionak eta urte askotarako,  
guapisimo! Egun on-ona pasatu. Patxo handi bat zure  
lagun ezkutuaeren partetik!



ARRASATE  
**Xabat Otxandiano  
Jausoro**  
Azaroaren 22an, 8 urte.  
Zorionak, txapeldun!  
Ondo pasatu zure  
zortzigarren  
urtebetetzean. Patxo  
handi bat etxeko  
partetik. Pa!



BERGARA  
**Ramón Latorre  
Etxaniz**  
Azaroaren 22an bete  
zituen 62 urte. Zorionak  
eta belarri tirakada handi  
bat!



BERGARA  
**Andoni Goiti**  
Azaroaren 22an,  
urtebetetzea. Ez dogu ez  
tortillarik, ez txorizorik  
eta ezta bizkotxorik ikusi  
Goienan. Azkar bueltatu!  
Osasuntsu eta indartsu!  
Zorionak, Toño!



BERGARA  
**Iker Gomez Gimbert**  
Azaroaren 21ean, 4 urte.  
Zorionak, Iker, etxeko  
partetik. Eta Iraia eta  
Juneren partetik, muxu  
handi bat.

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu GOIENAREN bidez zoriontzeko:

## Internet

Sar zaitetz [goiena.net](http://goiena.net) atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.

## Posta elektronikoa

Mezu bat bidali [zorionagurra@goiena.com](mailto:zorionagurra@goiena.com) helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitetz GOIENAKO ordezkari batzura batera.

Egubakoitz 11:00ak arte  
jasotako zorion agurra bakarrik  
iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo  
asteen argitaratuko ditugu.

## ESKER ONA

## Juanita Sologaitoa Iriarte



Arrasaten hil zen 2011ko azaroaren 17an, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak  
bidali dizkiguzuenoi, bihotzez eskerririk asko sendikoen izenean.

Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.  
Eta inoiz itzaltzen ez delako,  
gogoan zaitugu.

Arrasaten, 2011ko azaroaren 28an.

GOIENAN ESKELA JARTZEKO  
DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05. EDO ZATOK ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelaren prezioa: 126 euro. Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.  
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

Eskelak jartzeko orain arteko ordezkarietz gain

## BERGARAN, ABENDUTIK AUERRERA

JARDUN ELKARTEA  
Errotalde jauregia (kultura etxean)  
943 76 08 19



## AI, ENE!

### Aurkezpen on batek zenbat balio duen...

Ez arduratu, hartzatxoari ez zaio ezer gertatu; hasteko, hartzatxoa arroz platerkada delako. Nork zioen orijinala izatea erraza denik? [www.biskvitka.net](http://www.biskvitka.net)



## AHOBERO

### "Elizak ez dio inoiz ere esaten Gobernuari, duen kolorea duela ere, zer egin behar duen"

J. A. MARTÍNEZ CAMINO | GOTZAINEN BOZERAMAILA

Hitzon segidan, Martínez Caminok gaineratu zuen eurentzat bidegabekoak diren legeak, esaterako homosexualen ezkontzena edo abortuarena, indargabetu egin beharko lirakeela. Aginduaren, eskariaren eta aholkuaren arteko marra hain da fina batzutan... [www.elmundo.es](http://www.elmundo.es)

## EGURALDIA



Max. 15°

Min. 1°

Izotza ager daiteke eta behelainoa jaso ostean eguzkia jaun eta jabe izango da [euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2011-11-28

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

## HAMARREKOA

**Andres Urrutia** Jaiotzez bilbotar peto-petoa eta lanbidez notario eta irakaslea, 2004a ezker hura da Euskaltzaindiaren burua eta aurpegi nabarmenena. | TXOMIN MADINA

### "Topiko okerra da arauak etengabe aldatzen ditugula"

**1. Rajoy ala Raxoi, zein izango da Espainiako hurrengo presidentea?** Real Academia Galegaren buruari galdetu behar zenioke hori... Niretzat, ohituraz, Rajoy, jabetzaren erregistratzailea delako; baina onartzen dut Raxoi ere izango litzatekeela... Dena den, euskal toponimian ez da agertzen.

**2. Erakunde bateko buru zaren heinean, zer aholkatuko zenioke?** Ahal duen neurrian Espainiaren arazoak konpontzeko. Baina tentu handiz; presaka ibiltzea ez da ona.

**3. Euskaltzainburua eta, gainera, notarioa zaitugu, ala alderantziz?** Dudan adina kontuan hartuta, bata zein bestea, ez dakit zeinek duen lehentasuna. Garai baten, argi nuen; gaur, gero eta nahasiago daukat.

**4. Arauak etengabe aldatzen dituzuen sentipena dute askok...** Nire ustez, topiko okerra da. Katalunian 100 urtean eta Espainian 300 urtean egindakoa guk 40-50 urtean egin behar izan dugu, euskarak berak gizartean duen gero eta presentzia handiagoarekin eskatu duelako hiztegia, gramatika, toponimia eta beste finkatzea.

**5. Euskaltzain bileretan, nork eroaten ditu pastak?** Kudeatzaileak; baina gero eta gutxiago, aurrekontua murriztagoa da eta. Azken urteetan erabat aldatu dira bilerak: eztabaidatzea baino gehiago da biltze eta laburtze lana egitea; batzordeetako lanari errepa-soa eta arau maila ematen diogu.



JON POZO

## MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

### "Berradiskidetzea bilatuko nuke"

"Euskal Herrian berradiskidetzea bilatuko nuke; eta horrek in lortuko bagenu, esaterako, krisi ekonomikoari aurre egitea, makilatxo horrek sekulako lana egingo luke. Hirugarren nahi bat ere badut: Euskal Herriaren etorkizuna ahalik eta garbiena izatea. Baina horretarako, makilatxoa beharrean, lana behar da".

**6. Euskara, ez erabiltzea baino, hobe gaizki erabiltzea. Ados?** Ez. Erabili egin behar da, ahalik eta modu onenean, nork bere naturaltasunetik. Hori ez da txarra edo makurra; naturaltasunak naturala izan behar du, kasuan kasu eta lekuan leku.

**7. Zer da zailagoa: nazioarteko legeak euskaratzea ala gazteendako euskara lantzea?** Ez bata, ez bestea, ez dira errazak. Lehenengoan, hainbat kontzeptu zail samarrak dira euskararendako. Gazteendako erregistroak euskararen beraren iturburuetatik sortu beharko lirake.

**8. Irakasle ere bazaren neurrian, euskarari, zein nota jarriko zenieke euskarazko hedabideei?** Batzuei bikain, beste batzuei nahikoa eta justu samar. Klase guztietan daude gorago ibiltzen direnak eta narratsagoak.

**9. Ikasgelan edo bulegoan ez bada, non harrapatuko zaitugu?** Akaso, ibiltzen: European, Euskal Herrian... Gustuko ditut bidaiak, baita herri bakoitzeko kultura eta liburugintza ezagutzea ere...

**10. Neur dezagun zure bilbotartasuna: zein da munduko txokorik politena?** Txoko politena ez dago Bilbon, Bilbo oro har da erakargarria. Baina lanagatik eta familiagatik, ez ditut sekula ahaztuko Lea-Artibai eta Urdaibai. Nire bilbotartasuna futbolearen mamitzen da batez ere.

## BIHARAMUNA

ELENA LAKA



### Txoriak eta loreak

Debekatuta zion bere buruari krisiaren ondorioei buruz idaztea, hain kikilduta zeukaten ulertzen ez zituen ekonomiazko albisteek. Hauteskundeei buruz idatz zezakeen, baina PPre garaipen borobilak izua baino ez zion sortzen. Pentsatu zuen hauteskundeei Euskal Herriaren ekarritako aire berriei jardutea, baina konturatu zen adierazten zuenean zazpi ordezkarietik sei gizonak zirela, zehazteke zegoela egin beharreko oposizioa, eta gero, txantxa moduan, taldeko buruaren itxurak Olentzero kaletartuarena ematen zuela, bada, komentario horiek ez zirela inguruan ondoegi hartzen.

Irtenbide bila, ihes egiteko literaturara jo zuen orduan, amodiozko liburuetara. Hor behintzat nahigaberik ez, topatuko zuen plazera. Irakurri zuen nola, behin ezpainekin nahi gabe erakartzen zaituenaren ezpainak ukituta, haien ukimena eta usaimena betiko geratzen den burmuinean itsatsita, droga indartsu bat balitz bezala. Horren gainean idaztea pentsatu zuen, ez da beldurgarria, ez eztabaidagarria, plazera ematen du. Baina bertantxe jabetu zen Goienako zutabe batean zegoela, ez Barbara Cartlanden errelatu batean.

**ION** ZORUAK LEIHOAK ATEAK HORMA ARMAIRUAK  
leihoak

**ARRASATE**  
Telleria kalea 4 • Pab. 11  
Aramaioko bidea  
(Markulete Ind. inguruan)  
Tel.: 943 79 11 35

**GASTEIZ**  
Olagibel 51  
Tel.: 945 25 71 73



RENOVE PLANA  
LEIHOETAN

